



Iturria: Baserritar nekezaleentzaco escolia, edo icasbidiac guraso justu ta jaquitun familija
ondo aži ebeeneen exemplu ta eracutsijetan, Juan Jose Mogel. Apraiz, 1816.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJJESkolia.htm>

BASEERRITAAR NEKEZALEENTZAKO ESKOLIA

Juan Jose Mogel

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

BASEERRITAAR NEKEZALEENTZAKO ESKOLIA

Juan ta Franziska Baseerriko Nekezale,
ta eureen familijaren jazoera irudituban

Baseerritaar nekezaleentzako eskolia, edo ikasbidiak, guraso justu, ta
jakitun familia ondo aizi ebeeneen exenplu, ta eragutsijetan

Emoten dau argitara Bizkaiko euskeraan

Biar dan bai-emonagaz

Bilboon. D. Pedro Antonio Apraizen molde azkijan 1816garren urtian



BERBA AURREKUA

Neure Baserrijetako nekezale maitiak: Jangoikuak sorreratik legez zubek ganako iraatsi eustan berarizko etsigitasunak txiki txikitatik zaletu ninduban zubekaz artu emon estubak eukitera. Izañ dedilla zuben ta nire onerako. Urterik urtera sendatun da nire Biotz leleengo asmuetañ, ta gozatu ainbeste ezagutu, ta maite dituban abarkadunetan. Amodiua berbalduna da, ta ez errazto ixillik euki deitekiana; barriz aillagina biztu oi da nosbait, zeñda azkortutenean gizonik txaldaneena senduageentzat obato letorkezan gauzeei esestera. Ara emen, zegaitik ontzat eruan leitekian nire azartutasun laarregia. Euskal Errjak, ta Baseerrijak eurak emon deutseez jakitun andiak Mundubari; baña batsuk zabaldurri eureen argijak baster andi, ta ugarijetara, esan lei, bakarrik aaztu zirala eureen jaiterri, ta berbeetakuakaz; beste batsuk, ez dakit zegaitik; baña dakustana da, batez bere Bizkaitaareen artian, banakareen bat ez izanik, osteruntzeko jakitunak ez dirala dendetutu amaren ugatzetzi ikasi ebeen berbeeta eder, ta gozatsuban jatorrizko anaerik urkuenei liburubeen bidez eureen adin aberatseen ondasunak zabaltzen. Barriz bat bakarrik ez dot aurkitutenean beraariz baserrijetako nekezaleetara zuzen duten danik. Amodiua biziarentzat nais bage andiko gomuntzia. Alperrik bada eukiko nabee arro, ta lotsabagetzat, nuatsu eskintzera liburu txiki au. Norbaitek asi biar dau. Ezin ukatuko dabee nasala leleengua zubei bakarrik, ta beraariz liburuban berba egiten. Ez al nas azkeneengua izango. Igituko al dira jakitunaguen biotzak eureen argitasun andijaguak zubei eskintzen. Au jaristen badot, ontzat eruango ditut egin leideez burla gustijak. Baña arrietañ artu egizuz ontzat neure jakiturria labur, baña borondaterik zintzo, ta eraatsijenak eskintzen deutsuzan ikasbide labur batsuk. Ezaguturik ondo etxeko eskola ona, edo txaarra oi dala geijien iraasten dana, ta emendik urten oi dabeela ikasten diran ekandu zuzen, edo okerrak, uste izan dot txito ondo dala imiñtia begijien aurrian jazoera iruditu bat, zeñetan ikusten diran Baseerriko guraso jakitunak Jangoikuaren bildur santuban, ta jakiturria egijazkuun eureen seme alaba, ta mendekuak azten, ta bide okerren kalte, ta arriskuba, agerturik zuzen garbi ta egijazkuak maitetu eragiten. Irudi onetara deitutenean ditut bada, Baxeerrijetako guraso ta osteruntzeko nekezale gustijak. Zaarrak, ta gaztiak, gustijak aurkituko ditubee eurei jagokeezan ikasbidiak. Ez diñot Baseerritaarrak ez diranak ez dabeela izango emen zer ikasirik, ezkada ez dodala berariz eureentzako berbo egiten, zerren kaleeta-

ko bizimodu, ta arrisku, edo labanarri gustijak azaldeetan asi ezkero, liburu andi asko baltzitu biarko litzatez txikin onen lekuban. Onez ostian nagijak ezpadira kaletaarrak, dauke era obia Jangoikuaren berba santuba sarrijago entzuteko bere ministreueen aotik, ta nagijak badira, zetarako izango litzate nire liburuba? Orregaitik berba egin arren nik Baseerritarra, osteruntzeko bere artu biar dabee eurei jagokeena, ezaguturik, iñok ukatu ezin daikiana, Baserriko gurasuak ardura andija artu biar badebe eureen seme alaba, ta mendekuak ondo azten, ta pekatuko lakijuetañ alde eragiten, ainbat andijagua artu biar dabeela Kalekuak, zeñbat ugarrijago diran eureen artian arimako arrisku, ta galdu-bide negargarrijak. Jangoikuak daki ondo nire asmo, ta guraarien barri. Entzungo al ditu nire erregu otzak. Iraatsiko al deutsee indarra nire berba epelei; biztuko al da gure fedia. Barristau antxiñako Eremu, ta baso arteko gizoneen ostura zorijonekuak. Erbestetu betiko mundubaren labankerijak, aragijaren argaltasunak, ta Luziferren malmutzkerijak bazter, ta zurkulu gustietara agino zabaldu dituban ekandu Zorigaistokuak. Zuzendurik geure egitandaak Jangoiko andijk imiñi euskuzan bide, ta neurrijetarik, jaubetu gaitian bere amodijuak guretzat prestaurik daukazan, neke laster igaroko diraneen, sari amaibagaakaz.

ENTZUN

Euskaldun askori miñberatuko deutseez belaarrijak Liburu onetan irakurriko ditubeen berba arrotz ta naasaekuak. Dudatzaka esango dabee izanik euskeeria berez aïñ aberatsa ez dabela biar erbesteko berbeeta ezañguen jantzirik. Zetarako esan entendimentuba adiña gaitik, ta alan beste erdal berba asko euskeera garbikuak itxita? Egijaz, noren biotza miñdu, zamiñdu, edo oñaztuko ez da ikusirik euskeeriaren ugaritasunetik apaiñdu dirala beste berbeeta asko, ta euskaldunak eurak, beste aldetik, naasteetan ditubeela berba arrotz, ta burutazinoe utsekuak eureen jakiturria ta argitasunez betiakaz. Euskeeriaren zaletasun, ta eraaspenean puskabat daukeenak negar egiten dabee gaurko egunian ikusirik eri gitxi batzubetan bakarrik aurkitutenean dala berbeeta eder, ta munduko jakitun gustijak zurtu biar dituban au, bere billostasun, ta soilltasun garbi, argi ta miragarrijken. Beste erri askotan, ez dago belaarrijik entzuteko zelako erdeera mordolluakaz ezañdutenean dabeen euskal berbeetia. Parkatu daideela Bizkaiko Kura Jaun askok bada eurei ezarten deutseet onetan erru andija.



Erdeera, Latin, ta beste berbeeta asko ikasten ditubee txito ondo ta garbiro; ta neke gitxi bat artu eza gaitik dagoz atzeratubak euskeeraan. Alan gero eureen Sermoe, ta berbakunzeetan erakusten ditubee esakune erdaldundubak. Eskoleetanerdeeria ikasteko leluak bere ez dau onetan kalterik gitxieen ekarri. Euskeeria naastau, ta erdeerarik ikasi ez; au da eskolako umeetan beti ikusi dodana. Baña ez da nire asmua orain onetan luzatutia; esan danetik ezagutuko da, zegaitik liburu onek urteten ez dabentus euskeera garbijaguan. Arimako ondasun, ta mesediak billatzentitut; Orretarako nai dot gustiak aitu naijeen. Jangoikuari eskerrak egunororen urtengo dabee orain euskeerara zaletu, ta ondo ikasteko gei ugarijk. Ill ziran Larramendijak, Astarloaak, Mogelak baña ez eureen liburubak; oraindik gustiak argitara urten ez badabek bere. Bizi da oraindik zorionez Erro, ta zaletutengagora ondo euskeerara, erro zabalak botako dituztazter gustijetara, ta orduban urtengo dabee liburu barri euskeriaren Lora, ta ondasunez betiak.

ISTORIJAREN ASIERA TA ERAKUSTEALDI I

Juan Bascerriko seme bertan jaijo ta azija, Etxaguntza andi baten jaubia biz izan zan txikitatik Jangoikuaren billdur Santuban. Ai-llagiñazaletu zan liburubetara, zeiñda biar arte, ta jaijegunetan euretan billatuteneban bere atsegir gustija. Eukan Osaba, Sazerdote txito jakitun bat, zeñek, ezaguturik bere lobiaren entendimentu iratzarri, ta ikasi naija, lagunduteneutsan asko liburubak ondo aitutera, ta bere guraarijetan aurreratutera. Alan Juanek estaduba artu orduko, irabazi eban bere birtute, ta jakituriaren entzute, edo fama andija. Jangoikuak alan nairik, ezkondu zan Franziska eritzon Neskatilla honesta, garbi, ta doktrina onian aziñiko bategaz, ta berrialasai zan emoten bere jakituriaren, irakurriko dituzun, lekzinoiak.

SENARRAK: Ez dago neure Emaztia guretzat beste azkenik, betiko salbazinoe, edo kondenazinoia baño. Munduko bizitza laburrian irabazten doguna izango dogu geroko amaibagaan. Bada gure ardurarik andi-jeenak izan biar dau, alkarrilagunduta, geu, ta Jangoikuak emoten deuskun familia bere betiko Erreinura zuzendutia. Estadu gustietan egir biar da indarra Zeruba irabazteko, ta dirianeentzat da zabala Infernurako bidia. Jangoikuak gizon gustijei imini eutseezan bere mandamentu Santubak gorde egijeezan salbau nai beebeen, baña gure estadubari iraatsi eutsazan beraarizko beste obligazinoe asko, ta astunak. Alkarreganako lejaltasun, amodijo garbi ta bake andi bat, familijaganakoexenplu, doktrina ona, ta eureen bizimodubaren ardura edo kuidadua dira guri eskatuko jakun kontu ziatz, ta estubaren zimendubak. Jangoiko justu, zuzen, gustia dakusana, ta ezer aaztuko ez jakona da estadubak gizonen artian itxi zitubana, ta imiñi eutseezana bakotxari bere bizi modurako legiak. Izanik bera gauza gustieen egillia, da gustieen jaubia. Ezin esan lei bestek ezer gaitik, au edo beste gauzia neuria dot, nai dodana egiteko, zeren gustija dan berak emona kontu, ta errazooia eskatuteko. Familia da Jangoikuak gurasuei emoten deutseen luurreko ondasunik andijeena bere lege Santuban azteko obligazinoerik estubenagaz. Gurasueen erruz, dala doktrinari ez erakutsi gaitik, dalaexenplu ona ez emonagaitik, dala eureen bizi modubaren ardura zuzen bat ez eukija gaitik, dala peligruzko lagun, ta Okasinoietatik aleginez ez alde eragiñagaitik, galduen bada familijako bat edo baten arimia, gurasueen gañian izango da aren erru ta kontuba. Ah! gura-



so zorigaistoko JesuKristoen odola desprezijeeetan dabeenak! Esan gura dot. Jesusek emonik bere odol, ta bizitzia arima gustijak, ta bakotxa gaitik, iñor kondena ez zedin gustijak salbau zitian, ta erbestetu zedin pekatuba mundutik, negargarizkuak dirala guraso errukarri, pensau baga ondo, zenbat balijo dabeen eureen mendekuen arimaak, zenbat kosta jakozan Jesusi, ta zer injurja emoten jakon pekatu-bagaz, azten ditubeenak Mundubaren, ta pekatubaren legian. Zer erantzongo ete deutsee Jesusi erakusten deutseezanian bere buru arantzaz inguratuba, esku ta oñ ultzez josijak, espalda azotez edegijak azurrak agertu artian, bere biotz Lantziagaz edegija, gustija arimaak gaitik?

EMAZTIAK: Ori gustijori egijia da, baña egiñ arren gurasuak alegiña urten lejее deungaak seme alaba, ta mendekuak.

SENARRAK: Alan da, baña Jangoikuak ez deutsee gurasuei artuko urteten dabaren konturik, eurak gaitik urteten ezpadau. Guraso ardura baakuetatik urten lei seme on batek, ez eskerrik gurasuari, ta orregaitik kastigauba izango da eureen ardurarik eza, Santa Barbara ta beste asko dagoz Zeruban, ta eureen gurasuak Infernuban. Guraso onetatik bere urten lei seme deungiak, baña eureen aldetik dan gustija egiñ ezkero, ez jakee errura ezarriko, ta bai sarija emon eureen alegiñak gaitik ondo urten balebee legez. Dabid errege Santubak ez eban ezer galdu Absalon bere semiak deungiak urten ebalako, ta daukaz gloria andijk Zeruban bere aldetik emon eutsazan doktrina, ta exenplu onak gaitik. Es zan aprobetaxu Absalon, iges eban bide okerretara, ta bera kondenau zan. Baña baldin ondo azita bere urteten badabee seme alaba deungaren batsuk; zer izango da, ondo azten ezpadira? Zer eureen libertadian isten badira, lagun deunga pekatuko bide, okasinoe ta peligrubak galerazoten ezpajakeez?

EMAZTIAK: Eta zer egiñ biar dabee gurasuak familjakoren batek edo geijagok deungaak urteten badeutsee?

SENARRAK: Otsein, edo serbitzarijak badira, ta onian ez emendau, bota etxetik, eureen gurasuei esanda. Seme alabak badira, genijo, edade, ta zirkunstanzia gustiei begiratuta, edo ondo esanda, edo zigorra erabililita, zematuta, zuzendu eragiñ. Baña, gitxitan jazoten dana gurasuak errespetua daukeen Etxian, lotsia galduko baleutsee eureen kastigubetara, ez itxi nairik pausu okerrak, justizijari parte emon, bada oneek daukee obligazioa gurasuei lagun egiteko, ta seme alaba lotsa bagaak eureen obedienzia jara erakarteko. Ez da bada asko gurasueentzat ikusten ditubeenian etxe-kuen okertasunak, agiraka uts batzuk egitia. Heli esaten jakon gizon andi ta txito on batek eukazan seme bi zeintzuk artu zitubeen bide geistuak; jakinik guraso onek esan eutseen ez alako gauzarik egiteko, bada Jangoi-

kuari aserratu eragiten eutseela; onenbestegaz gelditu zan kastigau baga, ez zan ikusi obaasunik semeetan, ta Jangoikuak agertu eban bere aseria bialdubagaz, irurei beingo baten, eriotzarik tristeena. Orazinoe, ta Jangoikuari ondo eskatutiak bere dauka indar andija semiak ondo azi, ta okerrak zuzenduteko. Santa Monikak eban senarra Jentilla, ta deungia. Izan ebeen seme bat Agustin esaten jakona. Erakusten eutsazan txikitatik doktrina ona, Jangoikuaren amodijo, ta mudubaren gorrotoko gauzaak. Baña Agustiñek, Aitaren exenplu ta konseju geistuakaz arrotuta, lagun deunga ta luurreko labankerijaakaz poztuta, artu eban bizi modu nasai, ta libertade andiko bat. Ez eukan ama onak nai eban eskubiderik Agustiñegaz, Aita zalako bere anparuba. Begijak malkoz beterik, egiten deutsaz sarri erregu biziak seme galdubari, zuzendu zedin bere bide geistuetatik, baña Agustinek ez deutsa jaramonik egiten, ta estudiheetako asmuagaz iges egiten dau erri urrinetara libertade andijaguan bizi izatera. Ama tristiak jarraitutent deutsa negarrez. Gau, ta egun zuzenduten ditu orazinoe samurrik Zerura seme maitaren arimia gaitik. Konsejeetan da Obispo Beneragarri bategaz, ta dirautsa onek; Monika, artu indar, ta animua; ez da galduko ainbeste negar ta orazinoeren semia. Esan ta egiñ: Agustin bere itxutasun, ta zorakerija gustieen artian ezin aaztu zan bere amaren konsejubakaz, ezin kendu zituban gogotik ainbeste amodijoren negarrak, ta Jangoiko errukiorrak, bigundurik ama santiaren erregubakaz, batu eban beragana pekatari andi au, Santu andijagua izateko.

EMAZTIAK: Gurasuak maite izanik asko eureen semiak gusto emon gura oi deutsee, ta errukijak atzeratutent ditu kastigeetatik.

SENARRAK: Espiritu Santubak diño guraso, bere semia maite dabenak, sarri kastigeetan dabela. Au da benetako amodijua. Guraso batek maite dabela bere semia, ta ez nekerik emote arren, dauka biarrik eragin, ta ofiziorik erakutsi baga; alperrerrija gaitik ez dau kastigeetan; errukiz isten deutsa eskolara bialdu baga. Beste batek erakusten deutsa ofizijua, eragin biarra, kastigeetan dau alperrerrija gaitik; bialdutent dau eskolara, nai negar, nai barre. Nok maite ete dau benetan bere semia? Alan bada ariamako gauzeetan bere; amodijo egijazkua dago kastigeetian merezi danian, ta alan ez egitia da benetan ez maite izatia. Gusto emotia Gurasuak seme alabei gauza batzubetan ondo da, baña ez jakee iñundik gustorik emon biar arimako kaltian, ta azajera onaren kontrako gauzeetan. Guraso askok, enredo puskabat egiten badabee umiak, Katillu bat deskuiduan ausi, edo erropareen bat urratu, bulla andija atera oi dau, ta kastigau laarreegi; ta biarra daukeenian, dala eureen arteko aserre, burruka, birao, lapurretatxu, ta beste okertasunak gaitik, kastigau biarrian gauza andijaguak ikasi ez



daijeezan, biar bada ez deutsee jaramonik egiten; au jazoten da umiakaz, ta azita asko deungaago dana; mutill batek eukiko dau afizione puskabat Pelota, Kaza, peska, edo dibersinoe inozente batera, ta izan arren beste aldetik biargina, ateraten dau amak diadarra, ta diño, au dabill osasuna galduen, ezin aguantau leijo abarka, ta soñekotan, ta ikusi arren semia fiestarik fiesta, erromerijarik erromerija, neska arterik neska arte, bere arimia, ta beste askorenak galduen; ta alabia bardin, Banidadez arroturik, pausu geisto alakuetan, orregaitik ez da estutuko guraso errukarrija. Au gustijau dator luurreko interes, ta gorputzeko gauzei laarregi begiratu, ta arimakuei jaramonik ez egitik. Ahi! Guraso zorigastokuak; mundutaar, ta Jesusen legiaren arerijuak!

EMAZTIAK: Sarritan jazoten da, neure ustez, gurasuak arpegirik ez eukitia seme alabaak kastigeetako, edo eureen exenpluba ona ez dalako, edo leenago eurak bere obaak izan ez ziralako.

SENARRAK: Egijiaz egijiaz, badira gurasuak, eurak aurrerengo murmurietan, birao andijk botaten, bengantzako gauzaak projiimuak gaitik esaten, ta exenplu txaarra emoten deutseenak familijakuei. Beste batzuk, erdi edo osoz moskortuta sarri belu etxera oi duaeanak. Asko eureen gaztetako panparreria, okasinoe, ta ibillera deunga negar eragin biar leuski-juenak, pozik konteetan ditubeenak. Errukarrijak, onelakueen seme alabaak, baldin gurasueen exenplu deungiagaz lotsatuta, Jangoiko gustioen guraso onari laguntasuna eskatuta, sendatuten ezpadira eskandalu aïñ urekuan jausi ez ditian. Bada alako gurasuak, edo ez daukee arpegirik kontu artuteko biar dan gauzeetan, edo aintzat bere artuten ez ditubee, edo esan arren, zer balijoko dau eureen esanak, egitada txaarrak agirian badagoz. Baña baldin gurasua leenago argala, ta mundutaarra izan arren, aurkitutenean boda ondo damututa, emendauta, ordubar ondo eskarmen-tauta daguanak legez, imini biar dau ardurarik andijeena bere seme alaba, ta mendekuakaz. Azeri batek, Txakurrak nosbait estu erabilli badabee, edo lazu baten jausi ta iges egiten badau, erakusten deutsee bere umetxubei Txakur saunkia urrifetik entzun orduko iges egiten, ta lazuban bera jausi zan lekura ez urreratutenean. Alan bada guraso eskamentaubak aterarik ondo kontuba, nun, zelan, ze lagun, okasinoie, ta ibilleratan jausi zan bera pekatuko lazu, ta zuluetan, iges eragiñ biar deutsee euretatik seme, ta bere kargukuei. Zer gauza argijagorik au baño? Ezpada esango deutsee Jangoikuak: ezaguturik zeubek gurasuak, ainbeste bidar neu ofendiuta, ze lazu, ta peligru andijk egozan arimaak galdueteko onelako edo alako okasinoietan, zegaitik librau ez dituzu euretatik zeuben Familijakuak? Zegaitik itxi juaten ondatuko diran pekatuko lezeetara? Eta zer erantzongo e

dau askok? Oh! ze itxutasun andija guraso askorena azten ditubeenian seme alabaak mundubaren libertadian esanagaz, geu bere alan oi giñan! Albait deungaago, guraso tristia, alan izan baziñan. Zeuben gurasuak obato begiratu baleutsabee, ez zenduban ainbeste pekatu arimeetan euki-ko. Egizubee ondo denpora areetako examiñia, aztertu orduko berba, pausu, ta egitadaak; ta oraiñ negar egiñ biarrian zeuben, ta gurasueen utsegite, ta pekatubak, ez dituzu erremedijauko zeuben seme alabeetan? Ala zeubek deungaak izan zarialako, ez dozu gura ondorenguak onak izatia? Diabrubaren lana da, bera kondenau zalako bestiak kondenau gura izatia.

EMAZTIAK: Guraso askok esan oi dau; bestiak bere gure moduban azten dabee Familija, ta alan ez dabee kezkarik artutzen Predikadore, ta jakitun askok deungatzat emoten ditubeen okasinoietan ikusi arren eureen mendekuak.

SENARRAK: Jangoikuak ez deusku guri bestiak zer egiten dabeeen kargurik artuko, geuk zer egiten dogun baño. Ez gaitu gitxiago kastigau-ko, bestiak geure modukuak diralako. Jangoikuak imifiiriko obligazinoiak ezin kendu lejiez gizon guztijak alkar artu arren. Leenago Zerubak, ta luurrak faltauko dabee berba oneek baño; onak izango dabeeela betiko glorija, deungaak betiko Infernuba. Guztijok izaten bagara deungaak, guztijok kondenauko gara. Zenbat millinoe Aingeru jausi ziran aldabate-ra Infernura, guztijak pekatu egiñ ebeelako? Noeren denporaan Mundu guztijan ez zan aurkitutenean zortzi justu baño persona nagusijeen artian; beste guztijak bizi ziran nasaitasunian. Asko ziralako ez eutseen parkatu Jangoikuak, ezpada geijago aserraturik, bialdu eban ujol ikaragarri bat mundu gustira, igon ebeen urak mendijk baño goraago, ta ito ziran gizon guztijak, libraurik bakarrik zortzi justubak ontzi baten. Loten denporaan, ez zan bera, ta bere familija baño beste garbirik Pentapolisko bost erri ederrean artian; botarik Jangoikuak Zerutik suba, erre zituban erri, ta erri-jetako guztijak, Lot, ta bere familija ona kanpora aterata. Tontakerija andija da bida esatia, bestiak bere egiten dabeeela, gauza txaarra ontzat emoteko. Besteek pekatubak ez dau guria kenduko. Infernuban ez da inor bakarrik izango. Artu bear da besteen exenplu ona, baña ez deungia, mundubak ontzat daukazaneena izan arren.

EMAZTIAK: Badakit zure errazoiak ziurrak dirana, gusto andija daukat entzuten zelan erantzuten deutseezun askoren atxakije; baña sarri entzun deusedan ezkerro, errazago dala esaten egiten baño, uste dot laster aurkituko gariala okasinoian erakusteko egitadaakaz berbaz esan dozuna. Espera dot laster argitara emotia gure Matrimonioko frutuba, ta Jangoi-



kuak bizitza emoten badeutsa, gure gañian izango dira, esan dituzun karga astunak.

SENARRAK: Edozeñek daki errazago dala gauzia esaten, ekiten baño. Errazago esaten da zelan gjaiu biar diran soluak, gjeetan diran baño. Onetarako atera biar da izerdija, ta artu neke andija, orregaitik nekezale onak guztija egiten dau laboria artuteko pozagaz; nekatu, ta erein baga, ez dabelako luurrik emoten arto, ez garirik, saxi, ta laarrak baño. Alan bada artu biar dira nekiak Familija ondo azteko, Zeruko frutubak artuko badira ta Infernuko saxi, eta laarrak nai ezpaditugu. Pensau modu baten, ta bestera egiñ, errazoiaren kontrako gauzia da. Ez neuke erakutsi gura, egiteko ustia ez dodan gauzarik. Barriz aurkituten zarian ezkero seña sabelian dozula, esango deutsut zer egin biar dan denpora orretan, ta zetan askok uts egiñ daruan. Seiñtxubak, sabelian daguanetik, dauka arima bat iños illgo ez dana, ta Jesu Kristok bere odolagaz erosija; baña ezin salbau leite, batiatutenez; eskatu biar deutsagu sendaro Jangoikuari, izan dediñ seiñori bautismo santurako. Onez ostian, daukagun ezkero zegaz, aterako ditugu Meza batzuk San Ramon Nonatoren bitaartetasunaren honraan, zeiñ dan atarako Abogau andija. Egiñgo ditugu limosna batzuk, pobrei egiten jakon karidadiak edegeiten ditubalako zeruko miserikordi-jeen atiak. Oh! ze kontu andija Jangoikuaren aurrerako gurasuen erruz seña galdu, ta bautismo baga gelditutia! Zeruko betiko maiorazkuak galerazotenez jakoz. Orregaitik, Ahi, zenbat bidar jazo oi dan! Batian senarra-ren gogortasuna gaitik, bestian bere kodizija gaitik, egiten ditubee biar neke andikuak, karga astunegijak artu, bideetan ariñegi ibilli, dantza, salto ta panparrerijaak egin, ta seintxubaren bizitzia pagau. Ernegazinoe, ta asarre estubak gaitik bere, galdu oi da seiñasko. Emakume batzuk errazago galdu oi dabee beste batzuk baño. Segurutik ibilltera prokurau biar da onetan, dalako gauza aïñ astuna, arima baten bizitza, ta salbazinoia.

EMAZTIAK: Ta zer egiñ, erruz edo erru baga seña galduen danian?

SENARRAK: Batzuk galduen dira sortuta laster, ta beste batzuk gero azitxu eginda, gorputz gustija formau ezkero. Ez dakigu ziur nostik Jangoikuak iraasten deutsan arimia gorputzari. Batzuk diñuee sortu ta irugarreren egunian, beste batzuk amargarrenian, ta beste batzuk gerotxubago. Dan moduban dala, erdi formau, ta prinzipiyo bat baño ez euki arren gorputzak, aartxu baten itxuria euki arren oraindik, batiatu biar da, bada ezpadako kondizinoiagaz. Ez dago andi txikarrian arimia eukitia. Ez ibilli luzatutenez, esturasunetan, ur bedeinkatubaren billa; egin laster edozein uregaz. Ez bota seintxuba uretara, batzuk egin oi dabeen legez, ikusteko bizi dan edo ez. Ori da itotia, bizi bazan. Sein azitxubak bere jaijoten dira

nosbait illda balegoz legez, ez dabee mobimenturik egiten baña guk uste izan ez arren, sarri egoten dira bizirik, akzidente bat daukana legez, orregaitik bada batiatu biar dira, bada ezpada, esanagaz ura botaten jakonian: Bizi bazara, nik batiatutenez zaitut Aitiaren, da Semiaren, da Espiritu Santutubaren izenian.



HISTORIJAREN JARRAIPEN, TA ERAKUSTE ALDI II

Jaio jakeen senar emazte onei seme bat, ta ez da erraz aituten emoten eureen poza, ta Jangoikuari emoten eutseezan eskerrak. Beriala prestau ziran bautismorako billaturik exenplu, ta doktrina oneko Aita-besuetakuak. Imiti euseen Luis Gonzagaren izena, ta eleisatik etxera ekarri ebeenian daruako Senarrak Emaztiari, ta dirautso.:

SENARRAK: Neure emaztia, ara nun daukazun Zeruko Aingerubeen irudirik bizijeara. Nok konsidera daike, zurtu baga, zer dan arima bat bautismo santuba artu ezker? Konsagreetan dau espiritu Santubak Trinidade txito Santiaren tenplutzat; Jesusek artuten dau bere pasinoe ta eriotza odolsubaren seme barritzat. Ara bai emen, nun daukagun geure mendian Zeruko zorijontasun amai bageen herederu egiazkua; Jangoikuak maite daben bere irudiko Kriatura, ta pekatubaren loi, edo norban baga aurkitutenean arima, Zerubak ta luurrak baño milla bidar ederrago dana. Besuetan daukazun seiñtxu ori da Santu bizi. Illtia baño falta ez dabena Jangoikuaren arpegi ederra ikusteko. Bere arimia ikusi al bagiñai Eguzkijaren onduan ifinita, onen argitasuna begitanduko litxakegu iluntasuna, beriagazko. Oh! ze tesoru andija gelditutenean gure kargura!

AMAK: Laztandurik seintxuba, ta pozezko malkuakaz bere matrallaak bustiten eutsazala, diño: Ondo dakit neure semia, entzun ditudan gauza guztijak utsak dirala, aituten emoteko zure arimako edertasun miragarria. Jangoikuaren itxuria zara, ta ez daukat zer esan geijago. Baña geure erruz, ta ardurarik ezaz, galduko bazenduz edertasun, graziazko doe, ta miserikordia orrek; ze arpegigaz agertuko giñaindez Jangoikuaren aurrian, zure kontuba emotera? Oh! juizio zuzenal Juizio ziatza, ta aiñ ondasun andijkei jaokeena! Juizijo, ezin esan beste guraso kondenaurik daukazana.

Andik egun batzubetara, osatuta laster, juan zan eleisaan sartutera, ta emonik eskerrak Jangoikuari, esan eutsan orazinoe au: Jaun gustieen Jauna ta Jangoiko bakarra, ara emen zure kriatura maite, ta nire erraijekoa frutuba. Zeuria da, ta artu egizu zeuretzat betiko. Ez arren itxi, Mundu, aragi, ta Demoniuaren lazubetan jausten zeure odolagaz erosia, ta librau zenduban arima au. Ah! nire eska-bidiak, baleukee ainbeste indar zure aurrian, zeinda euki ebeen Doña Blanka Erregiña Franzijakuarenak, esan ebanian bere seme Luis gaitik: naijago zendukedaz, neure seme mai-

tia, illda ikusi, zeiñda jakin zeure bizitza gustijan pekatu mortal bat egindago dozula. Oh! berba biotzetik esan, ta ondo entzunak! Bada euren frutuba izan zan San Luis Franzia Eerrege inozente, ta andija. Nik bada barristau nai deutsut eskabide a bera, ta entzun nagizu arren, zeure ontasun, ta amodijua gaitik.

SENARRAK: Badakizu naturaleziak berak ameei emoten deutseena obligazioe modu bat, al badabee, ta kalte andireen bat ezpajatorkee, azteko eureen ugatzagaz seiñtzubak.

EMAZTIAK: Bai, badakit, ta ezpaneki, animaljaak eurak exenplu bizi-jakaz arpegijan emongo leuskedee neure uts egite, ta alperrerria. Neuk bida, Jangoikua lagun dodala, aziko dot neure seiña.

SENARRAK: Andraak oi ditubee uts egitiak, seiñak azteko denporaan; dala, eurakaz leleengotik oian eratzotiaz; sarri jazo da, ama luak artu Oian, ta giraren baten seiña azpijan itotia; orregaitik enkargeetan da beintzat leleengo urte betian, ez eratzoteko seiña nor beragaz oian. Dala, nun nai bakarrik seiñak istiaz, animaljeen batetik galduko arriskubagaz; dala, seiñaren osasunaren kalteko alimentubak eureen erruz emonagaz.



HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI III

Azten eban ama onak Luis amodijorik andijeenagaz, ta ugatzagaz batera legez emoten eutsazan azaiera onaren zimendubak. Berba egiten asi zaneko erakutsi eutsazan Jesus, ta Mariaren izen ederrak, ta Luisek, baleki legez zek atsegīn emoten eutseen gurasuei, esaten zituban txito sarri. Azitxubaz joiala erakusten eutseezan orazinoe, ta doktriñako gauzaak, ta dibersinoe edo olgeetan legez, neke gitxigaz, zazpi urte zitubaneko, ikasi zituban Luisek doktriñaren lau zati, edo partiak. Gitxitan jo, errespetua beti emon, temarik iños ez itxi, belauniko imini ta luurrari mun eragiñ, Kuarto baten zarratuta euki, parka eskatu eragiñ, ziran guraso oneen kastigubak Luisen umetako mañatxubak kenduteko; barriz saritxubak emon, ondo esan, zerbait eskifí, ta pozgarrijakaz zaletutene ebeen asko doktriña, eskola, ta gauza onak ikasteko.

Jangoikuak emon eutseezan guraso onei beste seme bat, ta iru alaba; semiari imini eutseen izena Xabier, ta alabei, batari Ines, bestiari Ageda, ta irugarrenari Sinforosa. Gustiak azten zitubeen amodijo, ta doktriña bardilñian. Aitak erakusten eutseen Etxian Eskolia, jaijegun, ta beste biar arteetan. Ez zan ikusten eureen artian enbidijarik. Gurasuak gustiak bardin maite izanik, eurak bere alkarr maitetutene ebeen bake osuan. ezaguturik argitubaz joiazala eureen adiñak, ta utsa zala doktriña buruz jakitia, aituten ezpazan, asi jakeen Erljinoe Santuko ikasbidiak argiro emoten.

AITAK: Neure semiak; ikusten dituzubeez Zerubak, ta luurra, eureen ondasun gustiakaz! Zelan Eguzkijak zabaldutene dabent egunaz argitasuna, ta Illargiak gabaz? Zenbat Izar eder? Zenbat abere, egazti, arrain, ta pistija, arbola, lora ta bedar jenero? jakin egizu bada, oneek ta guk, gustiok dauagula egilla, ta jaube bakar bat. Au da arako Jangoiko amaibagia ontasun, jakiturja, zuzentasun, ta gauza gustietan. Asiera bagako eternidadian, ez eukan beste gauzak izaterik Jangoiko onek bakarrik baño. Ez zan Zerurik, Infernurik, Eguzkirk, Illargirk, Izarrak, Mundurik, Gizonik, ez Aingerurik. Jangoiko andija iru personatan, eguan bera beragan gloria, ta zoriantasunez beteta. Ez eukan iñoren premiñarik ezetako, baña bere ontasuna agertu, ta gloria zabaldute arren, gura izan zituban egiñ Aingeru, ta gizonak. Jangoikuak gure leleengo guraso Adan, ta Eba egiñ zitubala, dira zazpi milla ta amabost urte. Egiñik, nai ta beste baga, gauza gustiak ezerezetik, azkenik artu eban Jangoikuak bustiña luur puskabat,

ta beragaz egiñ eban Adanen gorputza, arnasa modu bategaz iraatsi eutsan arima bat grazijaz apainduba. Artu eban Adan lo gogor batek, ta iratzartu baga atera eutsan Jangoikuak saijets azur bat, ta beragaz egiñ eban Eba Adanen emaztetatzat. Iratzartu zanian, imiñi eutsan Adani begien aurrian, ta emon bere lagun, ta esposatzat. Bedeinkatu zituban, eureen ondorengoz luurra beteetako. Emon eutseen eskubidia, egazti, abere, arraiñ, ta beste luurreko kriaturen gañian. Grazijaz ostian emon eutseen Jangoikuak Adan, ta Ebari jakiturja andi bat, ta librau zituban oraïñ dâu-kaguzan gatx, ta eriotzatik. Pekaturik egin ez balebee, biziko ziran eurak, ta eureen ondoreengo gizon gustiak munduban bake, ta zoriantasun andi baten, ta Jangoikuak, nai ebanian, eruango zituban bizirik Zerura.

LUISEK: Zelan bada, Aita, galdu ziran gizonareentzat grazija, doe, ta zoriantasun añiñ andijk?

AITAK: Jangoikuaren borondatia zan, gizonak bere aldetik zerbait egitia, ainbeste zorijontasun Munduban, ta betiko Glorijaak Zeruban izango bazituban. Orretako emon eutseen libertadia onerako, ta txaurrerako, eskifírik esan ditugun sarijak, onak izaten baziran, ta zematurik gorputzeko, ta arimako gatx andijkaz pekatu egiten beebeen. Imini zituban Jangoikuak Adan ta Eba Ortu, edo jardiñ eder Paradisu atsegíñekuan; an aurkitutene ziran luurrian euki leizan era, ta kontentu errazoezko gustiak. Beste Arbola fruta gozozko askoren artian eguna bat *Onaren ta gatxaren jakiturjako Arbolia* esaten jakona, zeñetatik galerazo euseen Jangoikuak jaatia, baldin eureen ondoreengo guztiakin jausi gura ezpeeben bere betiko aserrian. Au agindu erraz au zan, gizonak ezagutu, ta autortu egileen Jangoikua zala gustieen jaube, ta agintaria. Baña gizonak ez ebeen gorde aginđu bakar au. Ara zelan ausi eben. Aingeru, Jangoikuak gizona baño eguna gitxi leenago egiñ zitubanak, geijeenak iraun ebeen Jangoikuaren grazija, ta leialtasunian; baña ez guztijak. Txito askok, eureen edertasunagaz arroturik, galdu ebeen Jangoikuaren obedienzia, ta bota zituban Zerutik Infernura, Luzifer arrua buru ebeela. Jakinik bada Luzifer Diabru nausijk Adan, ta Ebak irauten beebeen Jangoikuaren obedienzia, izango zirala eureen ondoreengo guztijakaz, berak, ta bere lagunak galdu zitubeen gloria amai bageen jaube, enbidijaz beterik, artu eban asmua jan eragiteko Adan, ta Ebari, Jangoikuak galerazo eutseen Arbolako frutatik. Sartu zan Suge baten barruban, ta eguna Arbolaren onduan. Urreratu zan Eba, ta begiraturik frutiari, eretxi eutsan ederra itxuraan. Dirautsa orduban Sugaren barruko Diabruak; Zegaitik deritxazu, galerazo deutsula Jangoikuak jaatia Arbola onen frutatik? Dakjalako, bera baisen Jakitun izango ziñaindezala, jango bazendu. Pozturik Eba jakiñ naijagaz Jangoi-



kuak beste, sinistu eutsan guzurra, ta jan eban fruta atatik, ta jan eragiñ eutsan Adani. Ara emen gure leleengo gurasuen pekatuba, orijiñal, edo jatorrizkua esaten deutsaguna, ta jenerazinoe gustietara zabalduten dana, gustijok gatozalako sustrai galdu atatik, ta Jangoikuak alan erabagi ebalko, aginduba imiñi ebanian. Pekatu egiñ, ta laster, ezagutu ebeen Adan, ta Ebak Diabruaren engañuba. Atera zituban Jangoikuak Paradisu ederretik, ta ikusi zitubeen eureen burubak, leengo doe eder asko baga, diabruaren lazuban katigu. Galdu ebeen jakiturijarik geijena; arrotu jakeezan eureen grña, edo pasinoiak; uzutu animalia otzan edo mansuak; luur, leenago oneraak aiñ emonnaia, asi zan berez laarrak eskintzen ondo izerditu eragiten eutsala gizonari, fruturik aterako beutsan. Azkenik gatx triste asko, ta eriotza gogorraren mendian gelditu ziran. Baña pekatu onen kalterik andijeena zan, galdurik Jangoikuaren amodijua, zarratutia Zeruko atiak, iñor sartu ez zedin.

LUISEK: Ta zer egin eban gero gizonak, Jangoikuari satisfazinoia emoteko?

AITAK: Alperrak ta utsak ziran gizonaren alegin gustijak, Jangoikuari pekatubagaz egin eutsan injuriya gaitik erantzuteko. Zer da gizona Jangoikuaren aurrian? Aingeru ederrak aurrez egozan Infernuban pekatu bakar bat gaitik. Pekatubaren malizija, ta zorra dira amaibagaak, izanik Jangoikuaren kontra. Beraz biar zan pagatzalle amaibagako bat, Jangoikuari zorra pagau, ta bake osua egiteko. Baña onetarako ezin egon zaatian Jangoikua bera baño besterik. beste aldetik, Jangoikuak Jangoikua dan aldez, ezin ezer padezidu eukian. Zer egiten dau bada bere ontasunak, bere justizjari erantzun, ta gizona kondenau ez zedin? Erabagi eban Trinidadeko bigarren personia, zeiñ dan semia, gizon egitia, ta artutia eriotzarki gogorreena gizoneen pekatubak gaitik.

LUISEK: Eta gizonak pekatu egiñ ta laster, egiñ ete zan gizon Jangoikua ta artu erijoizia?

AITAK: Ez: bost mila eun ta larogeta emertzí urte igaro ziran gizonearen leleengo pekatutik Jesu Kristoren jaiotzara; baña bitaarte onetako gizonei bere aurreratu jakeezan eriotza onen merezimentubak, kondenau ez zitian. Egijja da Zeruko atiak itxijak egozala, baña justubeen arimaak juaten ziran Abrahanen Seno edo Limbora, nun itxaro ebeen Jesusen etorreria, beragaz Zerura igaroteko.

LUISEK: Nai neuke zerbait entzun, Jesusen jaiotza, ta bere lege Santuba zabaldutiaren gañian.

AITAK: Trinidadeko bigarren personia egiñ zan gizon, Maria Santiximaren errai garbijetan, Espiritu Santubaren Obraz, ta birtutez, Kartilliaik

erakusten daben moduban, ta jaiorik bere amaren donzellatasunaren kalte baga, bizi izan zan munduban, ogeta amairu urtian, ta azkenik, galdu eban bere bizitzia Kurutze gogor baten gizoneen amorez. Jesu Kristok etorri biar ebana Mundura padezietara, nos, zelan, ta zer modutan, antxiñatik aituten emon eban Jangoikuak Profeteen aoz. Judegubeen legeko Sakrifizio, ta Zeremonijarik, geijenak ziran bere etorrera, ta pasinoiaren irudi-jak. Bere lege Santuba Predikau, ta zabalduteko, autu, edo eskojidu zituban Jesusek amabi gizon, Mariñeru, ta beste jakiturija, ta entzute gitxi-kueen artetik; aituten emoteko, ez ebala berak biar, ez jakitunik, ez aberatsik, ez entzute, ta agintaritza andikorik, bere doktriña sinistu eragiteko; asko ebala bere eskubide amaibagia, egiteko gizon tonto batsubeen bidez, munduko jakitun, aberats, ta andi gustijak ezin eukeena. Imiti eutseen Apostolubeen izena; artu ebeen Zerutik beingo baten miragarrizko jakiturija bat mundukuaz goitikua, baita millagruak egiteko doe, ta beste grazia asko. Alan Jesus, ta bere Apostolubak illak biztuteneen zitubeen, geisukan osatu, errenak zuzendu, itxubak argitu, berbeeta desbardiñetako jentei predikau, ta alde batera aituten emoten eutseen. Onan zabaldu zan beingo baten bazter gustijetara Jesusen doktriña, ta ebanjelijo santuba, Zerubak bere eguijaren testigantzia emoten ebala. Baña Luziferrek jaso eban laster gerra biziña onen, ta beroni jarraituteneen kontra. Begitandu eragiñik luurreko errege, ta enperadore askori, Jesusen doktriña, ta erlijinoia zirala eureen eskubideen kontra, asi ziran oneek Apostolu ta Kristinaubak billatuteneen, illetteko tormenturik gogorreeneen azpijan, baldin Jesu Kristo ukatu, ta Jangoiko palsuak adoreetan ezpazitubeen. Jangoiko gustija daijanarena izan ezpalitz doktriña au, amaituko ebeen ainbeste Enperadore gogorren artian; baña gustija bestera jazo zan. Tormentubeen artian geituten ziran milagruak. Kristinaubea sendotasunak zurtuteneen zituban Judegu, ta Jentillak. Ume, gazte, zaar, ta estadu gustietakoa, eukeen atsegina anditzat bizitzia emotia Jesusen amorez, ta Zerura juatearen. Zabalduten zan famia, geituten ziran Jesusen diszipulubak, nun nai urteteneen ebeen Predikadore barrijak, mundukuen bilddurra desprezijauta, egijja adierazotene ebeenak. Zabalduten ziran erri, probinzipia, ta Erreiñubetara, ereitera bazter gustietan Zeruko doktriñaren azija. Kristiñau bat illten ebeenian arerijuak, (diño Tertuliano jakintsubak), bere odol tanta bakotxa zala azi ugari bat legez, pilloka geituten zitubana Jesusen diszipulu barrijak.

LUISEK: Atseginez dantzuguz Kristandadiaren asiera, ta aurrerapenak, baña aitu nai dogu ondo, nundik artu giñaijan ziur Jesusen doktriña bera?



AITAK: Eleisa Ama santa Erromakua da Jesusen esposa maite, bere doktrina garbijaren jaube, ta depositarija egiñ ebana. Badakizu, eleisia dala, Kristinu gustijok alkar arturik egiten dogun batza, edo gorputz modu bat, zeñen buruba dan, leleengo Jesu Kristo, aragijaren begijakaz ikusten ez doguna, taurreengo berak bere Bikario, edo ordiazkotzat iminiñiko Erromako aita Santuba, geu legez gizona, ta geure artian bizi dana. Eleisaan, batzui emon eutseen Jesu Kristok erakutsi, ta aginduteko eskubidia, beste gustiak ikasi, ta obedezietako obligazioa. Apostolubak iminiñ zituban leleengo, erakutsi, ta aginduten, baña San Pedro buru ebelea. Erromako Aita Santuba da San Pedroren oñordia, Obispo Jaunak dira Apostolubeenak. Jesu Kristo dago Apostolubakaz legez, Aita Santu, ta Obispua egiten dabeen gorputzian, agindu eban moduban egongo zala gizaaldi gustiak amaitu artian. Espiritu Santubak emoten deutsa, ta emongo deutsa fede, ta doktrinako gauzeetan jakiturijako argitasuna gorputz oni, emon eutsan legez Apostolubeenai. Jangoikuaren berba, ta bere eskinija alan da. Beraz eleisa erakusla onetan aurkituko dogu beti Doktrina ziur ziurra. Bada egin engaña deiteke Jangoikuaren jakiturija. Beraz gustiak sinistu, ta jarraitu biar deutsagu doktrina oni, uts egiteko billdur baga. Bai; aiñ ziurra da eleisiak utsik egin lejala fedeko gauzeetan, zeinda Jangoikua eziñ engañau leituala, ta eziñ iñor engañau lejala. Orregaitik eleisa onek beti erakusten dau, Jesu Kristok erakutsi eban Dotrinia berbera, ta alan erakutsiko dau Mundubak dirauban artian.

LUISEK: Oraiñ aituten dot, Kartillaan ikasi nebana, fedia dala ikusi ez doguna sinistutia, Jangoikuak eleisiari erakusten deutsalako, ta eleisiak guri; bada jakiñik ziur Jangoikuak berba egiten deuskula eleisiaren aoz, errazto sinistu daigueu edozer gauza, geuk ikusi, ta aitu ez arren.

AITAK: Bai neure semiak. Ezin euki giñai testigantza ziurragorik, zerbaiz sinistuteko, Jangoikuarena baño. Gure begi, ta zenzunak sarri engaÑeetan dira, baña ez Jangoikua. Fediagaz emoten deuskun jakiturija da gure errazoiak gañetikua. Fediak erakutsi ezpaleusku, zelan jakin gendukian Jangoiko bategan egozala iru Persona, ta beste onelako misterio dakiguzanak? Oh! zorijoneko fedia gizonarentzat!

LUISEK: Aitu gura genduke orain ondo, nos egiten garian eleisako Seme, nos artutene dogun fedia, ta zer biar dan salbeetako.

AITAK: Kristinu, ta eleisako seme egiten gara, batiatutene garianian, ta orduban artutene dogu sustraiz fedia; baña gero, adiñ, edo uso errazoezkora elduta, Kredo, edo Artikulu fedekuak ondo ikasita, orduban egitadaz autortu, ta sinistu biar ditugu. Fede baga egin iñor salbau leite, baña Fediak bakarrik ez da asko salbeetako, gorde biar da Jesusen doktrinia.

Eleisako Semiak ez diraneentzat bere, ez dago Salbazinoerik, baña ez da asko eleisako seme izatia salbeetako. Arbola batek daukaz adar eziak, ta igarrak; gustiak dira Arbolaren zatiak, baña igarrak ez dira gauza erre-tako ezpada, eziak bakarrik emoten ditubee lora, ta frutubak; alan Kristinu pekatu mortalagaz igartubak ez dira bestetarako izango, betiko sutarako baño, baldin penitencijagaz ezetutenezpadira; baña grazijaan bizi, ta irauten dabeenak emongo ditubee frutubak lurrian, ta sari betikuak artu Zeruban. Eleisa bat baño ez eban iminiñ Jesu Kristok Munduban, ta au da gizoneen arteko batza leen esan dodana. Orregaitik arrizko Tenplubei bere esaten jakee eleisaak, diralako Kristinaubak orazinoe, ta gauza Santubetara batuteko lekubak; baña leen aitatu dodanian eleisia, ez dot arrizko eleisiaren gañian berba egin. Oneek dira gizoneen obraak, ta eleisa leen esan dodana, Jesu Kristorena; desbardinak gustiak, izen bat euki arren. Orregaitik oneen gañian bere nai neuke zerbaiz esan.



HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI IV

Eruan zituban Aitak seme alabaak eleisara, ta dirautsee: neure semiak, leku gustijak dira Jangoikua bedeinkatu, alabau, ta adoreetako; gure orazinoiak entzuten ditu edozein bazter, solo, nai basotan egiñ arren, orregaitik badagoz berak izentauriko Etxe, edo Tenplubak, egokijaguak atarako, euretan emon, ta zabaldutene ditubalako ugerijago bere misericordiileen aberastasunak. Onei esaten deutseegu eleisaak, ta Jesu Kristok deitutene deutsee bere orazinoeko Etxia. Euretarra batu biar dogu sarri Kristinaubak, alkarr arturik Jangoikuari mesediak eskatutera, Sacerdote jaunak erakusten dabeen Jesusen Dotirria ikasi, ta Mezako Sakrifizijo Santu, ta Sakramentubeen graziaakaz geure arimaak garbitu, ta sendatutera. Zeruban: alkarr leijan legez, Aingeru, Santu, ta zorrijoneko gustijak adoreetan dabee Jangoikua, bada geuk bere areen irudijan alkarturik, adorau biar dogu eleisa oneetan. Alan luurreko Zerutzat euki giñaz eleisa oneek, ta artu biar deutseegu errespeto, ta lotsa andija. Munduko Erregeen Palazio, edo Jauregijei zor bajakee itzal, ta errespetua, zelakua zorko ez deutsagu Zeru, mundu, ta gauza gustieen Erregeren etxe Santubari? Ordubar sartu ziran eleisa barrura, ta dirautsee.

AITAK: Ikusi biar ditugu gaur banaan, ta astiro eleisa onetako gauzaak, aituteko obato Jangoikuak emen zabaldutene dituban ondasunak. Erdu bazter onetara; begira arrizko aska oni; au da bautismoko Pondia. Ahi, ta zenbat mesede egin euskuzan emen geure Salbagille maitiak! Ze ondasun ugarijak zabaldo zituban gure arimeetara! Emen artu genduban bautismo Santuba. Ordubar parkatu jakun Sakramentu onen indarrez pekatu orijinal, edo jatorrizkua; biurtu giñan geure Jangoikuaren grazija, ta amodijora; Diabrubaren mendetik urten genduban, Jesusen seme izatera. Jatsi ziran gure arimeetara Espiritu Santubaren doe, ta frutu ugarijak. Egiñ giñan Kristinu, ta Zeruko herederu, edo jaubegei; baldin pekatu andiren bategaz galduen ezpaditugu, geuriak izango dira ziur betiko glorijaak. Baña jakin daizubeen ondo, zer dan Kristinu izatia, ta zelako obligazinoiak artu genduzan Kristinu egiñ giñanian, esplikauko deutsuebedaz bautismoko Zeremonijaak. Bautismo Santuba emoten jakee, edo persona nagusijei, leenago batatu baga balegoz, edo seiñtxubeei. Persona nagusijak diranian, eurak erantzun biar dabee Sacerdotiak egiten deutseezan itauneetara, ta emon eskatutene deutseezan berbaak. Seintxubak dira-

nian, eureen ordez erantzuten dau Aita-besuetakok, edo Sakristaubak, baña obligazinoia gelditutene da seintxubarentzat, denporia daneko, ta bautismua ontzat emoten dabenecho. Leleengo itanduten deutsa Sacerdotiak batiatutera doianari. Urlja: Zer eskatutene dozu Jangoikuaren eleisatik? Erantzuten da; fedia. Sacerdotiak dirautso: Fediak zer emoten deutsu? Erantzuten da: betiko bizitzia. Ordubar dirautso Sacerdotiak: bada, baldin nai badozu sartu betiko bizitzara, gorde egizuz Jangoikuaren agindubak; maite izango dozu zeure Jaun ta Jaungoikua biotz gustijagaz, arima, ta gogo osuagaz, ta projimua zeure buruba legez. Gero arnasa modu bat egiten deutsa arpegira, agindubagaz Diabrubari: Espiritu zikiña, urten egizu oneganik, ta itxi egizu leku ori Espiritu Santubarentzat. Osteera egiten deutsaz kurutze asko, Diabrubak euki ez daijan jaubetasunik arima agan; imiñten deutsa ezpanetan gatza, galdu ez dedin pekatubaren usteltasunagaz, ta gauza onak egif daizan debozinoiaren gustuagaz. Batiatutene danak, edo ordiazkuak, esaten ditu Kredua, ta Aita geuria, zeintzubetan dagozan sartuta akto feder, esperanza, ta karidadekuak. Egiñik Sacerdotiak konjurubak Diabrubari, itanduten deutsa batiatu nai dabenera: Urlja, errenunzijau, edo gustiz isten deutsazu Diabrubari? Erantzuten dau: bai isten deutsat. Sacerdotiak irugarrenian: ta Diabrubaren ponpa, edo arrotasun gustije? Ta erantzuten dau: bai isten deutset. Ara, zelako berbaak emon biar diran, batiatu orduko. Josi egizubeez arren betiko zeuden gogo, ta biotzeten, ausi ez daizezubezan iños, Jangoiko andijari emoniko berbaak, zeintsubetak juzgauak izango garian. Batiatuta laster iminten deutsa Sacerdotiak burubaren gañian batiatu danari zapi zuri bat, aitutene emoteko bere arimiak artu daben zuritasuna, ta dirautso, mantxa ta loi baga eruau daikiala Jesu Kristoren tribunal santura. Azkenik emoten deutsa Kandela isua eskura, adierazoteko, diño San Gregoriok, bere obra onakaz zabaldo biarko dabela exenplu onaren argitasuna.

LUISEK: Alan izanik ori gustijori: zer gitxi penseetan dan Kristinutasunak eskatutene daben garbitasun, ta Santidadian!

AITAK (urreraturik ordubar konfesonario batera, dirautsee): Ara emen, neure semiak, Zeruko miserkordija andijeen etxia; au da batiatu ezkerro egiñiko pekatubeeen parka, edo garbi-lekuba. Jangoikuari jaoka bakarrik berez, pekatubak parkatutia; baña Jesu Kristok itxi eban konfesioeko sakramentuba, izentaurik gizon batsuk, ta ordenaurik Ministrotzat, bere partez, ta berak emoniko eskubidiagaz, parkatuteko pekatubak, ondo prestaurik juazan pekatarijei; alan, ondo prestauta Sakramentu au artutene dabenera, parkatutene jakoz pekatu gustijak, dan andijeenak izan arren; baña ondo prestauta ez doianari, bota arren milla absoluzinoe kon-

fesoriak, edo engañau dalako konfesoria bera ez jakin̄ez, edo ardurarik artu ezaz, ez jako pekatu bat bere parkatuten. Ez dauka konfesoriak eskubide geijago Jesu Kristok emon eutsan baño, ta Jesu Kristok bakarrik emon eutsan eskubidua parkatuteko pekatubak ondo damututa, bizitza barri, ta zuzen bat egiteko gogo, edo propositu senduagaz konfesetan zitubanari.

LUISEK: Baña zetara juan leite deungaro konfeseetara, jakinik Pekatubak ez dirala parkatuten, ta bai egin sakrilejijo barri bat? Jangoikuak guztia daki, ikusten ditu biotzak, nok daukan damuba, nok propositu sendua, ta benetan erremedijau, edo emendeetako gogua, nor ziatz, ta zuzen akuseetan dan, pekatu, ta pekatuko okasinoiazak; eziñ inok engañau lei; nor bada izango da aiñ tontua, zeñda, prestaera egijazko baga, juango dan konfesinoera Jangoikuari berba guzurrezkuak emotera?

AITAK: Pekatari asko, neure seme maitiak. Irakurri dot sarri, ezin esan leijala, zenbat milliñoe Kristinau agertuko diran kondenaubak jui-zioke egunian, konfesinoe txaarrak gaitik. Batzuk, isten ditubeealako lotsaz konfesau baga pekatu, okasinoe, edo zirkunstanzia premiñazkoren bat, edo geijago. Oh! Zenbatek Infernuban diadarrez autortutene ditubeen, munduban gizon triste bati isillik esan gura ez eutseezan argaltasunak! baña alperrik. Kondenauba kondenau. Oh zorigaistoko lotsia konfeseetako, ta lotsabagakeria pekatu egiteko! Jangoiko leku gustietako testigubaren lotsarik ez, ta gizon argal baten bai. Ze itxutasuna! Beste askok, ta askok egiten ditubee konfesinoe txaarrak, damurik ezaz. Ez dabee eza-gutu, edo penseetan ondo, zelakua dan pekatubaren ezaintasuna, a Jangoikuak deutsan gorrotua. Oh Eron! Ainbeste urtian penitencija, ta santiadian bizi izan, ta azkenik pekatu mortal baten jausi ziñana, esan eigu-zu zuk, zer dan pekatu mortal bakar bat? Beragaz galdu zenduzan ain-bestetako merezimentu gustijak, ta Zeru altubetan egon biar zendubana, jo zenduban Infernuko ondarretara. Eta esan egizu zuk Jesus laztana, pekatubak gaitik burutik biatzetara gustijori zauritu, ta bizitzia emon zen-dubana, esan egizu zer dan pekatuba? Artuteko, pekatu mortalak daukan ezaintasunaren irudiren bat, ara Exanplu ziurra. Soldau bat jausi zan pekatu mortal baten, ta Jangoikuak gura izan eban agertu ekijola gorputzera pekatubaren ezainitasuna, juan zan bere etxera, ta ikusi ebanian emaztiak, ikaraturik asi zan garraasi, ta diadarrez; batu ziran etxeko gustijak, ta bardin billdurturik, atera ebeen ospe andija. Ezaguturik soldadubak Jangoikuaren kastiguba, asi zan aringa eleisaruntz konfeseetara; billatu zituban bidian ganadu, ta artzain batzuk, ta gustijak asi ziran igesi, oñaz-tarri bat eureen artian jausi balitz legez; eleisako Portikuban ebilen erre-

zeetan Sazerdote bat, ta urreratu jakonian, asi jakon Kurutziak egiten Demonioeren bat zalakuan; baña ikusirik beragana juakola, sartu zan las-ter eleisaan, ta itxi zituban atiak. Soldadu tristia, atian etzunda, negarrez asi jakon esaten: Aita errukitu bedi arren pekatari geiso onegaz; bada pekatubak ekarri banau bere Demoniuaren itxurara, nas gizona. Entzun nagi konfesinoian; prest nago agintzen deustazan penitenciariak gogorrenak egiteko. Orduban, edegirik atiak, egin eban konfesinoe negar, ta damu andiko bat, ta biurtu zan gizoon itxurara. Ahil pensauko balitz zetara biur-tutene daben pekatubak gure arima ederra! Barriz propositurik ezaz, zen-bat konfesinoe deunga? Konfesau; baña aurrera leen legez pekatu, ta pekatuko okasinoe, ta bidiak. Lapurrik, biurtu ez ostuba; igez lurjiosua, aurten bere bai; igez aserrakorra, aurten bere bakerik ez; igez ordija, aurten bere bai, eria dabenian; alan beste pekatubetan. Nun da emienda? Nun proposituba? Oh! Zenbat guzurrezko berba emoten jakon Jangoikuari! Pekatari geisia! bada bere berbaak kontauta dagoz, bera juzgeeta-ko.

LUISEK: IZANIK aiñ premiñia andikua konfesinoeko Sakramentuba, ta jakin arren guk buruz Kartilliak dakarrena bere gañian, nai genduke zer-bait entzun, obato aituteko.

AITAK: Ez dau Jangoikuak nola nai parkatu gura pekatutik, gizonak eureen aldetik ardura andija imiñi baga. Bere seme bakar, pekatarijei par-katuteko bitartekeko jarri zanari, eriotzarik gogorrena kosta izan jakon. Errazoe andijagaz bada, kosta biar jako ondo pekatarijari bere pekatu-been parkazinoia. Leleengo egin biar doguna bada, konfesau gura dogu-nian da, Jangoikuari argitasuna, ta laguntasuna eskatu, ta examiñia ziatz bat egitia, Liburu askok erakusten deuskun legez, astiro examiñauta man-damentu bakotxian, ta geure estadu, ofizijo, edo bizi moduko obligazi-noietan. Pausu, lagun, ta euki dituban okasinoietatik asko aterako da. Ugazaba, etxeko barri ondo dakijanari kontubak emoteko ondo examinau biar dau Krijaubak, ezin engañau leijalako alako ugazaba, ta guzurrian artutene badau bere kaltian izango dabelako. Nor bada Ugazaba gure barri obato dakijanik Jangoikuua baño, zeñi emoten deutsagun konfesinoian geure arimako kontuba? Zer izango da guzurrian artutene bagaitu? Biga-rren, ta irugarren eskatutene jakuzanak dira damu egiazko, ta propositu sendua. Oneek bere Jangoikuak emon biar ditu, ta ez dira asko geure indar utsekuak. Eskatu biar deutsaguz bada Espiritu Santubari, ta prestau ondo geure biotzak, bere emokai oneek artuteko. Bularrari ots batsuk emon, buruba makurtu, ta azaleko zizpuru batsuk egitia ez da asko damu, ta propositu sendua artuteko. Biotzaren barrutik urten biar dabee oneek.



Orretarako pensau biar da entzun dituzun pekatubaren ondoreengo negargarrijetan; ta izanik ginaizan andijeenak, emon biar deusku pekatubak, beste gauza gustiak galduiak baño, pena, ta dolore geijago, aurreruntzerako najago ditugula gauza gustijk, ta bizitza bera galdu, arimia pekatubagaz baño. Oh pekatubaren eternidadeko kaltiak! Zer daukee zer ikusi zubekaz luurreko gauzaak, ta bizitza labur, laster galdu biar dogunak? Zorijonekuak zubek Zeruko milliñoe Martirijk, galdu zendubezalako bizitza lurrekuak, pekatu ez egite arren, ta irabazi betiko Zerukuak. Zorijonekuak Daniel Leoc artera botaak, Babilonijako mutill gazte Laba gorjan sartubak, Jose kalabozuan grilluz kargaubak, Susana garbi falso testimonioz betiak, Atanasio, ta Krisostomo erbestetubak; gustijkok pekatubik ez egite arren, ezagutu zendubeen zer zan pekatuba, iges egin zeuntseen zeuben ondasun, honra, edo bizitzaren kostura; gozatu zaite orain eternidadeko gloriaan, negarrez dagozan artian arima argalak betiko Infernuban. Ez dago dugaan betiko Zerurik. Gero konfesau biar dira zuzen pekatu mortal gustijk, pekatuko okasinoeurrekuak, ta konszienzia ondo ezagutu, ta arimia osatuteko konfesoriak jakin biar dituban gauzaak. Azkenik, imiñi biar dogu ardura andija, zuzen, ta ondo kunplietan emon deuskuzan penitenzia, ta pekatuban ostera ez jausteko erremedijuak. Antxiña, Kristinaubeen artian, banakaago ziranian pekatubak, ta fedia senduago, emoten ziran urte askotarako penitenzia ikaragarrijak, onelako, edo alako pekatu mortala gaitik. Ur ta ogizko barubak, zilizio gogorrak, ta lotsaari andijk; orregaitik pozik kunpliduten zitubeen, Jangoikuagaz baketu, ta bere justizijari nolabait erantzute arren.

LUISEK: Ez da gitxiagotarako. Bada zer mesede andijagorik, munduban pagau al izatia baño pekatubaren zorra? Baña zurtutenean neure Aita entzunik, aiñ sarri aitatutenean dozula pekatu mortala, sarri egiten dan gauza bat balitz legez. Zer! Kristinau fede puskabat daukeenak, azartu leitez pekatu mortalik egiten? Izango da iñor, aiñ bere buru kaltekua? Pekatu mortalagaz egiten da gizona Demoniuaren esklabo, Jangoikuaren arerijo, galduen ditu arimako grazija, ta betiko Zeruko gloriaak, irabazi eternidadeko Infernubak; ta oneek egijia ziurrak izanik, nor itxutu leite pekatu mortal egitarano?

AITAK: Ahi, neure semiak! Ez dakizubee oraändik munduko barririk, ta oba dozu ez jakin. Aspertuko nas bada esanagaz, zorakerija, ta itxutasunik andijeara izan arren pekatu mortala egitia, orregaitik egiten dirala asko, asko, ta mila bidar asko. Ondatuta legez dago mundu gustija, diño Jeremias profeta santubak, ez dalako biotzetik penseetan. Ahi! pensauko balitz zer dan pekatuba! Begira neure semiak, jausi ez zaitekezan pekatu-

baren lakijo tristian! Zein billdur nasan! Ez jat egunik igaroten eskatu baga Jangoikuari, gorde zaizala bautismo Santuban emon eutsun arimako garbitasunian.

LUISEK: Malkoz beterik bere begijk, inozentziaren zintzotasunagaz dirautso: Ez dot neure Aita entzun iños zure aotik pena geijago emon deustan berbarik. Dakustaz bardin tristeturik neure anae, ta arrebatxu gaziak. Bada zer da dirauskuzuna? Aiñ zariala billdur, jausiko ete garian pekatu andireen baten? Badakigu Jangoikuaren laguntasun baga ezin iraun ginaijana grazija; baña ziur ziurra da, ez deuskula ukatuko irauteko grazija, geure erruz galduen ezpadogu. Geure eskuban egongo da bada jaustia, edo ez jaustia, konsentietia, edo ez konsentietia pekatuba. Jangoikuak nai dau onian irautia, geuk benetan gura izatia da asko, irauteko. Zer diraustazu zubek anae, ta arrebatxu maitiak? Ze luurreko atsegiañ gaitik galdu, ta saldu daikeguz, Jesus gu gaitik Kurutzian josita, ta gure arima bere odolagaz erosijk? Ez geure aita; imiñirkonfianzia Jangoikuagan, dirautsuk gustioen aldez: ez eriotziak, ez atsegiañak, ez bilddurrak, ez ondasunak, ez lotsaarijak, ez Diabrubaren lazubak, ez mundubaren labankerijak aldenduko gaitubala geure Jesus maitiaren amodijotik.

AITAK: Bedeinkatu daizala Jangoikuak zuben berba, ta guraarijaka. Urreratu zituban orduban Komuniñoko altara Sagraria eganera; auspasturik adorau eban Jesus Sakramentaduba, ta jagita dirautsee: Oh neure semiak! Aingerubak ikaraz dagozan leku onetan, zer egiñ biar ez genduke pekatarijaka? Aita eternuaren seme bakar, Aita legez, betiko Jangoikua, egiñ zan gizon donzellariak garbi, ta santeenaren erraijetan, Espiritu Santubaren obraz, ta birtutez, ta jaijorik miragarrizko moduban bere Amaren donzellatasunaren kalte baga, bizi izan zan munduban ogeta amairu urtian, bere amodijuak zabaldutenean; baña eldu zanian gizonak gaitik bere bizitzia emoteko denporia, itxi gura izan euskuzan bere amodijuaren azkenak. Baturik bere Diszipulubakin, Eguben Santu arratsaldian, afaldu ebeen alkarregaz; afari onen azkenian, artu zituban Jesusek ogija, ta ardaua, ta biurturik bere gorputz, ta odol egiazkuak, emon eutseen jan, ta edaaten. Baña ez eban gura izan, bakarrik izatia bere leleengo diszipulubeentzat mesede aiñ andi au, ezpada, gizon gustijkak egin bere amodijo andijaren herederu. Orretarako emon eutseen eskubidua Apostolubei, eureentzat, ta ondoreengo Sazerdote gustieentzat, biurtuteko ogija, ta ardaua, berak egiñ eban moduban, bere gorputz, ta odol egiazkuak, ta emoteko jaaten, ta edaaten errazoez eskatutenean ebeen Kristinau gustije. Ez dago bada dudarik, Sacerdotiaren konsagrazinoeko berbei Jesu Kristok emon eutseela indarra, ogija, ta ardaua biurteteko, bere gorputz, ta



odol egiazkuan, gelditutenez dala ogi, ez ardaurearen izatiaren izpirik. Ostrija konsagrauban dago Jesusen gorputz bizia odol ta gusti, ta Kaliزاan odola, gorputz ta gusti; alan bakarrik komulgau arren ostrija konsagrabagaz, artutenez da Jesu Kristo oso osorik bere gorputz, odol, arima, Jangoikotasun ta gusti. Sagrario onetan dago bada gordeta tesoru neurri bagako au. Zeru gustiak lagun egiten deutsa emen, guk ikusi ez arren. Emendik deitutenez gaitu, bere gorputz, ta odolagaz konbidaturik, ainbat sarri, ta onduen prestauta beragaz komulgeetara. Oh amodio Aingerubak zurtutekua! Sakramentu onetara eldu biar dogu, gorputzaren aldetik baru naturalian, ta albait dezenzijarik andijeenagaz, barriz arimiaren aldetik birute, garbitasun, ta grazijaz albait apaïndubeen egiñda; konsiderazinoe Santubakaz prestauta, humildadez beterik. Zorigaistokua Judasen lagun pekatu mortalian komulgeetan diranak. Eguan beiñ San Piamon meza esaten, ta ikusi eban Aingeru txito eder bat Altariaren onduan, eskuban eukala urre gorritzua zirrudian liburu bat, zeñetan eskribietan zituban komulgeetan ziran Monjien izenak, baña ez batzubeenak. Mezia amaituta, deitu zituban Monje, zeintsubeen izenak ez zituban eskribiu Aingerubak, azterturik eureen konszienziak, arkitu zituban pekatu astunian; era-giñ eutseen konfesinoe zintzo, ta egiazko konbersinoekua, ta urrengoko komuninoian ikusi eban Aingeruba, eureen izenak eskribietan Zeruko liburu ederrian.

LUISEK: Zer! Azartutenez dira gizonak pekatu mortalian komulgeetan?

AITAK: Bai, eta asko. Jan, ta edaaten dabee eureen kondenazioeko sententziya. Argaldutenez jakee fedia; gogortu biotzak; ta dira pekatari nekez Jangoikuagana biurtu oi diranak. Nok adierazo daike pekatu onen anditsuna? Jangoikuak maite gizona, bera gizon egiñik janaari ta edaaritzat emotera agiño; Aingerubei eurei, iños emon ez deutseen konbita! ta gizona atreibu artutenez pekatubagaz atsituriko biotzian, Zerubak beretzat garbi asko ez diran, Aingeruben Erregia! Oh zeiñ ikaragarrija izango dan euren juizijo, ta Infernuba!

LUISEK: Zurtutenez gara entzunik gizoneen eskergabetasuna Jangoikuagana; kendu daigun gogotik pensamentu triste au, ta dakuskuzan obato eleisa onetako gauzaak.

AITAK: Begira bada Altara onetara: ikusi egizubeez Santubeen Imajinaak; oneek iruditen deuskubeez Zeruban Jangoikuaren glorijaan dagozan arima zorionekua, zeintzuk diran bitaarteko andijkak, Jangoikua ganik alkanzeetako grazija, ta mesediak. Orregaitik bada zor deutseegu Imajina onei honra, ta benerazinoe andija. Baña gustien artian leleengo lekuba euki biar dabee Maria Santisimiaren Imajinaak; bere birtute, santidate, ta

bitaartetasuna bakarrik andijago diralako, beste Santu, Santa ta Aingeru gustieenak bat egiñda baño. Zelako errespetua zor ez jako Aingerubeen Erregiñari? Ze benerazinoia Espiritu Santubaren Esposa, ta Jesusen Ama egiazkuari? Nok ikusi daizez bere Imajinaak, ta auzpazturik adorauko ez ditu? Alegra bitez justubak beragan, dalako grazija gustien iturrija. Konsola bitez pekatarijak, dalako errukiz beteriko Ama; billatu bejee aibat lasterren; penitenzia egiteko grazija alkanzaurik, biurtu daizan bere seme Jesusen amodijora.

LUISEK: Neure anae ta arrebaak, eskini gakijozan Ama maite oni bere seme, ta alabatzat, ta izan dajogun beti debozinoerik garbijeena.

AITAK: Badago oraindik zer ikusi eleisa onetan. Jatsi zaite ikustera sepultura oneek. Emen dagoz gure Aasaba, senide, adiskide, ta projimuen gorputz illak. Azur triste batzuk, ta auts paska bat, dira euretatik gelditu jakuzan erlikiaak. Usteltasunak, ta arrak jan dabee beste gustija. Oh jakiturijako eskola andija! Orra zetan gelditutenez diran gorputzaren edertasun, sendotasun, ta beste doe, ezagututenez ditubeen buru ariñak, ainbeste maitutenez ditubeenak. Zubek, maitetu egizubeez beti arimako edertasun, apaïndurija, ta doe, eriotziak ezainduko ez ditubanak, ta bai biurtu betiko glorijara. Ez aaztu, bijar edo etzi, sepultura oneek izango dirala gure azkenengo Etxiak; ta esan sarri Job Santubagaz: Usteltasuna, zu zara nire gorputzaren ama; arrak, zubek bere arrebaak. Alan errazto desprezjauko dituzubeez gorputzaren banidade, atsegiañ arro, ta luurreko erokerijaak. Onez ostian, sepulturaak ikusirik, gomutau biar dogu purgatorioko arima tristiak, eurak gaitik Jangoikuari erregututeko, limosna, orazinoe, Komuniñoe, Induljenzia, ta bakotxak aldituban obra on gustijak eurak gaitik eskiñirik, ainbat lasterren aterarik susko Leza ikaragarri atatik, eruan daizan Jangoikuak bere betiko glorijara. Ez dogu bada aaztu biar eurakaz. Ezin andijagua da daukeen premiñia. Zer gurako genduke geuk an bagengoz? Izan gaitian errukiorrak eurakaz, ta Jangoikuak mobiuko ditu gure ondoreenguen biotzak, gomuntau, ta errukitu ditian geugaz. Asko da oraingo. Adorau daigun Jangoikua, ta guazan etxera.



HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI V

Ezin esan lei, zelako pozagaz, biurtu ziranian etxera neba arreba oneek, konteetan eutseezan Amari, eleisaan ikusi zitubeen gauzaak, ta Aitaren lekzinoiak. Ahi! ziñuen: eta eleisara juan arren, zeñ gitxi pensau oi dan, an aurkitutenean diran ondasunetan! Alabauak izan ditiala Jangoikuaren miserikordijaak. Iraatsirik eureen biotzetan Aitaren berbaak, artu zitubeen gurari bizijkonfesau, ta Komulgeetako. Orduko sarri egiñda egozan nausijaguak, baña ez gazteena, bada ez eukazan zazpi urte baño. Agiñdu eutsan Aitak gazteen oni bijaramonian konfesetako, ta besteeiurreengo egunetarako. Ikustiak orduban, zelan presteetan zan ume aiñgaztia, zurtu eukian personarik Santeena. Santo Kristo baten aurrian belauniko jarrita, Jangoikuari argitasuna eskatuta, Maria Santixima bitarteko imiñita, egiñ eban examiña ziatz bat, ta negarrez eskaturik Jesus Kurutzian josijari, bere utsegite txikarreen parkazinoia, akto fede, esperantza, ta karidadekuak egiñda, Aitak erakutsi eutsazan moduban, pres-taera osuagaz juan zan konfesetara. Konfesoriak, ikusirik bere argitasuna, agindu eutsan komulgeetako. Biurturik pozez zoraturik etxera, mun egiñ eutseen eskubetan gurasuei, ta dirautsee. Oh! zeñ andija dan nire gaurko biotzaren atsegíñ! Konfesau nas kura zaarragaz, ta aiñ artu nau bigun, zeñda kenduko eustan lotsa gustija, euki banitu pekatutik andijeenak, konfesetako. Konseju on asko emonda, azkenik esan deust, maite izateko arren bizitza gustijan arimako inozenzia. Zein biotzetik esan deustan: Oh zeñ andija dan, iños bautismoko grazija galdu baga, eriotzako instantian Jangoikuari arima garbia entregeetan deutseeneen zorijontasuna! Euki bada ardura andi bat, pekatubak ostu, ta desegiñ ez deizun Jangoikuak emoniko arimako edertasuna. Komulgau, ta beriala, eskini zakijuez Jesus, ta Mariari eureen alabatzat, artutenean dituzula pozik zeure Jaube, ta Gurasotzat; entregau ejeezuz zeure arima, ta biotzeko giltzak, zarratu daijeezan atiak betiko, pekatubak iños edegiko ezin dituban moduban; ta barristau egizuz eskintsa oniek, gitxienez egunian bein, bizitza gustijan, ta batez bere komulgautako denporaan. Alan egiñ dot gaur, ta sentiu dot neure biotzian, miiñagaz adierazo ezin neijan gozotasun moduba. Ez jat iños igaro ordu bete, aiñ laster, ta atsegien geijagogaz, gaur komuninoe ostian baño. Ez zan txikarragua beste neba arrebeen debozinoia, ta inozenzia.

AITAK: Alegreetan nas Jesusek leleengo Komuniñioian egiñ deutsuzan mesede andijkakaz; begira lejala izatian bere amodijuari. Ez aaztu iños gaurko egunagaz, ta egiñ dituzun propositu, ta eskintsa jakaz. Asiera ona ondo da, jarraitua gustiz ona, baña azkenik ondo amaitutia, edo irautia Jangoikuaren grazijaan, biar biarra, salbauko bagara. Saul izan zan ona denpora zati baten; bardin Ozias, Joas, ta Roboan Erregiak, baña ez ebeen iraun, ta galdu ziran. Onelako exenplu triste asko daukaguz eleisako Istoriaga; Pelazio, Pelaio, Saprizio, ta beste askoren artian, ara zer dirauskun Kasianok leen nosbait aitatu eutsun Eron gaitik; Monje au bizi izan zan bakartadian berrogeta amar urtian penitenziarik gogorrenak egiten; aiñ zan gogorra bere gorputzaren kontra, zeñda egiten eban eskrupulu, Pazkua egunian bertan, katillu bat Indidaar jaaten. Orregaitik Diabrubak engañau eban gizon mortifikazinoe, ta orazinoez beteriko au. Sartu eban arrotasun andi baten, galdu eban obediencia, ta ill zan penitenzijaren señale baga. Zer balijo deutsee orañ Infernuban berrogeta amar urteko baru gogor, azote, zilizio, luurraren gañian lo egite, ta Mundutik alde egiñda basamortuban bizi izatiak? Baldin iraun baleu, zelako gloriaak eukiko ez zituan orain Zeruban? Baña irauten ez dabarentzat, ez dago zerurik, leenago Santidadezko millagruak egiñ arren. Orregaitik, ondo asten danak, asko duka aurreratuta, ondo jarraitu, ta amaituteko. Asieria, diño jakutun batek, dala egin biar dan gauziaren erdiña. Alan geijeenian ikusten da, ondo asija ondo amaitutenean; ta txaarto asija deungaro. Agaitik diño Espiritu Santubak, gaztiak gaztetan artutenean dabentzat, zaartuta bere ez deutsala itxiko. Orañtxe bada gaztetatik bota birtutenean zimendu onak, ta desprezijau, mundu, ta aragijaren engañubak. Gizonaren biotza ezin legoke zerbait maitetu baga; bere egilliai emon eutsan amodijorako indar andija; baña emonik indar au Jangoikuak, bera, ta bere gauzaak mai-tetu daiguzan, alan ez egiñik, arrastaka eruaten ditu luurreko amodijo argaletara. Oh itxutasuna! Ikusiko dabee eguneen baten, artuko dabeen paguba. Zuk itandu egijozu zeure biotzari, norena dan, ta zeñegan aurkituko dituban betiko atsegíñak; emon eijo zu leku Jangoikuaren amodijo garbijari; ezpada, laster egiñ da munduba zure biotzaren jaube.

INESEK: Jangoikua serbidu, ta bizitza onian irauteko, laguntasun andija izango da konfesore on bat eukitia.

AITAK: Bai, diño San Basilio: ardurarik andijeari imiñi egizu billauten konfesore, zeure arimia salbazinoeko bidetik ondo zuzenduko deutsun bat betiko Zeruko Portura. Ez dago gauza biarragorik salbazinoia baño. Zer baljoko deuskubee munduko estimazinoe, atsegíñ, ondasun, ta bizitzarik luze, ta gozatsubeenak, baldin azkenik galduen bagara betiko?



Bada baldin gorputzaren osasuna gaitik billatuten badogu al bait Medikurik oneena; luureko intereseen auzijetan abogaurik jakituneena; zer egiñ biar ez dogu, sendo gordeeta arren, edo geisotu badira, osatute arren geure arimaak, ta irabazte arren mundu, ta Diabrubari beti betiko ondo edo txaarto izatiaren auzija? Iru ofizijo esaten da daukazala konfesoriak. Maesubarena, erakusteko ez dakiguna; medikubarena, emoteko bidiak geisotu ez gaitian, edo geisotu ezkerro osatuteko erremedijuak; ta juezarena, absolvietako, ondo prestauta daguana, ta ukatuteko absoluzinoia, ondo prestauta ez daguanari. Gustirako biar da jakiturija andija; bada aiñ baga, ez Maesu, ez Mediku, ez Juez ona izan deiteke. Maesu izateko euki biar dau ontasun, ta birtutia; bada berbia exemplu baga otza da, ta nekez iraatsiko da. Mediku ona izateko, aztertu biar ditu pekatu, ta pekatubeen sustraijak, edo zetatik datozañ pekatu areek, ebagiteko pekatubeen bidiak, ta osatuteko sustraitik arimako gatzak. Jueza izateko euki biar dau sendotasun, ta zuzentasuna, egiteko bardintasunagaz konszienziak agiñduten deusana, alan aberatsakaz, zeiñ pobriakaz, ezagunakaz, nai senidiakaz, zeiñda osteruntzkuakaz, begiratu baga nor dan konfeseetan dana, ezpada zelan prestauta daguan. Alan bada, billatu beti konfesore albait jakiturija, ta birtuterik andikuena, ta jarraitu zuzen bere agindu ta konsejubei. Errukarrijak pekatarri, konfesore nasai, ta nola nai laster igaroko ditubeenen billa, oi dabiltsanak. Osatu gura ezpada pekatubetatik, zetako da konfesoria? ta osatu gura bada zetarako naiko ez dogu, Arimako medikubak astiro itandutia arimako gatz, ta eureen sustraijak, ta emotia osatuteko erremedioj egokijak? Daigun kontu, norbaitek egiten ditubala pekatubak berbaz, eskukaz, nai beste edozeiñ modutan lagun txaarrakiñ batuten dalako, edo onelako etxe, edo lekureen baten okasinoia daukalako; edozeiñek daki onelako oitura txaarrak osatuteko, sustraija kendu biar dana; au da, galerazo alako lagun, etxe, edo okasinoia. Alan dagoz beste erremedioj premiñazko asko, zeintsubak baga ezin arimako geisuañ osatu deitekezan. Aringa badabil konfesoria, ezpadañ azertutene nundik datorren pekatuba, ez dira okasinoiak ebagiko, ta kenduko oitura txaarrak. Itxubak itxuba badarua, bijak zuluan jausiko dira, diño Jesu Kristok. Alan jazoko jakee konfesore ta penitente itxu askori. Jausiko dira alkaren ondoren, infernuko lezara, ta madarikatuko ditubee eureen konfesinoe sakrileguak. Ez dira neure berbaak, ta bai jakitunagueenak.

LUISEK: Edozeiñek aitu daizeg egiña orreck, baña askok aitu gurako ez ditu, libertadian bizi izate arren. Entzun deutset iños esaten persona nola alakuei, edozeiñ dala konfesore ona. Ez diñuee alan Santa Teresa, San Franzisko Sales, ta beste onen gañian irakurri ditudanak, ezpada

askoren artian oneen bat billatuteko. Ez dago gustietan jakiturija, ta birtute bardiña. Batzuk daukee karidade, ta zelo geijago arimaak Jesusentzat irabazteko, ta Diabrubaren lazubetatik aterateko. Orazinoe zaliak izaten dira, ta daukeen legez ondo konsiderauta, zenbat balio daben arima batek, zer kosta jakon Jesusi, ta nora doian pekatu, ta pekatuko bideetatik ateraten ezpada, pozik artuten ditubee nekerik andijeenak arimaak salbeitia gaitik. Esan lei bai, osatu gura ez dabarentzat mediku gustijak dirala bardiñak, baña ez osatu gura dabarentzat. Nik ateraten dodan kontuba da: Eriotsako orduban banengo, nor gurako neuke konfesoretzat? Bada, bera gura dot bizitzañ bere, neure arimiaren zuzengarritzat.

AITAK: Ondo ateraten dozu kontu ori. Orduban, al izatera, gustiok gurako genduke astiro, ta ziatz igarotia arimako gauzaak, ta artu erregela ta konseju onak. Ezagutu dut nik, bat baño geijago, bizitza deungakuak milla gauza esan oi zitubeenak konfesore zuzen ta begiratubeen kontra, azkenian, illteko billdurak artu egizanian, eurak eskatuten; baña onelako geijenei belu eldu oi jakee arimako mediku ona. Eureen konfesinoiak izaten dira nora ezko propositu azalekuakaz egiñak. Eriotsako orduraaginò Jangoikuagana biurtutia isten dabeen pekatarijetatik, diño San Jeronimok, milla askotatik bat apena salbauko dala. Beste batzuk orduban bere, edo illtia gustiz ez sinistuba gaitik, edo errestituzinoeren batzuk erañingo deutzezzalako billdurrez, edo konfesinoe jenerala agiñduko deutsela pensauta, ta gatxa dala Diabrubak begitandu eragiñda, edo galdu zitubeelako konszienziako kezkaak, deituten deutsee konfesore ardura gitxikuei, arimako begijk itxita Infernura jausteko. Oh! zein gitxi pensestan dan zer dan agertutia arima bat eriotzako instantian Jangoiko andijaren aurrian, bere bizitza gustiko kontuba emon, ta eternidadeko sentenzi ja artutera! San Ilarioni, irurogeta amar urtian penitenziarik gogor, ta bizitzarik garbijeenian igarota, ikara egiten eutsan gorputz gustijak, ureratu jakonian Jangoikuaren juizijuan agertuteko orduba. Zorijonekua beti billdur dana, diño Espiritu Santubak.

LUISEK: Entzun dot iños esaten, Baseerriko neke-zaleen bizi moduban, erraztueen salbau leitekiala, apartau ezkerro, bakartade, ta konbentuetan bizi diranak, ta neke andijeen artian aurreratu lejala asko birtute gustietan.

AITAK: Egija da, edozeiñ ofizijo, ta bizi modutan kondenau leitziala, ta kondeneetan dirala asko, asko, ta asko; baña baseerriko nekezaletzia, izanik batetik txito garbiña, beste artu emonik ezpadarabill, ta bestetik egonik apartauta erri batubetako naaste, ta okasinoe askotatik, egija da geijenez diñozuna. Baña orregaitik, negar egiteko gauzia da, ikustia gaur-



ko egunian, zenbat peligru, okasinoe, ta oitura deunga sartu dan Baseerrijetan, gero esango deutsudan legez. Diabrubia leku gustietara eldutenda, ta geure aragijaren erara konbideetan gaituban legez, nun nai aurkitutzen ditu ugari jarraitzailliak. Baseerritaar batek, goisian Jangoikuari bere neke ta izerdijak ofrezidu, ta bere izenian arima garbijagaz badaruaz, zenbat merezimentu izango ez dau? Diñot arima garbijagaz: bada pekatu mortalian daguanak, nekerik andijeenak artu arren, ez dauka merezimenturik. Ikusten ditugunian fruta, lora, bedar, arbola, ta luurreko edertasun, beti, nai ta ez legez, begijeen aurrian daukaguzanak, eskerrak emongo bageuntsaz gauza gustieen emoilliarri; konsidereetan bagendu geuk luurrera botaten dogun azijk, leleenguan erdi ustelduta, noren birtutez emoten dabent gero mundu gustirako mantenimentu ugarija, alabeetako miraari gustien egillia; gelditulen bagara nosbait penseetan, zelan apaíndu ta edertasunez jantzirik daukazan baso ta zelaijak, mantentzen ditubanak berak txori, ta inurrijeetaraagiñokuak, adoreetako Jangoikuaren probidenzia; jasoten baditugu sarri begijak zerura, egunaz, ta gabaz, ikusteko eguzki, illargi, ta izar argijak, bedeinkatuteko ezerbere ezetik gauza gustijak egiñ zituban Kriadoria; zenbat gei eder ta ugari aurkitutzen ez dogu, gozatuteko euretan geure biotzak, Dabid Errege Santubak egiten eban legez, ta eukiteko beti presente geure Jaun, ta Jangoikuua, dala solo, baso, nai edozein leku, ta biargintzatan? Zenbat mesede aterako ez genduke geure arimeetarako?

LUISEK: Gauza asko ta miragarrijak egin zituban Jangoikuak mundu onetan, ta izanik au gizoneen desterru, ta negarrezko lekuba, zertzuk ete daukaz guretzat bere paradiisu, ta glorijeen lekuban?

AITAK: Ez miñak esan, ez entendimentubak pensau daike, zezazkuak diran Zeruko edertasun, ta Jangoikuak, bera serbietan dabeeeneentzat, prestaurik daukazan glorijaak. Añ da andija, diño San Agustinek, Jangoikuaren presenzijak emoten dabent atsegíñ, ta glorija, zeiñda pozik itxi biar gendukez luurian bizitzarik luzioneenian izan ginaizan gustijak, egun bakar baten Zeruban egotia gaitik. Onetarako dakartz Dabid errege sanitubak Jangoikuari dirautsazan berba onek: Jauna, oba da, ni egin bakar baten berorren Etxe barruban, ezpada ateetan, zeinda ez milla urtina munduban egotia luurreko atsegíñakaz inguratutu. Eguan bein koruban kanteetan monje bat Dabiden berso au: Jauna, milla urte berorren aurrian dira, atzo igaroriko eguna legez; sartu jakon guraari andi bat jakiteko, zelan añ laster begitandu zaatian igaro zala ainbeste urteko denporia; pensamentu onetan eguala agertu jakon Aingeru bat txoritxu eder baten itxuraan, ta bere kantiagaz gozatuta, senetik atera, ta zer egiten eban ez

ekijala, soñubaren ondoren, atera eban konbentutik, ta eruan basamortu batera. An egoñ zan soñuba entzuten, janik, edanik, ta lorik akordau baga, irureun urtian. Ezkutau jakon txoritxuba, ta biurturik bere senera, uste eban iru ordu an igaro zitubala, ta zala monjiak korura juateko denporia; biurtutzen da konbentura, ta ez dau iñok ezagutut, ta berak bere ez bestiak. Diño berak, ni nas konbentu onetako sakristauba, urten dot Mai-tiñaak kantauta, ta nator oraiñ atzera koruko denporarako. Zelan izan leite ori, dirautsee bestiak, guk berori ezagutzen ezzpadogu? Emon zituban señaliak, zeiñ zan bere Abata, ta beste lagunak; baña antxiña ill, ta aaztu ziran. Ikuhi zitubeen konbentuko paper zaarrak, ta atera ebeen kontuba, irureun urte zala, faltau zanetik konbentu atatik monje aa bera. Ordubar ezagutu eban Jangoikuak egiñik eusan grazija, aituteko modureen baten bere glorijeen anditasuna. Bai. Baldin Aingeru baten kantiak, añ arin, ta gozo biurtutzen baditu irureun urte; zer izango da ainbeste millinoien millinoe Aingeru, ta Espirituren artian, ta Jangoiko gustieen egillaren aurrian eternidadian egotia? Ze alegríjal Ze atsegíñ, ta glorija izango ez dabee justubak? Oh zorijoneko penitenzial! Zorijoneko garbitasuna! Zorijoneko Munduba, ta bere okasinoiak desprezijetia, ta Jangoikuua gauza gustijak baño geijago maite izatia!

LUISEK: Egijaz, egijaz, ze eskintsari andijk egiten deuskuzan Jangoikuak, bere agiñdu santubak gordeetan baditugu! Mundubak, Aragijak ta Demoninuak, geijeenez emon leijeez atsegíñ arin, ta ustel batsuk, zeintzuk laster igrota, geldituko dan biotza kezkaz beteta. Azkeneengo paguba betiko Infernuba. Ze zorakerija andijagorik bada egiñ lei gizonak, betiko Jangoikuaren glorijaak galdu, ta eternidaderako kondeneetia baño, luurreko gusto aisiak daruazanan gaitik? Ete dago iñor onetan ondo pensau, ta geijago pekatuban engañauko danik?

AITAK: Itatu dozun ezkero Infernuba, nai ditut berba bi egiña bere gañian. Ara zer diñuan Santa Teresa Jesusek: Egun baten orazinoian nenguala, beingo baten, zelan ez nekjala, aurkitu nintzan begitandurik Infernuban nenguala. Ezagutu neban, Jangoikuak gura ebala nik ikustia kondenaubeen lekuba. Gustija izan zan denpora pausea baten, baña uste dot aaztu ezin neindiala, bizi nasan artian. Sarreria begitandu jatan kale estu, luze, ta illun bat legez; beian, uste neban, ikusten nebala ur atsituzko pozu, antz andikua, ta pistija deungaz betia. Azkenian dago leku bat, orma baten sartuta legez, nora eruana izan nintzan estu estu. Artietakua utsa zan, gaubaren aldiak. Sentiú neban neure arimaan su añ gorija, zeiñda ez dakit zelan esan. Gorputzian tormentu añ ikaragarrijak, zeiñda igaro baditut bere munduban; Medikubak zirausteenez, igaro leitezan



andijeenak; utsak ziran gustijak areen aldian. Baña au bere gitxi da arimiak daukazan agonijeetarako. Arako ito biar, ta ito ezin, ta esturasun desesperau, amorruzko, esplikau eziñ dodana. Zerren esatia, dala beti arimia ate-raten egotia legez, gitxi da. Ezin bada adierazo nei, arima barruko su, ta desesperazinoia, dolore, ta tormentu andijez gañian. Ez neban ikusten nok emoten eustan, ta sentietan neban erre, ta zatituten nenguala. An ez dago jarterik, etzuterik, ez lekurik; bada imiñi banindubeeen bere, ormako zulo modu baten, ormaak eurak estututenee dabee, ta imiñi itoten legez. Ez dago argirik, gustija da illuna; ta orregaitik, ezdot aituten zelan, baña ikus-ten dira, pena, ta tormentuba emoten babeen gauza gustijk. Ez da ezer, irakurri, entzun, ta pensetia. Añ gelditu nintzan billdurtu, ta ikaratuba, zeiñda sei urte igaro badira bere, orain eskribietan naguan denporarako, begitanduten jat, akordaubagaz, gorputzeko indar gustijk falteetan deus-tala. Emendik sartu jatan alako penia, ainbeste arima kondeneetan dirala-ko, zeiñda uste dot ziur ziur, pozik artuko nitukiala eriotza asko, arima bakar bat ara juuatetik librazetia gaitik. Emen, ikusten badogu penaz, ondo gura deutsagun persona bat, errukituten gara, ta sarri estutu; baña azke-nik eriotziak amaituko ditu luurreko penaak; baña ikusirik egunian egu-nian daruazala Demoninuak ainbeste arima tormentu ikaragarri, ta iños bere, iños bere, amaituko ez diranetara? Zelan sosegau, edo atseendu giñaindez? Orain arterako gustijk izan dira Santa Teresaren berbaak. Baña utsa da esan leitian gustija Jangoikuaren axerreko kalabozoko peneen gañian! Irakurri egizubeez San Inazioren Exerzizietako liburu zorijonekua, ta beste nai dozubeen beste, baña imiñten ditubeen irudiñ gustijk, ez dira eldutenee pena areen keriza labur bat adierazotera. Oh pekatarijak! Oh mundubagaz zoraturik dagozanak! Oh aragijaren atse-giñetara etsigia! Eta zer itxaroten jakeen, penitenzia sendo bategaz, biurtutenee ezkadira Salbazinoeko bidera! Pensau arren; pensau ondo, ta erregutu Jangoikuari pekatari geisua gaitik, ta aldendu gustiz pekatu, ta pekatu bideetatik.

HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI VI

Jangoikuaren, ta arimako gauzeei eureena emonda, ez zan iñun obato biarrik egiten Baseerri onetan baño. Alkarren arteko bake, amodi-jo, ta emendik datorren alegrijak egiten zituban gustijk zorijoneko. Aita-ren agiñduba zan gustieen borondatia. Ez zan ezagututenee alperrerijarik, ta alan, iñun ez legez, ta goisago amaitutenee zitubeen solo, ta basuetako bia-riak. Jangoikuak bedeinkatutenee zituban eureen neke ta izerdijk, ikusi eileen gustijk, zeiñ ziurrak ziran familja onei aginduriko miserikordija ugarijak. Iñoren kalte baga, askori on egiten bizi ziran, jaramonik egin baga, mundubaren enbidijk emoten eutseezan persekuzinoiei, eurak legez mundubaren legian bizi ez ziralako. Biarrian egozala eukiten zitubeen konbersazino txito onak. Ez zan entzuten murmurazinoerik; ber-beeta nasaijak ez eukeen lekurik eureen artian, ta kanpokoreen bat, azar-tu balitz esaten, laster isilduko ebeen. Jaijegunak ziran eureentzat beneta-ko Jangoikuaren egunak. Sarri, ta aldzka konfeseetan ziran, ta entzuten zitubeen alan Meza Nagusi, sermoe, ta Bisperaak, al ebeen gustijan. Aita bera zan etxeko maesuba, gau, ta arte gustietan erakusteko, Historia eder, ta bizi modu garbirako biar ziran gauzaak. Azirk familija, dirautsee modu onetan.

AITAK: Gurasuen obligazinoe andijetatik bat da erakustia, edo begi-jen aurrian imintia seme ta alabeei, munduban dagozan peligrubak arimaak galdueteko, ta libreetia euretatik, Jangoikuak bere kargura itxi deutsazanak. Oillo batek, karkarasija estubakaz, erakusten deutseez txiteei eureen arerijuak, artutenee ditu egapian libreetako, naijago dabela bera illtia, txitatxu bat galduzia baño. Zer esango deutsagu bada gizonak Jangoiku-ri, egiten ezkadira seme alabeen arimaak gaitik, aberiak eureen umeen gorputzak gaitik egiten dabeena? Entzun nagizu bada ondo. Ez bakarrik erri batubetan dagoz arrisku andijk arimaak galdueteko, baita Baseerrijetan bere txito asko. Lelengo Kristandadiaren gizaaldijetan kristinaurik gei-jeenak ziran luurreko aingeru batsuk legez, inozente, garbi, ta Jangoikuaren bildur andikuak. Pozik desprezijeeetan zitubeen luurreko atsegiañ deun-gaak betiko Zerkuak gaitik, ta naijago ebeen milla bidar erre, pekatu mortal bat egitia baño. Inozenzija, ta Jangoikuaren bildur Santu onek luzaruago iraun biar ebeen Baseerrijetan, erri batubetan baño. Baña gure denpora triste, ta benetan negargarrizkorako, zabaldu da libertade, ta



nasaitasuna bazter guztietara agiño. Orregaitik gura zaitut kontuban imiñi, sartu diran uts egite, okasinoe, ta oitura txaar askoren gañian.

LUISEK: Bai arren Aita; zuria da bide okerrak agertu, ta zuzenak era-kustia, ta guria Jangoikuari, ta zuri obedezietia, jarraitubagaz beti doktriña egiazkueen bide zuzenei, guzurrezko, ta engañuzkuei itxita.

AITAK: Ara bada. Biargintzeetara batuten dianian jentia, solo, nai basuetara, sarri esan oi da murmurazinoeko berba asko. An urteten dabee argitara projimuaren uts egite egiazko, edo guzurrezkuak, sarri geitubak, edo deungaro aitubak. Entzuten ditu askok barrez, ta pozik; ta biar bada, kontauko ditu beste leku baten, zabalduteko geijago murmurazinoeko azi zitala. Doktriña ziurra da, ez ditugula esan biar iñoren utsegitiak, egijazkuak izan arren, ez gogoz entzun, ta entzunak isillik euki biar ditugula barruban. Pozik, barrez, ta gogoz entzunagaz, geituton jakee gogua miñ deungakuei geijago murmureetako; ta askotan ez da erraz ezagutzen, nok daukan erru geijago, ala murmuradoriak, ala alegríaz entzunda eureen barre, edo kontentubakaz, atarako tentau ta pozturen dabeenak. Ez dabee ateraten konturik, kopleru, edo koplera iñoren honria emen aotan darabilleanak, eureena bardin beste leku baten erabilliko dabeenik. Baña alan ezpalitz bere; zegaitik olgau projimo tristiaren argaltasunakaz? Naiko ete genduke, geu gaitik beste batzuk alan egitia? Murmuradoriaren miñia, diño San Bernardok, da aginkada bategaz iru personari benenua ezarten deutsan bibora bat legez. Ezarten deutsa bere arimiari, projimuaren honriari, ta entzuten dabaren belaarrijari. Al dianian bada, isilldu biar dira, edo esanagaz, edo beste konbersazinoe iñoren kalte bagakuak ateriagaz, edo arpegi astuna imiñi, ta jaramonik ezagaz, edo alde egiñagaz bestelan eziñ dianian. Ta erregela au artu biar da, beste edozein konbersazinoe deunga entzuten daneko. Jakin daizubeen ondo, zenbat gorroto deutseen Jangoikuak murmuradorei, entzun egizubeez jazoera ziur batsuk. Maria Moisesen arrebiari murmurau ebalako bere neba au gaitik, Jangoikuak emon eutsan burutik biatzitarako lepra ikaragarri bat, ta erreguturik Moises justubak Jangoikuari, librau egijan bere arrebia kastigu atatik, ez zan entzuna izan, diño San Baasiliorik. Kore, Datan, ta Abiron, murmurau ebeelako Moises bera gaitik, luurrak edegita, bizirik iruntsi zituban. Berreun, ta berrogei persona príncipal, ta amalau milla ta zapireun bestelako, erre zituban Zerutik jatsiriko subak pekatu au gaitik. Beste onelako ikusi deitekez Eskritura Santeetan, ezagututeko Jangoikuaren gorrotua murmurazinoaren kontra. Gustiak artuten ezpadabee munduban eureen pekatubeen kastiguba, ez dira aiñ baga geldituko, eldu dekijueenian justiziarako señalauriko orduba.

LUISEK: Neuk bere iños entzun dot esaten, San Klemente Aita Santubak diñuala, iru modutako gizon illtiak dagozala; bizitzia kenduta; kendutia desiauta; ta honria galdua; ta irurei kastigu bardiña señaleetan deu-tseela Jangoikuak.

AITAK: Beste Diabrubaren aguazil batsuk oi dira biargintzeetan, berba berde, nasai, amore geistoko, tentagarri, ipuiñ, edo kontu zikiñakaz lujurija predikeetan dabeenak. Oh! Zelako Infernuba itxaroten jakeen! Zenbat arima darueen eurakaz betiko ondamendira! Entzuten dagozan askok pozezko barriakaz alabeetan ditu. Ah! Barre egiñ, Jangoikuak imiñiriko garbitasuneko Mandamentu santuba desprezietean entzunda! Barre, arimia betiko kondenazinoera eruan daikeen berbaakaz! Oh! Zenbat arima dagozan erreetan Infernuban, atsegin deungaz alako okasinoian barre egiñ gaitik! Pensau au ondo, iños entzuten badira alako berbaak, igaro ez ditian biotzera. Begira neure seme maitiak: likia baño itxaaskorragua da lujurija. Egiñ bada murmuradoriakaz legez onelako miñ deungaakaz, (emen al bida, iges egitia erremedijorik segurubena), ta artu billdur geijago, dalako benenua itxaaskorragua. Batzuk daukee Diabrubia miñian, bestiak belaarrijetan. Biotzeko ugaritasunetik auak berba egiten dau, diño Ebanjelio santubak. Zelan iturriko ur askia bete dediñian, urak urteten daben gañez egiñda txurrutik, alan gizon, ta emakume askoren biotzak, lujurijaz beteta egonik, gañez eginda legez, botaten dabee aotik lujurijako ur atsituba. Geijeenez, bardin jazoten da barre egiteko izkunia daukeenakaz; berba loiha entzunda iraakiten dau biotzeko lujurijak, ta agertuton jakee arpegijan. Emakume modesta batek ikara egiten dau, ta deskuiduan alakorik entzuten badau, lotsia agertuko jako arpegiko gorritasunian; beste batek algara egingo dau, ta ezin zuzenago jatorree oni, ta onelakuei, Espiritu Santubak diñuana: egiñ jatzu emakume edo neska gal-dubaren bekokija; ez zara lotsatu. Bardin, bere moduban, esan biar da gizonezkuak gaitik, ta oneek eureen errespeto, ta itzalagaz isilldu lejinez erraztuago alako miñ deungaak. Zurtuteko gauzia! Ainbeste kristinauren artian entzunik berbarik ezaiñeenak, ez iñok arpegirik ateratia Jesu Kristoren honra, ta gloria gaitik.

LUISEK: Ta ain dira ugarijak berba modu orrek?

AITAK: Bai neure semia. Ara zer esaten eban predikadore jakitun, ta euskalduneen ondo zalia zan batek. Kristiandade gustijan, biar bada, ez dala nago, jentez jente, berba loi geijago esango, euskal errijetan baño. Nai batu dedilla jentia solora, basora, karobija, ola, ira ebate, galjote, nai, edozein biarginzatara, gaubelei bere parkatu baga, lekurik geijeenetan predikeetan da lujurija; ain modutan ze, gaurko egunian zeregiñ andi bat etxian



daukanak, aurrez atera daizez kontubak, nori dei egiñ laguntzat, biar badau, ta ikusi gura ezpadau bere etxe, solo, baso, edo biar-tokija nasaitasuneko eskola egiñda. Eldu gara denporeetara konsejeetako, alegiñ gustijan, zerbait estututa bere, bakotxak bere etxeko familijakuakin egin daizala bere biar-geijkak, edo billatu daizala laguntzat bakarrik bere konfiantza osokoreen batzuk. Beintzat jakin ezkerro, norbaitek daukala izkunia alan berba loijkak esateko, ez da billatu biar, ta ez lekurik emon biargintzeetan, ta ez itxi, batez bere persona gazteri, alakorik aurkitutenean eta biar-lekura juaten. Biarra estu, ta etxeko utsakaz egiñ ezin leitiana bada, billatu, diñot milla bidar, persona ondo aizi errazozekoa eta konfiantza osokuak. Bedeinkatu biarrian Jangoikua, ta esku bera laguntasuna, zeñegaz bakarrik artu daikegun geure nekeen frutuba, erakarten dabee sarri frutubetara, ta beti arimeetara, Zeruko madarikazioa. Lotsatu gaitian oraingo euskaldunak, garialako miñaren aldetik, zikintasunian bardiñik bagiak. Diñot oraingo euskaldunak; bada biztuko balira gure aasabaak, negar egingo leukee oin orde aiñ nasaijien sustrajak izan ziralako. Berba egiñ daijela Bizkaiko mendi, baso, ta erromerija santubetako bidiak; esan daijeezala, antxinako euskaldunei entzun oi jakeezan kanta eder, ta garbijak. Solo, ta biar leku gustijak, gomuntau eragiñ deigubeezala, euretan esan oi ziran exenplu, ta Historija miragarrijak; berba egiñ daijela bazter gustijak, entzuten ziran Jangoikuaren alabanzeen gañian. Baña gaurko egunian berba egiñ al balejeee solo, baso, bide, ta sasijak eurak, zer beste gauzarik predikau lejее, ezpada beti entzuten dan lujurija? Baña Jangoiko maitia! Zetarako luzatuko dot gei au, zeñen gomunta utsak miñdutenean dabentzatneur biotza! Orregaitik, itanduko deutsete onelakuei berorren aldez: Kriatura esker deungakuak, nok egiñak zara, ta norenak dituzu, daukazuzan biziota, ta izatia? Zetarako emon neutsuzan, beste gauza gustieen artian, orrako miñ, ta eztaari orreek? Berba, ipuin, ta kanta zikiñakaz, desonrau, ta desprezijeetako daukazun neure izen santuba? Begiratu egizu alde gustietara, aztertu ondo Zerubak, ta luurra; ta baldiñ emon ezpadeutsudaz gei eder, ta ugarrijak zeren ganian berba egiñ, zer kantau, ta zer kontau denporia ondo emoteko, esku egidazu, ta emongo deutsudaz barrijak. Eskritura Santako, ta eleisako jazoeraak, beste Historija askogaz batera, daukazu ugari zeren ganian berba egiñ; Dabiden salmo zoragarrijak, ta beste deboto askoren beroa garbijak, zer kantau. Zek bada falta egiten deutsu denporia emoteko? Ala izango da egijja, zuben biotzak ez daukeela pozik onelako gauzeetan, ta bai bakarrik lujurija atsituban? Oh egunak! Oh, negargarizko denporaak.

LUISEK: Ez neban uste, Baseerriko biargintzeen artian, aurkitu zaatia ainbeste nasaitasun, ta okasinoe.

AITAK: Bai neure semia. Biar-gei batzubetara, batu oi dan legez jente geijago, beste batzubetara baño, alan euretan esan, ta egiñ oi dira zantarkerija geijago. Gal ebate, ta jotiak, ira ebate, ta orbel batzeiak, liño apaintze, ta ezpateetaak, arto zuritzte, ta beste onelako biar battzuk, geijeenian nekezalerik alperreenak, edo seme alaba ibilltaubak daukeezanak, egiñ oi ditubee al dabeen gazteerija batuta. Emakumia bada lotija, ta alabaak ama lotsatuko ez dabeenak, asmeetan dabee gorubetia kanpokuakaz egitia. Onelako biar modubetan, igaroten dira berba, ta egitada nasai asko. Etxe batzubetan lotsa, errespeto, ta Jangoikuaren billdurra galdurik, biarrak priesaz, ondo, nai txaarto amaituta, egiten dabee bigiria. Leenaz jakin oi dabee, nasaitasuneko kofradiak, nun izaten diran alako funzinoiak. Juaten dira mutill battzuk, arrebei lagun egiteko, edo beste atxakijaren bategaz. Asten dira dantzak gabaz neskatilla, ta mutill; an izango da kantora zikiñ bat. Amatau oi dabee nosbait argija. Etxe batzubetan, lutzatutenean funzinoia amar amarka, ardijak aparteeta, alkarrak jasote, amoriak egite, ta aitatutiaz lotsatu leitezan gauzarik ezañ ta tontueenakaz. Gurasuak zer ete dinue? Jangoikua begira dago. Ez dago beretzat gaurik, ta illunik. Mutillak zer penseeten ete dabee? Jangoikuaren billdurrik ez balego bere, nun da gizonezkuen errespeto ta itzala? Emakume zorueen esklabo egiñik, dabilz eureen ondoreen, areak nora, eurak ara, aitutenean mundu gustijari eureen biotzeko argaltasuna. Neskatillak, nora begira ete dagoz? Nun da arako honestitate, lotsa, ta modestija, eureen arima, ta gorputzeko edertasun gustija egiñ biar dabena? Zer da au. Umetxubeen artian esan oi deutsee alkarrilotsaarritzat, neska zale, mutill zale; ta galduko dala gero azita aiñ txikitatik datorren lotsia? Illuntasun negargarrija! Bigiria amaitu, ta duaz alkarragaz etxeetara Neskatilla, ta mutillak. Ah! Egunen baten, eureen Aingerubak emongo dabee, bidetan esan, ta egiten ditubeen gauzeen testigantzia. Esan eustan beñ jakitur andi batek; Dia-brubak eruazala guraso, onelako bigiraak etxian isten zitubeenak; alako batzaarretara eureen seme alabaak bialdutenean zitubeenak, jakiñik zer igaro oi zan; ta mutill, ta neskatilla gustoz egiten zitubeenak bere, baldin damantu, penitensiak egiñ, ta erremedijeetan ezpazitubeen eureen uts egitiak, ta itxi alako okasinoe zorigaitokua. Errazoe andijagaz. Bada arimako garbitasuna izanik aiñ ederra, errazto galdu, ta ezañdutenean da, baldin ardura andijagaz gordeetan ezpada. Galduenean da bai ziur, borondatezko pensamiento, ta guraari loijagaz, begirakune atsegiañ deungakuakaz, modu askotako eskuka, ta mosu aragizkuakaz, berba, kanta, ta ipuin zikiñak esan,



edo enzunagaz ezañitasunaren gustoz. Galduen da beste akzinoe modu askogaz. Eta zenbat esan ditudan gauza, baterikuak, edo besterikuak, egiten ez dira bigira, ta alako funzinoietan? Badakjee gurasuak. Zelan bada galerazo ez? Zorijonez, ezagutubaz duaz guraso asko, ta galerazoten ditubee. Alan jazoko al jakee beste guztiei bere, Infernuban ezagutu daijeezan baño leenago.

LUISEK: Gauza lotsagarrijak entzuten ditut; gurasuak eureen etxeetan sufrido lejerez alako eskandalubak?

AITAK: Gauza gustirako emoten dau Diabrubak atxakija, balijoko ezpadau bere Jangoikuaren aurrian, pekatu egitekuak. Nekezale on askok, astiña artuta, egiten ditubee eureen lanak etxeko familijagaz, edo alogoreko, edo auzo juiziozkuakaz, ta ez daukee artu emonik onetan, beste biragiñ baño olgau zaliaguakaz. Egunaz egiten ditubee ezpateetaak; puskaka puskaka, builla baga, arta zuritziak. Kanpokorik dabeenian goisago biarrak amaituta, illuntzian dua bakotxa bere etxera; ta nosbait, iñori illunduten bajako, batez bere emakumia bada, geldituten dabee bertan gabian. Etxian egiten dabee goruba, ta ezin bada gustija, eragiten dabee pagauta, ta da merkeena modu onetako etxe gobernuba. Bad, zer irabazi ateraten dabee amar, edo amabi lagun batubagaz gabian, nai gorubeta, nai beste ainbeste bidar juan biarko badau auzueta ordiak pageetara? Esan oi da, ta alan da, gabeko biarra egunazko lotsaarija. Alkarren lejiana egiten bada arija, alan urtengo dau berak, ardatz bata lodija, bestia meia, bata erdi biurtuba, bestia aïñ bagia; probauko dau ondo alako arijak euleen pazienzia ta izango dau laster zulua, beragaz egiten dan soñekuak. Ariñ aringa apañduriko liñuak bere ez dabee erbatz faltarik izango, ta beste edozeiñ alako biar moduk, gabaz, nai egunaz, izango dau bere uts unia. Gabeko belubak ekarriko dau gois beranduba, ta salto, ta danziak bijaamonerako alper usaiña. Nun dira bada uste oi diran irabazi, edo aurrerapenak onelako jenteen batzaarretatik? Luziferren liburuan txito asko. Baña irabazirk balego bere, ezin iñundik itxi lei etxian bigira, ta okasinoe dantza naastaukorik. Zer balijoko deusku mundu gustija geuretzat irabaziak, baldin galduen baditugu betiko geure arimak? Orregaitik au ezagututenez daben guraso askok, interes begitandubeen atxakijagaz, edo eureen seme alaba nasaijei gusto emote arren isten ditubee, eta isten deutsee euretaratu juaten. Ikusiko dabee egunen baten eurak, ta eureen mendekuak, zelakua dan Jangoikuaren justizija, ondo aazturik daukeena. Beste guraso batek esango dau: etorten dira auzueta mutill ezagunak paska bat olgeetara, ta zer egingo jakee? Gustiakaz bizi biar dogu guk. Egunaz egingo balira biarrak, ez litzaatez juango; ezta errespetorik balego bere; jakin oi dabee,

nun zer paseetan dan, nun ze guraso, ta jente modu batutenean, nora juan, ta nora ez. Baña, zer egingo jakeen etorten badira? Zarratu ondo atiak, lapur batzui baño ardura geijagogaz, datozañako arimaak ostutera, edo galdueragitera. Gustiakaz bizi biar dabeela? ta Jangoikuagaz? Ta geure arimaakaz? Ez ete dira oneek kontuban sartuko? Azkenik, badua seme alabaren bat atia edegitera, neurtu makillia eureen gerrijan. Eureen, ta enparaubeen arimako onian da. Bestela eziñ bada, Espiritu Santubak berak bere aginduten deutsee gurasuei, erabilteko zigorra. Baña ondo azi ezkerro, onelako preñiñarik nekez izango da. Guraso ardura onekuak leenaz artuko ditu neurrijak, ta bulla baga eguiñik biarrak, ez dau izango nai ez dabentz okasinoerik. Bestelakua bere atxakijakin itxubago biziko da, ta juango da, atxakijakin urtengo ez dabentz lekura.

LUISEK: Orreka gatz ezagunak dira; aztertu egizuz, beste biar gejetan egon oi diran peligubak.

AITAK: Pozik egingo dot. Laijeetak biarra danian beraariz legez sarri, jarri oi dira mutill, edo gizon bi eskiña bijetan, ta neskatilla bat erdian, edo mutill, ta neskatilla bat. Au, berez ez izan arren okasinoe astuna, izan oi da nosbait Jangoikuaren billdur gitxiko jenteen artian. Sarritan, esan oi dira belaarrira berba zikiñak, ta egiñ txitximur, ta gauza tentagarrrijak. Geijeenian, erremedija leitez onelako peligrubak; baña nosbait aurkiten bida preñiñaz neskatilla bat modu atan biarrian, ta esan edo egiñgo baleutsee alako gauzarik, adierazo biar deutsee isilidu, ta itx daijuela alako okasinoerik emon baga. Au asko ezpalitz, esan biarreko nagusitzat dauenari; ta alan bere itxigura ezpadetsee bakian, itxi guztijari, alde euretatik, ta bakarrik egiñ daijeela biarra. Leenago da arimia, esamesa, ta beste gauza gustiak baño. Iges peligrubari garbi izan gura dabentz. Beste leku, solo aldats andikuak dagozanetan, nekezale, biarrian atzeratubak egon oi diranak, batutenean gazteera andi bat, luurra edo simaurra, solo barrenetik generuntz jasoteko. Jarten dira mutill gizon, neskatilla, edo emakumiak, beetik gorako katee modu bat eginda. Emakumiak sarri, gona laburregi, ta ostian dezenzia gitxigaz. Mutill batek artutenean dau zara kargauba, iminten deutsa buruban ureengoa emakumiari, ak berez ez da okasinoe andija, baña igaroten dira onako lekubetan begirakune deunga, berba nasai, eskuka, ta bultzaka malizioso, askorentzat okasinoe astuna egiten dabeenak. Afal osteko erpillauste, liño aterate, ta beste biar modu, jente gazte, ta nasai asko batu oi diranetan bere, soluan edo geruago oi dira lako nasaitasunak. Ta zenbat igaroten ez da karobija askotan? Ahi, zenbat ardura imiñi biar leukeen gurasuak ez bialduteko alegiñez alaba ez krijada gazterik karobijeetara, batez bere eurak an ez dagozala! Gizonez-



kuak, eurak nai ezpadabee, ez daukee ainbeste peligru, (orregaitik gurasuak begiratu biar dau nori, ta nora isten deutseen semei bere, ta eskusau peligru andirik baleukee), ta zer esan, baldin gabian bere geldituten badira neskatillaak an bertan, sarri gizaseme nasaijeen artian? Zer esan, arako jaijegunak karobia utan artutten dabenian, laguntzeko atxakijagaz juan oi diranak gaitik, egubarterik geijeena nasaitasunian igarotera? Zer falta egiten dabee an emakumiak, ezpada okasinoia biztuteko? Su gogorraren aurrian; nok sinistu? Infernubagaz gomuntau, ta billdurtu biarrian, egiten da bertarako bidia nasaitasun askogaz. Oh gurasuak! Zenbat pekatu erre-medijau lejeen, nai balebee! Beste guraso batzuk, neguko denporaan, eraz badauke urrian olaren bat, etxian argi, edo egur puskabat ez gasteeta arren, bialdutenean ditubee euretarra alaba, edo kriyadaak, goruba egitera. Edozeñek daki, zelakua dan olagizoneen jantzia biarrian dagozanian, ta errazoe onek bakarrik izan biar leuke asko, emakume modestija paska bat daukeenak alako lekura, premiña baga ez juateko. Baña onez ostian, ola askotan, nok ez daki zenbat okasinoe, berba, ta gauza zantar oi dan, gorula zorigaitokoa dirala motibo? Baña guraso askok ez deutsa arimako kaltiari begiratutenean, ez gasteetiari baño; ta alaba askok bere, naijago alako lekura juan, eleisa, ta orazinoera baño. Subak bere ez ditu billdurtutenean, lujurijk gustia aaztu eragiten deutsee. Akordauko ditu nosbait. O galdu guria! Entzun neutsan bein esaten sazerdote on bat, ta leku askotan ibiljari; ez da mundu gustijan aurkituko neskatilla ibilltau, ta modestija gitxiagokorik, euskal errijetan batzuk diran baño. Leku gustietara dabiltz gizasemeen ondoren legez. Izango da merkatu, edo erija bat, pelota edo palanka joko bat, proba, tratu, edo beste gizoneen batzaile bat, an da aurreneengoa bat edo bat. Taberneetara agiño darraukueez batzuk, lotsa gitxigaz, ta merijendeetan ikusten dira iños etxe ezkutubetan mutillakaz. Egiten ezpadabee obrazko pekaturik, edo egiñ arren, mundubak jakiten ezpadetutenean, beste eskuka loi berba nasai, ta amore zikin gustijak gaitik bizi dira eureen ustez donzella garbi batzuk balira legez. Oh itxutasuna! Onelako neskatilla askok, eureen arrotasun, apaindurria, jesto, ibillera, ta lotsarik ezagaz, arima geijago, biar bida, darree Infernura, emakume gal-dubak eurak baño. Ahi, zenbat pekatu, ta Jangoikuaren ofensa dakinaren, ez erakutsijak, ta gorde eragiñak gurasuak, modestija, ta erretirua, eureen erraijekoa frutubea! Zer kontu estuba emon biarko deutseen Jangoikuari! Zenbat guraso, ta seme alabak madarikatuko dabeen alkar Infernuban!

LUISEK: Neu bere entzuten nenguan sazerdote ari, ta gomunta dot, zerbaitei geijago esan abala. Hebreotarrak, ziñuan, neskatilliari emoten eutseen izena, zan Alma, ta esan gura dau ezkutuko, edo erretiradia, ta

emendik ezaindu zituban asko neskatilla ibilltau, buru erakusle zale, ta gauza nasaijakaz lotsatutenean ez ziranak. Onelako neskatillaak, esaten eban, ez bakarrik arimako ondasunak galdu oi ditubee, baita, ondo pensaurik mundurako bere ekarten deutseez kaltiak eureen burubei. Daigun kontu, artu gura dabeela matrimonioko estaduba; baña ze mutill juiziozko gura izan lei bere esposatzat, batagaz batera, bestiagaz bestera oratuka, laztanga, milla amore zikiñetan sarri ibilli dana, edaderik peligrosueenian, ainbeste giza seme nasairen artian? Askogana zabalduriko biotza nekez batutenean da. Neskatillatan garbi, ta honestia izan dana, gero bere garbi, ta lejala oi da, baña bestelakuakoa zenbat billdur, zelo, juzgu, ta sospetxa iga-roten da estaduba artuta gero? Senar geijagaz izaten badau adiskidetasun deungia, jakinik argaltasunak, geitutenean dira sospetxaak. Oh, zein engaño-rik bizi diran, argaltasunagaz alkanzau nai dabeenak eureen estaduko ondo izatia! Estaduba artuteko denporaan edozeñek gurako dau persona honesta, ta garbia, zantar ta tonto andireen bat ezpada giza semia. Egijaz asko dagoz tontuak diño Salomonek, ta ez gitxi esan diran moduko emakumiak bere diñot nik, orregaitik urtetenean dabee ainbeste ezkontza modu, ta gero ikusten diran eskandalubak.

AITAK: Leenago esan danetik ezagutu deiteke, zein peligroso, ta deungaak diran gabetako ibilltiak; zenbat kalte ekarten dabentzutenean familiza etxera ez batutiak, beste batzaile geistuak galerazo arren. Egunaz ainbeste arrisku aurkitutenean bida leku txito askotan, zeintzubetatik alde egin biar dan; zenbat aurkituko ez dira gabian! Oi dira orregaitik mutill errondarijak, ta nosbait emakume lotsa baga, lagundutenean deutseenak, eurak bagako saltsarik izan ez dediñ. Gaurik jakinarenak onetarako dira Gabon gaba, urte barri besperia, ta beste atxakijareen bat dabeenekua; barri entzuneena Santa Ageda bisperakua. Ez dago zer esan, ze kanta modubak kantau oi diran orduban, nundik nora ibilten diran, ta ze lagun modu. Neskatillak sarri urtetenean dabee bentanara, bero zikiñak entzun, ta barrezko eskerrak emotera. Biar bida ez da faltako atxakijak bat atia ede-giteko. Izentau oi da egubarte bat, orduban baturikuagaz merijandia egiteko. An da gero jan edan, ta nasaitasuna. Okasinoe batek dakar bestia. Oh pekatubaren katee luzia! Gurasuak! Zetarako zarratu ez atiak ondo alako gabetan? Zetarako errejistratu ez oia, iñor falta ete dan, jakinik askok urten oi dabela isillik? Biar balitz, gabian sarri jagiko litzaitez gana-dubai begiratutera; ta zelan ez familijauak gaitik, nosbait, sospetzia dagu-nian? Zenbat errazoegaz esango ez jakee onelakuei San Krisostomogaz, ardura geijago daukeela kortako ganadubakaz, seme alabakaz baño? Ta zer eranzungo deutsee gero Jangoikuari?



HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI VII

Aitaren berbaak josita legez gelditutenean ziran seme alabean biotzetan, ta alan umetatik ekarreen munduko peligrubeen bildurra, ta eureen bizi modu garbijaren kuidadua. Ez ziran aspertutenean gauza onak ikasten, dala liburubak irakurrita, dala sermoiak entzunda. Eureen artian gero igarotenean zitubeen, ta itandu aitari, zerbait ez ekijeenian, dudarik eukeenian, edo gauzia obato aitu gura ebeenian. Alan egun baten, beste gauza askoren artian, dirautso aitari.

LUISEK: Ta zer esaten deust erromerija, dantza, ta fiestean ganian?

AITAK: Asko neuke onetan zer esan, entzun, ta irakurri dodalako, baldin ezpaneki, zubek ez zariana alako zaliak; orregaitik, gorroto geijago izan deijeezun, esango deutsut zerbait. Edozenek daki erromerija dala santureen bat egiten jakon bisita modu bat, edo mesedereen bat eskatu-teko, edo arturikoreen bat gaitik eskerrak emoteko. Au berez gauza ona da; ta alan egiñ oi ziran txito ondo leleengo gizaaldijetan. Debozinoerik andijeenagaz, ta penitencia egite arren, batian santuben bitartetasuna alkanzeeta arren bestian Jesusen pasiñoe santuko oñatzat ikusi, ta geijago penitencijako gogua biztu, ta arimaak bere amodijora mobieta arren, iku-siko zenduzan batzuk ortozik, zaku zantar, ta zilizioz jantzia, asko kateez kargaurik, autsez burubak beteta, begijak lurrrera begira imiñita, joiazala santubeetara. Zelako biotzeko samurtasunagaz egiten ez zitubeen eureen eskearijaka? Zelako propositu, ta asmo santubakaz biurtutenean ez ziran eureen etxeetara? Baña, oh, egunak! Oh, denporen girabiraak! Zetara biurtu dira, edo zer dira oraïñ, beintzat euskal errijetan ikusten diran erromerijarik geijeenak? Ezin esan lei negar egin baga! Santubaren egunian, ta atxakijagaz duaz jente pilluak, aldabeen banidade gustijagaz, santu gustieen santubaren mandamentubak ostikopian erabilltera. Barristeetan ditubee, antxiña Jentillak eureen Jangoiko palsuei egiñ oi eutseezan funzioineen antzeko, fiesta zorigaistokuo. An dago ardaua, lurjuria ta aserria biztuteko; an tanboliña, edo soñuba, pasinoiak azkortuteko; ara batutenean dira adiskide geistuak, edo egiten dira barrijak; an ikusten dira mutill ta neskatillaak, batari tira, bestiari oratu, berba nasaijak baño entzuten ez dala. Asten dira dantzaak. Ta ahi! Zer salsa! Persona honesta bat ezin egongo da begira, ikara egiñ baga. Oh santo glorioso, zeuben garbitasunaren sarijak artutenean zagozanak! Orra zetara diran zuben egunak! Orra

ugari erromes Luziferen debotuak! Eskintzen ditubee zuben alegrijaren atxakijagaz lurjirako inzensuak. Oh! Zubek antxiñako euskaldun, kristinu zaar, ta egiatzkuak, baña aazturik, ta austurik zagozanak sepultura illunetan, biztu zaite arren, ta erdu neugaz negar egitera; biotzik badaukazu, ikusi egizu, zer egiten dan oraïñ, zubek ainbeste debozinoegaz jaso zenzudan ermita santubetan. Zubek, gitxi eretxirik jaijetan parrokijeetara juitia, imini zenduzan zeuben baseerrijeen urretan orazinoeko etxe santu oneek, astegunetan bere sarri euretan erregu bizijk Zerura zuzenduteko. Zubek jarten ziñan zeuben familija, ganadu, solo, azienda, ta gusti santu oneen anparu, ta egapian legez; billatutenean zenduzan esturasunetan, adorau, ta alabau zeuben atseginetan. Baña oraïñ, aazturik kristinaurik geijeenak, zetarako ziran ermita, ta erromerijaak, deshonrean dira santu, ta eureen egunak, onrau biarian, ta egunik bedeinkatubeenak dira Luziferrentzat ferijarik andijeeneko egunak. Erdu, bada, erdu gomuntau eragitera, zetarako ustez itxi zeuskuzan, kendu al bazengiz zubek oraingo fies-ta eskandaloso; konbit kaltegarri jentia geitutenean babeenak peligrurako, nasaitsunerako, ta sarri ordikerijako; ta beste dagozan oitura kaltegarri asko. Amaiturik fiestaak, nok esan lei zer igarotenean bideetan? Oh Zeruko Aingeru eder, ainbeste nasaitsunen testigu zarianak! Zubek agertuko dituzu egunen baten arako mutill, arako neskatilla mundubak hones-tatzen daukazaneen ezaintasunak. Eta zuk, Jangoikuaren justizia zuzen, ezegaz aaztutenean ez zariana, kastigauko dituzu egiten deutsubeezan des-prezijo, ta injurija lotsagarriak. Bai bail Andija da Jangoikuaren pazienzia, ta isilltasuna. Poztutenean da pekatarija, ez ikusirik, biar bada urte osuetan, pekatubaren kastiguba. Baña hai? Ta zeiñ gitxi dan Jangoikuarentzat gure bizitza laburreko denporia, eukirik bere aldetik eternidadia, ta nai dituban kastigu gustijak. Ez da bada ezer kastigu baga geldituko, geuk penitencia egijazkuagaz kastigeetan ezpadogu. Ez luze eretxi. Plazu guztijak beteko dira. Ta kontaurik dagoz gure bizitzako, egun, hordu, pekatu, ta gauza gustijak.

LUISEK: Zuk dirudizu aita predikadore bat.

AITAK: Sarri egiñ biar dau gurasuak predikadorearen ofizjua, mundu laban onen peligrubetatik libreetako bere mendekuak. Nua jarraitutera. Erromerijarik ez egon arren, jaijegunetan sarri, ta astegunetan nosbait, dala zelai, edo plazeetan, dala etxe, edo zurkulubetan egiten ditubee mutill ta neskatillaak alkarraren naasteko jolas, dantza, ta fandanguak. Batian geijago, bestian gitxiago, gustietan egiñ oi dira pekatu txito asko. Igarotenean dira ugari esku estutete, txitximur, mokorkada, jesto, ta begirakune amo-rezko, geijenez lurjiriaz betiak. Ijuijak, barriak, bulliak, saltuak, soñubak,

alkarri urreratutiak, gustijk lagunduten dabee pasinoiak azkortu, ta peligruba geitutera. Gauza lotsagarria, ondo pensaurik, egiñ oi diran funzinoiak ikustia! Jarten dira neskatalaak plaza inguruan ferija baten salgei balegoz legez. Naroianak naroiala. Mutill nai gizonik nasaiveena bada, ez da importa; barre egiñda emoten deutsa eskuba (emoten baleutsa legez ezkontzen daniān senarrari konfiantza, amodijo, ta jaubetasunaren señalian, bada ostian lotsa izan biar leuke neskatala garbijaka gizakumeri eskurrik emoten). An duaz, ta an dabiltz edozein modutan. Geijenez ateraten dabee alkar dantzara amodijorik geijeen, ta peligrosueena alkarri deutseen personaak; ta leenago ezpeukeen an artutен dabee. Dantzia amaituta jar lekura emakumiari lagunduta, azkeneengo agurrian, gitxi apartauko dira berba, edo akzinoe nasaireen bat esan, edo egiñ baga. Gero bideetakuak. eleisako maesu, santu, ta doktoriak, errazoez diadar egiten dabee dantznaastubeen kontra. Diño San Efrenek, soñuba, ta dantzia daguan leku ban, an dago bizijuen illuntasuna, emakumeen galtzea, Aingerubeen tristeza, ta Diabrubaren fiestia. Ez diñuee gitxiago San Agustin, San Basilio, ta kontau ezin aña Maesu, ta thelogu andik, zeintsubeen esanak erakutsiko deutsubeedazan Palazios ta beste askoren liburubetan. Ahi, zenbatek negar egiten dituban Infernuban zori gaistoko dantza ta jolas nasaikak! Alako dantzari naaste zaleentzat dator zuzen, Job santubak diñuana. *Alegreetan dira soñubaren otsian, daruez požkerijaz eureen egunak, ta jausten dira gero Infernura.*

LUISEK: Zelan bada gurasuak isten deutsee eureen seme, alaba, ta mendekuei olako dantza, fiesta, jolas, ta erromerijeetara juaten?

AITAK: Nik ez dakit.; isten deutseena bai, baña zelan itxi lejueen, jakiñik eurak zer igaroten dan, ta geijenez dirala lujurijako eskola modubak. Dantzan egin daijela, diño San Anbrosiok, emakume adulteriaren alabaak, baña ama garbijak ez deijkeela erakutsi dantzari. Gurasuak bada, zinuan beiñ predikadore andi, ta birtuoso batek, erakutsi arren gaztetatik zeuben seme alabei garbitasuna, ta iraatsi eureen biotz bigunetan dantza naasteko, jolas, erromerija, ta fiesteen gorrotua, ez itxi gero euretara juaten, nai negar, ta nai barre. Otseñik biar danian lenego kondizionia imiñi, ez dabela izango lizenzijarak alako okasinoietara juateko, ta gura ezpadau onetara etorri, ez artu etxian. Zelan euki leijee gurasuak konszienzijako bakerik, dabilzala eureen mendekua peligru ain jekiñetan? Ezpadira eurak ibilli alako peligrubetan, sinistu daikee errazto esaten jakeena, ta itundu, nai badabee, gizon jakitun, ta arima zaliakaz; baña eurak gurasuak ibilijk badira, esamiñau daijela ondo denpora areetako bizitzia, zer esan, entzun, ikusi, ta egin oi ebeen; ta badakjee zer dan gar-

bitasuna, ta zenbat modutara errazto galduen dan, ez dabee beste jakiturrijarik biar, libreetako alako lazu, ta peligrubetak, Jesusek eureen kargura itxi dituban arimaak.

LUISEK: Nik ez nekijan ainbeste malizija egulanik jenteen artian, ta orregaitik beti neutseen gorroto orrelako batzaurrei. Irakurri dot sarri San Juan Klimakok diñuala, Jangoikuak iraatsi eutseela emakumei beraarizko modestija edo lotsa modu bat munduko peligrubak gitxituteko. Barriz neskatala arro, ta dantzarijetan ez dot ikusten alako modestiarik, ezpada askatasun andi bat. Gauza ondo jakiña da, gizonezkuei iraatsi eutseela Jangoikuak errespeto, ta itzal modu bat eureen nagusitasuna agertutene dabena, baña mutill dantzari, ta kortejo zaleetan bere ez dot aurkitutene errespeto, ez biar leukeen itzalik. Igaroten nintzala beiñ, fiestia ebilen plaza batetik, ikusi nituban mutill bi joiazala neskatalaak egozan lekura, urreraturik kendu zitubeen eureen txapelak, egiñ kortesija, ta buru makurtutiak; gelditu nintzan paska bat, zer ikusiko ete neban, ta orra nun jagitten dan umiak baño larroseta geijago eukan emakume bat; eruan ebeen dantzan ebillenagana, ta zan bere auzoko mutill bat; egiñ eutsazan onek salto, gora beera, ta ongi etorri andijk, iños ikusi bagako prinzesak bat balitz legez; plaza gustija barrez, ta txaloka eurei begira; emakumia gazaña zaarra baño arruago. Aserraturik ikusita ainbeste erotasun mutilletan, alde egin neban andik, esaten nebala neure artian. Ze errespeto ta itzal gura dabee euki mutill, alako imenzinoe, jesto, ta zorakerijarak andijeenak egiten ditubeenak plaza agirrijetan emakume argal batsubeen oineitan? Nun da zentzun, ta juizijua? Nun da gizonaren nagusitasun ta itzala? Oh, pasinoe lotsagarrijak! Zeiñ egijja andija dan, zubei leku emon ezkero, gizon geisia egiten dala gauzarik lotsagarrijeeneen esklabo! Ordutik bada artu neban enfadu andija dantza naastekueen kontra, ta geijago, zuri entzunik, ta neuk sarri irakurrik, dirala arima asko Infernura ondatuteko bidiak.



HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI VIII

Alan guraso onek bere erakutsijakaz, exenplubagaz, ta liburu onak erosia, ta irakurri eragiñagaz, sendatuten zituban bere seme, ta alabaak mundubaren olatubetan ondatu ez zitian. Alan luurreko umekerijeen lekuban eraasten eutseen jakituria egijazkuaren guraari andi bat. Jaijegunetan juan oi zan sarri urrian eguan ermita batera, nun batu oi zan jente asko, ta irakurten eutseezan doktrina, ta Historijako liburu ederrak. Emendik ainbeste mesede auzoera gustijarentzat. Alan eguan baten, jakinik askoren onerako izango zala aitaren esana, itanduton deutsa.

LUISEK: Aita, sarri ta astiro entzun deutsugu berba egiten, dantza naasteko, erromerija, ta fiesteen kontra, baña gura neuke entzun zer erantzuten dozun, mutill ta neskatilla batsuk esan oi dabeenera, juatiaren bando. Gauza askoren artian, ez luzatute arren alperrik, esango deutsudaz sarrijeen, ta errazoerik andijeeneentzat entzun deutseedazanak. Leleengua; bestiak bere juaten dira; bigarrena, gaztiak olgau biar dabee; irugarrina; sinpletzat eukiko gaitubee, burla egingo deuskubee juaten ezpagara euretarra.

AITAK: Atxakija, edo kaparik ezpaleuka Diabrubak okasinoiak estalduteko, ez leuke ainbeste arima galduko. Baña, leleengo emakume Eba tentau ebanetik, asi zan estalki ederrakaz pekatubaren benenua apainduton, ta alan jarraituton dau orain arte gustijan. Jan egizu sagar ori, zirautsan Ebari, ez dauka gatxik, ta bai mesede andijk zuretzat; sinisturik Ebak jan eban, baña laster ikusi zituban bere gañian pekatubaren gatxak, ta gustijok dakuskuz egunoro. Zetarako bada ain fede onian bizi Diabrubagaz? Zetarako esaminau ez ondo, berak imiñaten dituban pensamentu aragia gozatutekuak, ete diran arimia galdukuak? Baña luzatu baga, nua erantzutera. Leleengora, bestiak bere juaten dirala esan, diran moduko dantza, jolas, ta erromerijeetara. Diñot; albait deungaago, bakarrik balira ez legoke peligrurik. Zenbat geijago juan, saltsia, ta okasinoia andijago. Ez dago ordi, usureru, murmuradore, ta beste pekatari modurik, egijaz esan ezin leijanik, bestiak bere egiten dabeela. Alan; baldin libre balitz egitia, bestiak egiten dabeena, ez legoke kendu baño mandamentu gustijak. Baña dirausku Espiritu Santubak, ez jarraituteko askok egiten dabenari gauza txaarrerako danian. Ebanjelio Santubak diño, zabala ta nasaija, dala Infernurako bidia, ta atia, ta askok darraikola; barriz gitxik Zeruko estu-

bari. Negarrez ziñuan San Agustiñek: Oh zorigaistoko kostunbre deungeen ibai korrontsuba! Nos artian ondatuko dituzu Ebaren semiak itxaso andi ta ikaragarrijan? Ez da bada kristinaubeen legia bestiak egiten dabeeña, Jangoikuak egiñduton dabena baño. Jarraitu justuben Historijari gizaaldirik gizaaldi. Iküsi daijeela, baldin Lot bat egiñ bazan, beste sodo-mataar guztien oitura zikiñakaz; Abraham bizi izan bazan, bere gizaaldiko beste jentiak legez; Job izan bazan, bere aldiko prinzipieen gisakua; Ester ederra, beste Asueroren korteko emakumeen antzekua; Zegaitik Tobias, beste gustijak itxita, bakarrik juaten zan tenplura Jangoiko egijazkua adoreetara. Eleazaro zaarra zematu ebeen eriotziagaz, baldin jaaten ezpeeban Jangoikuak debekauriko aragija; ikusten ditu jaaten bere lagunak, esaten deutsee adiskidetzakuak, arren egin daijala jaaten baleu legez, ta erantzuten dau: Najago dot ill, ta sepulturaan sartu, zeinda ez ausi Jangoikuaren agiñduba. Nabukonodosor Erregiak, eragiñik urre gorriko estatua bat, imiñi eragiñ eban Babilonijako zelai andi baten. Batu zituban bertara kaballero, juez, ta bere erreñuko andiki modu gustijak, agiñduton ebala, soñu, ta musika ederrean otsa entzuten zanian, gustijak etzun, ta adorau egijeeala estatua aa, ta iñor ukatuton bazan egitera, beriala sartuba izan zedilla susko laba isiuan. Entzun ebeeneko soñuba, erri, probinzia, ta berbeeta modu askotako jentiak, gustijak auzpaztu, ta adorau ebeen. Bakarrik gelditu ziran egiñ baga iru mutill gazte hebreotaar, zeintsubak ez ebeen gura adorau, ezpada Jangoiko egiazkua. Beriala kaldeotaarrak adierazo eutseen Erregeri zer igaroten zan, ta deiturik bere aurrera, dirautsee euren izenakaz: Egijai da Sidrach, Misach, ta Abdenago nire Jangoikuak ez dituzuna honreetan, ta adorau bere ez imini dodan estatua? Begira bada, baldiñ orain barriro soñu jenero guztiak entzunda adoreetan ezpadozu, hordu atan bertan, sartubak izango zara Laba gorijan. Ta zeiñ Jangoiko da nire eskutik librauko zaitubana? Esan eutseen iru mutill gaztiak: Ez da konbeni onen gañian guk zuri erantzutia. Guik adoreetan dogun Jangoikuak badauka eskubidia, nai badau, dala laba goritik, dala zure eskubetarik libreetako, baña alan egiñ gura ezpadau bere, jakin egizu Errege, ez zure Jangoikuak, ez estatua ori adorauko ditugula. Aserraturik Errege sartu eragin zituban laba gorijan. Baña, Oh Jangoikuaren probidenzia! Urreratu orduko, labako subak kiskaldu zituban eurak sartutera eruezanak, ta iru mutill senduak subaren erditik, erre baga, alabau ta bedeinkatuton ebeen Jangoikua. Dira Eskritura Santako jazoeraak. Zetarako bada egiten ez ebeen beste gustijak egiten ebeena? Soñubak, ta andi ta txiki, gustieen exenplubak konbideetan zituban; su gorijk, ta Erregerik gogreenaren agiñdu, ta berbiak zematuton zituban; zegaitik bada diñot



oneek, ta leen aitatu ditudan justu gustijak, egiñ ez beste jentziak egiten ebeena? Ezin eukeelako arimaak galdu baga, ta leenago dalako bizitzza, osasun, senide adiskide, ta gauza gustijak galduzia, pekatu egiñ baño. Kristinaubeen Historijaak dagoz onelako exenpluz beteta, ta alperrik da lutzatutia, egunoro irakurri, ta entzun deitekezan jazoeraakin. Lelleengotik izan da Kristinaubeen espiritu San Pablok ondo enkargauba, ez bat egitia munduko usadijo geistuakaz. Orregaitik Zezilio Jentill, ta gure Erljinoiaren arerijo andijk burlaz zirautseen leleengo denporeetako kristinaubeei; zebek beti zagoz billdurez. Galerazoten deutseezuz zeuben burubei dibersinoe onak. Ez zara juaten komedjeetara; ez zara ikusten fiesta, plaza, ta onelako olgantzeetan; Geroko esperantziagaz, isten dituzu luurreko atseginak. Beraz kristinaubak ez eutseen jarraitutenean mundukueen oitura nasai? Beraz ez ziran juaten komedija, fiesta, ta olgantza izeneko peligrubetara? Beraz gerokuaren pozian isten zitubeen oraingo atsegin deungaak? Oh, eta zelan oraiñ damu ez dabeen Zeruban!

LUISEK: Ez neban uste aita ainbeste jakituria zeunkanik, jarraitu egizu erantzuten asai dozun moduban.

AITAK: Bigarrenera: Gaztiak olagau biar dabeela; ez diñot ezetz. Gaztiak, ta zaarrak daukee libertadia olgeetako, Jangoikua ofendiu baga. Asko olgeetan dira, kaza, pelota, palanka, boleeta, ta beste joko modu, interes gitxian dibertietan dabeenetan. Beste neskatilla batsuk, alkargazko pasio, konbersazinoe garbi, eureen arteko diru gitxi karteeta, ta onelako gauzeetan. Probetxu on dakijuela, Jangoikua ofendiu, ta arimako kaltebagaa olgeetan diranei. Ez dau iñok eureen kontra berbarik egiten. Zer esan gura dau bada gaztiak olgau biar dabelako lelo orrek? Ez daguala beste olgantzarik erromerija, fiesta, dantza, ta alkargazko saltsa orreek baño? Guzurra, enzun dozun moduban. Ez daukazula askok afizinoerik beste dibersinoetara? Ahi! Ardaora emonak galdu oi dabee gustua ur garbirako, alan lurjuria, ta amore geistuetara etsigijak, galduen dabee gogua olgantza inozenteetarako. Dantza utsera afizinoia badauke, zegaitik egiten ez dabee mutillak mutillakin, ta beste leku baten neskatillak aparte? Zegaitik dabiltz beti naaste erromerija, ta fiesteetan? Naturaleza, jenijo, ta gauza gustijak eskatuten dabeela esan lei, mutillak alkargaz dibersinoe jeneruak eukitia, ta beste batsuk neskatillaak. Ume inozentiak agertutenean dabee, jenijuaren desbardintasuna. Zegaitik bada gero azita, pasinoiak biztutas, gura dabee gustija naaste, alkargaz, ta saltsaan? Zer esango dozu, mutill batek badiño, ni ezin olgau nas mutillakiñ? Ez leuke merezi, albalitz, kendutia mutillaren izatia? ta bardin esango ez da

neskatillaak gaitik? Ahi! ondo diño jakitun andi batek, kendu beti lurjuria, ta amaitu ziran oraingo fiesta modubak.

LUISEK: Ez dauka orrek zer eragiñ geijago, aituta dago nasaitasuna estaldun gura dala, olgantziaren izenagaz.

AITAK: Irugarrenera: Zetarako kendutenean ez diran, aiñ peligrosuak badira; diñot, dagozala okasinoe batsuk kendu leitezanak, ta beste batsuk kendu ezin izan diranak, edo beintzat, kendu ez diranak, leku gustietan. Justizijakuak daukee obligazinoe estuba aleginez kenduteko okasinoe, ta eskandalu andi, ezagunak; baña kendutenean ezpaditubee, edo ezin dabeelako, edo obligazinoiagaz kunplietan ez dabeelako; zer atera deiteke orretatik? Libre dala luurreko justizijako gizonak isten dabeen gustija? Erri askotan itxi izan ditu justizijak etxe ezagunak, zeintzubetan bizi ziran neska publiko, ta eskandalosaak; baña ze kristinauk, fedia galdu baga, esan lei, libre eukala juatia. Etxe atara pekatu egitera, justizijak isten zitubalako? Etorri biar dabee eskandalubaak ziñuan Jesu Kristok. Munduban bada ez dira iños faltako okasinoiak. Gerria da munduko gizonaren bizitzia, diño Job santubak. Ezpalego gerra, ta okasinoe goituterik, ez legoke ainbeste merezimentu. Okasinoiak itxi, ta goitutian dago biktorija, ta emendik irabazten dira Zerurako sari andijk. Jangoikuak leleengotik itxi zituban gizonaren borondatian, ona, ta txaarra, nai eban bidiari jarraitu egijon. Batzubeentzat daukaz geroko sari amai bagaak, besteentzat kastigu betikuak; baña ez deusku kendu gura libertadia nai dogun moduban bizi izateko. Orregaitik Jangoikuak isill isillik permitietan ditu okasinoe, ta eskandalubak, aukera edo eskojija izan daigun nai onerako, nai txaarrerako. Onetan dago bada gure irabazi andija; bide, ta okasinoe txaarrak begileen aurrian euki, ta desprezijau, ta itxiribide zuzenei jarraitutian. Zorionekuak izango dira tentazinoiak Jose, Susana, Ines, Polonia, Nizetas, Tomas, ta beste askorentzat, goitu zitubeelako, ta munduko gizon, ta emakumeen pekatuko lazubak sendotasunak andijeenagaz urratu zitubeelako. Izan ezpalitubee tentadore, ta okasinoe gogorrak zer goitu, ez eukeen gaur ainbeste gloria Zeruban. Baña zorigaitokoa tentazinoe modubak eurak, Dina, Tamar, ta beste arima argaleentzat, jausi ziralako pekatuko lazuban. Alan izango dira zorionekuak dantza, fiesta ta okasinoiak eurak, isten ditubeeneentzat, Jesu Kristori jarraitu, ta garbitasuna gordeeta arren. Baña zorigaitokoa, darreraeneentzat itxu itxurik mundubaren bide nasai, ta pekatukuei. Ez da bada zetan pensau, ez dala izango okasinoerik; mundubak beti dei egiñ, ta konbidauko gaitu bere labankerijaakaz, ta bakotxak erremedijau daizez beretztat okasinoiak, alde egin, ta desprezijaubagaz. Egiña da Justizijakuak asko erremedijau, kendu, edo gitxitu lei-

jeezala, ta askok egiten ez dabela. Egija negargarrija da justizijako ta beziño askok, biztu, ta mobietan ditubeela fiesta zorrigastokuak, ta biar bada sazerdote, izen santu au merezi ez dabeenak, konsejari izaten dirala ataroko, baña Jangoikuak ez dau iñor itxiko bere obligazinoien kontuba artu baga; konpliuko dau bere berbia, juzgaubagaz justiziaak eurak; ta sazerdoteei bere eskatuko deutsee Jesusen odol garbijaren errazoa. Baña esana esan: bestiak erremedijeetan ez dabeen gatxa, bakotxak erremedijau beraigan, ta bere kargura daukazanetan.

LUISEK: Orain ezagututenean dot, mundubak ez dabela galduen inor berak gura ez dabena. Ez dala zetan erruk munduko okasinoe, ta tentadorei. Arima senduak ateraten dabeela gloria andija tentazinoietatik, ta izango dirala eguneen baten argaleen kontrako testigu gogorrak.

AITAK: Laugarrenera: Simpletzat eukiko ditubeela, burla egingo deuteela. Diñot: mundutaarrak beti daukeezala simpletzat eureen bizi modubari jarraitutenean ez deutseenak. Orregaitik Jesusen diszipulu egiazkuei beti emon deutsee izen au. Baña, miiñagaz alan esan arren, eurak sinistu ezin leijeen gauzia da au; ta neure ustez, esaten deutsee iñori, eurei esan ez dekijueen. Zer da simplezia? Da esan, pensau, edo egitia sustanzia, edo gatz bagako gauzaak, ta zentzun argijagaz ondo ez datozanak. Ta ibillera esandakuez kaporako gauza gustijkak ete dira sustanzia, edo gatz bagaak, ta zentzun argijagaz ondo ez datozanak? Oh, zelan esan leijueen onei, Job sdantubak bere konsejaritzat etorri jakozanei esan eutseezan berba modu batzukin!

Beraz zuben artian dago bakarrik zentzun, ta jakiturija gustija, ta zubek illda sepultauro da zeubekaz! Oh antxiñako filosofo, leku aparte ta bakarreen billa zenbizaran biotz, ta gogo baketsubakaz zentzunak argitu, ta jakiturijaz aberastute arren! Zegaitik nekatu ziñan alperrik, ezpadago zentzun argi, ta jakiturijarik bakartadian, ezpada plaza, fiesta, ta munduko olgantzearan? Baña guazan beste errazoe batzubetara. Ikusten da gaurko egunian persona bat irakurtera emona, eleisa, ta sakramentu zalia, arimia garbi gorde nai dabena peligrubei iges eginda; diñuee beriala munduko juezak, simpletu, edo txotxatu jako oni. Beraz esan biar da, dirala gatz, edo sustanzia bagako gauzaak, liburu onak irakurtia, eleisa, ta sakramentu santubetara sarri eldutia, peligrurik apartau, ta erretireetia.

Ta sinistu daike iñok au? Jesu Kristoren denporatik ona, ze santu, eleisako doktore izan da, enkargau ta konsejau ez deutseenak kristinaubei, erretiro, modestija, sakramentu, ta gauza santubetara aintzat sarrijeen eldutia, ta arimako salbazinoia beste gauza gustijkak baño ardura geijagoz billatutia? Ta esan lei iñok, santu ta doktore gustijkak ibilli dirala sin-

pletu nairik kristinaubak, ta eurak bere alan izan zirala? Ez dabee eurak bere onelakorik sinistuten, ezpada, nai litukee eureen simplezaak estaldu, iñori esanagaz, edo gustijkak eureen moduko egiñagaz. Bada zeintzuk dira mundubaren seme alaba zentzun andiko oneek? Arako mutill dotoare, dama pausuba ikasi ezinik dabiltsanak; eureen burubei lantzian beñ begira dagozala; emakume arterik emakume arte dabiltsanak; eurak baga pausurik ezin egin dabeela, bazter zurkulu, ta bide gustietan eureen zain dagozanak? Arako mutill-gizon aitubeen aurrian, zelan berba egin ez dakijeenak, ta emakume zoro batzubeen artian, biar bada eurak baño kopla, ta barriketa geijago konteetan dabeenak? Edo dira, arako neskatala, apaindurija dabeenak eureen gogo, ta biotzetako idolua; denpora geijago igaroten dabeenak jazten, ta uliak arrotutzen, konszienzia examineetan baño? Edo, arako etxetik urten da fiestara doiazanian alkarri itandutenean deutseenak, ondo ete daukeezan eureen burutik beerako soñak; bazarretara begira dabiltsala, iñok begiratutenean deutseen? Ze konbersaziuneo importanzia andiko igaroten da eureen artian? Nok eukan soñeko obia, nok barrija; nok egin dabean aurrezkuba, nor atera dabean, ta oneen ondoreengo murmurazinoiak.

Ta oneek dira zentzun aiñ argijeen frutubak? Ala dira umekerija lotsagarrijak? Edo, ete daukeez errazoezko egitadatzat, arako plaza, ta dantzeetan alkarren artian egiten ditubeen salto, ijutika, ta leenago esan nituban errokerijaak? Ez da erraz sinistuten. Orregaitik pasinoiak asko itxututenean dabee, ta jazotenean da gero Salomonek diñuana; nor bera tonto edo sinplia danak, beste gustijkak aintzat oi daukazala. Ez dira istekuak emen jakiturijako libururban Espiritu Santubak dirauskuzan berbaak. Pekatarijak, diñio, eguneen baten, zurturik, arima justubak irabazita daut-keen glorijagaz, damuturik, ta negarrez esango dabee Infernuban. Ahi! Oneek ziran guk denpora baten burla ta barrez erabilli oi genduzanak. Guak gatz bagaak, geunkan simplezatzat eureen bizi moduba, baña arazelan oraiñ konteetan diran Jangoikuaren semineen artian, ta santubakaz dan eureen suerte, edo egoeria.

Beraz aldendu giñan egiazko bidetik, ta kansaurik nasaitasuneko bideetan, ez genduban ezagutu Jangoikuaren bidia. Ze probetxu atera genduban soberbijatik? Gustija igaro zan kerizia legez. Ahi, artuko balibtube ondo goguaz berba oneek mundua, eureen zorakerije, ta nasaitasunei alde egiten deutseen gustijkak simpletzat daukeezanak!

LUISEK: Neure ustez eriotzako horduban ezagutuko da iños baño obato egitada, ta gauzeen baliju. Errazoezko obraak poztuko dabee, ta errazoiar kanpotiko simplezaak tristetu. Daigun bada, bi aurkitutenean dira-

la eriotzako tandaan, bata mundutaarra, ta bestia erretirau, ta mundu gorrotokua.

Gomunteetan da leleengua, ze apaiñduba izan dan, ze buru erakutsija, ze estimazinoiak izan zituban onelako, edo alako plaza, ta lekubetan, ze dantzari ponderauba, zelako gauzaak esan, entzun, ikusi, ta egiten zituban bere, munduko olgantza, ta adiskideen artian. Baña ze poz edo kon-suelo emongo deutsee orduban alako akordubak? zer penia diñot emongo ez deutsee? Oraindik maite baditu; tristezia betiko itxi biar ditubalako; gorroto badeutsee, tristezia billdurra, ikaria egin zitubalako. Gomunteetan da bigarrena bere; zelan erretireetan zan konfesore, predikadore, ta beste jakitunak peligrosotzat emoten zitubeen pausubetatik; zelan sarri, ta albait ondueen prestauta eldutenean sakramentu santubetara entzun zituban sermoe, irakurri zituban liburu on, ta egin zituban orazinoiakaz, ta lagun onakaz euki zituban konbersazinoe, ta dibersinoe inozentiakaz.

Baña ze tristeza aurkitu daike onelako akordubetan? Ahi, zelako pozagaz egongo dan, Jangoikuaren bide santubei jarraituba gaitik! Emendik bada nik ezagututenean dot, zeiñ dan bizi modu simplia, ta zeiñ errazoe, ta juiziozkuia.

AITAK: Olan pensau, ta gauzeen balijua neurtu ezkero, ez dozu nire erakutsijean biarrik, mundubaren atxakijei eranzun, ta desprezjeetako. Orregaitik, zurtuteko gauzia da, zenbat arima argal dagozan mundubagaz katigaturik, lagun deungeen esa mesa, ta burla simple batzuk gaitik. Persona asko, geijeenak, edo gustiak ezagututenean ditubee ibillera zoro, ta lagun deungeetatik eureen arimeetara batutenean kalte andijk.

Batzuk nai litukee itxi, ta nai ez ditubee. Estututenean ditu konszenzi-jak; billdurtutenean dira sermoe, ta liburu onak entzun, edo irakurrijagaz, egiten ditubee nosbait propositubak; erretireetan dira denpora zatibaten egiten dabee konfesinoe jeneral bat. Asten dira sarritxubago konfeseetan konfesore arima zalereen bategaz; baña ahi! Eureen lelengo zorakerijean lagunak ezin sufrido ditubee, eureen uts egitiak akordau eragiten deutsee-zan, exanplubak. Neskatilla zikiñak ezin ikusi garbirik, ta bardin mutillak. Asten jakeez burla egiten. Aa sinpliak, dirautsee, bestiok bere salbau nai dogu, ez dira guk asmaubak fiestaak, abade, ta frailliak bere badira fiesta zaliak, ez dozu faltako nok absolu, ez eijo zu jaramon konfesore estu orri; geruago bere izango da denporia isteko.

Ta hai! Arima askoren argaltasuna! Onelako errazoe bagako tonta-kerija, ta aisiak daruazan esa mesa batzuk gaitik, biurtutenean dira leen ozta urratu zitubeen pekatuko lazu artera agur berba, ta propositu onak. Luza-tutenean da konfesinoia, isten jako leengo konfesoriari, billatutenean da manga-

rík zabaleena, ta orra leen baño mundutaarrago izateko bidia. Baña ez deutsee gusti jai agur egiten arimako kezkaak. Ezin aaztu dira Jangoikuaren aurrian egiñdako propositubogaz. Ezin kendu dabee gogotik, Jangoikuaren eskatuko dabela konfesoriari emondako berbeen kontuba. Jente artian alegreetan badira paska bat, bakarrian jarri orduko dator tristezia; ta jazotenean jakee, San Agustinek bere buruba gaitik diñuana, gomuntaurik mundubaren adiskide zan denporaakaz. Konszenzijako kezka, ta larritasunak naasteetan jatazan aragijaren atsegíñakaz.

Ahi, artuko balebee santu andi onen erabagia! Bizi zan Agustin munduko olgantza, ta amodijo argaletara txito lotuta. Konszenzijak emoten eutsan gerra bizi bat, begijeen aurrian ipiniñik bere zorakerija, itxutasun, ta ondoreengo tristiak. Gura eutsan itxi mundubari; baña zelako gerria jagiten ez jako beste aldetik bere biotz argalian? Diadar egiten eutseen bere barruban emakume bati eutsan amodijuak luurian eukazan entzute, ta estimazinoe andijk; dibersinoe nasai, ta olgantza zoruak; zirautseen zoli zoli: Agustin, itxiko gaituzu betiko? Alan ebilen Agustin, itxi nai, ta itxi ezinda legez mundubari. Zeruko grazijak deitutenean eban bizi garbira; ezagututenean eban bide onen edertasuna, ta ondoreengo sarijak; baña pasinoien bizitasunak, mundubaren labankerijaak, ta igaro biar zituban burla, ta desprezjuak, bere lagun mundukuetatik, atzeratutenean ebeen propositu sendo bat egitik.

Gero, gero, zirautseen pasinoiak. Egun baten, zorijonez, aurkitutenean zala bere adiskide Alipiogaz, sartu jakeen bijak egozan gelara, Ponziano eureen ezagun, ta kristinau txito ona. Asi jakeen San Antonio, ta beste heremubetako gizon birtuosueen bizi moduba esaten. Kontau eutseen, zelan soldaubeen agintari andi bik, irakurririk Santu oneen bizitzia, itxi eutseen mundubari, bakartade, penitenzia, ta humildadian Jesu Kristori jarraitute arren. Au esanda, urten eban Ponzianok. Gelditu ziran bestiak mobiuta, zurtuta legez, ta arnasa arturik dirautso Agustiñek: Alipio, neure adiskide maitia; zetan geldituko gara onezkerio? Jakiturija gitxiagoko gizonek irabazten dabee Zeruba, ta gu gabiltz aragijaren atsegíñetan jira, ta bira zikiñdutenean.

Zegaitik egiñgo ez dogu guk, bestiak egiten dabeena? Urten eban Agustinek gelatik egon ezinda, juan zan ortura, ta piko illun baten azpijan etzutenean da negarrez Adan legez. Askaturik bere begijak, erdibituko ezpajakon biotza damubaren damuz, asi zan esaten. Nos artian Jauna, nos artian izango zara beti nigaz aserre? Aaztu zaite arren nire orañ arteko nasaitasunakaz. Eta nos artian esango dot nik bijar bijar? Zegaitik orañ egingo ez dot, bijar egiñ gurako dodana? Zeruko grazija ugarijak jatsirk



bere arimara (leen esan neban legez, bere ama santiaren erregubeen bidez) alde batera urratu zituban Agustiñek mundu, ta aragijaren katee gustiak, ta jarraitu eutsan, bizitza gustijan, bere lagun Alípiogaz, Jesu Kristoren bide garbijari.

LUISEK: Zurtuteko gauzia da, esa mesa, ta egun gitxiko burla ariñ batzuk gaitik, ta urtian egun banaka batzubetan oi diran okasinoietako olganza modu oneek ez istia gaitik, eukirik dibersinoe inozente asko, imintia askok eureen arimaak kondenazinoeko arrisku aiñ adijan. Neure ustez lagun on bat, edo geijago billatutia, da biderik segurubeena, desprezietako mundukueen esa mesa, ta eureen pausu nasaijak. Alkarren pozian, alkar sendatuta, iraungo dabee sendo propositu onetan.

AITAK: Eskojidubakiñ batuten bazara, eskojidu edo esleiduba izango zara, ta deungaakiñ batuten bazara deungatuko zara diño Dabid Errege Santubak. Lagun txaarrak diran legez pesterik itxaaskorreena, zeintzubei Diabrubari baño billdur geijagogaz iges egin biar deutseegun, alan lagun onak eureen exenplu ta berbiagaz emongo deuskubee sokorrera andija persekuzinoe, ta tentazinoiak goitu, ta bizitza onari jarraituteko. Adiskide ona, diño Eklesiastikubak, sendotasun andija da, topau dabenak tesoru andija aurkitu dau. Sarri, ta uretik, enzun, ta ikusten danak, indar andija egiten dau gure biotzetan, batez bere gazte denporaan. Eiztarijakaz traiteetan dabenak, entzunik sarri erbi, eper, ta egaztijeen gauzaak, Txakurreen abilidadiak, geijeenian artuko dau afizinoia Eizera. Bardin pelotari, peskadore, ta afizinoe moduren bat daukeenakaz batuten danak bere. Orregaitik Itxasalde, marinel asko daguanetan, ume gustiak zaletutenean dira peskara. Alan bada arimako gauzeetan bere, entzuten ditubanak sarri arimako ondasun, ta eureen balijo neurri bagia, ta ikusten dabenak uretik laguneen exenplu ona, artuko dau afizinoe ta zaletasuna gauza onetara, ta aterako dau biktoriña osua mundu eruaren labankerijeetatik. Ezin bada aspertu neinde esaten: batuteko beti lagun onakin; ta geijago oraindik, iges egiteko lagun txaarretatik. Munduba beterik dago lagun txaarrez, ta orregaitik, bata bestiaren pozian jarraitutenean deutsee ekandu geistuei, jarmonik egiñ baga konszienziako kezkei. Baditubee eureen artian konsejarijak, ontzat emoteko egiten ditubeen gauza gustiak. Eureen doktrinia izanik labana, erraza, ta aragijaren erara datorrena, bera gaitik da peligrosuaga, ta iges egitekua ardurarik andijeenagaz, engañauta gelditu gura ezpadad. Ezagututeko nortzuk diran lagun onak, ta nortzuk txaarrak, begiratu eureen frutubetara. Berba, paus, egitada, edo akzinoe, ta exenplubari ondo begiraturik ezagutuko dira.

HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI IX

Ez ebeen etxe onetako seme alabaak aitatu diran fiesta ta okasinoetara juateko asmorik artutem, Jangoikuaren billdur santu, ta mundubaren gorrotuan azi ziralako. Egiña da, nai izan balebee bere, alperrik izango ebeela eureen gurasuakaz. Krijau, edo otseinik artutem ebeenian, ajustau orduko esan oi eutseen, gero murrijarik izan ez zedin, etxe atan ez zala izango libertaderik alako ibillereetarako. Osteruntzian ziran txito errukior, ta prestubak mendekuakaz. Zuzen, ta zekentasun baga pageetan eutseen soldata ona, ta zerbaiz agillandoz; Alan alkarren lejaan oi ziran serbitzarijak etxe onetarako. Krijada batí baño geijagori, ta auzueta neskatilla askori erakutsi eutseen Jaijegunetan eskolia baseerri onetako alabaak. Eskolarako modurik ez eukeen askok, astegunetako biarra galdu baga, ikasten ebeen ondo irakurten, ta doktrinia. Batzuk ikasi, ta beste batzuk poztutenean ziran, ta afizinoia geiturik ugaritutenean ziran frutu onak. Oh karidadia! Ez ebiltzan etxe onetan serbitzarijak beti arrastaka, ta tataras, esklaba batzuk balira legez. Emoten jakeen lekuba eureen erropaak astegunetan adobeetako, ta sarri etxeko alabaak luari zerbaiz kenduta adobeetan eutseezan, jakinik Jesusek ondo pagauko ebala karidadia. Beti zan etxe onetako doktrinia, pobriago jaio arren batzuk, ez zirala desprezijau biar, ta bai izan beragaitik bigun, ta errukiorrago eurakaz. Oh doktrinia askok ikasi biar leukiana! Ugazaba zeken askok, al balejeee odola izerditan emon eragingo leuskijuec otseinei. Erruki geijago daukee eureen txaalakaz, projimo triste oneekaz baño. Ez deutsee itxi gura eureen erropa pobriak konpontzen astegunetan; Jaijegunetan meza bat arrastaka entzun, edo ikusi, ta ez sermoe, ez konfesinoe, ta ez eleisako gauzarik, banakaten baño; bakarrik emoten deutsee libertadia emon biar ez leuskijueen batzaa geisto ta okasinoietarako. Oh kodizija, iños aseetan ez dana, baña munduban bere gitxi medrau oi dana!

AITAK: Okasinoe batzubeen gañian berba egiñ ezkero, ondo izango da aztertutia beste erokejia, ta lazu asko bere, zeintzubetan jausten diran arima asko. Mutil batzubeen pasinoerik bizijeara oi da ez beste bat baño gitxiago izatia. Emendik ainbeste desapijo, burruka, ta makillaka. Diñuee, ez dau gizonak gizonaren billdur izan biar. Gizonik kaskarreenari sarri-jeen entzungo jako, batez bere tabernaan izan bada; ez nas ni baten billdur. Panparreria utsa. Ez dago gizonik gizonaren billdur ez danik; sen-



dueentzat dagozanak billatuko ditubee senduaguak, ta sarri indar gitxiago daukeenak ateraten dabee biktorija burruka, ta okasinoe txatxarretan. Alako erokerija arruak, dira bada tontueen engañagarrijak. Astuetan indarra txito da estima-garrija, gizonetan leenago da juizjua, ta Jangoikuak emon badeutsa indar, ta baloria, enpliau biar ditu, bere, ta proji muaren onian. Gizonari billdurrik ezpajako bere, izan biar jako Jangoikuari, zeñek kastigauko dituban onto gizaseme arro, ta burrukarijak. Jesu Kristoren doktrinña txikitatik ikasi doguna da parkatuteko proji muari egiten deuskuzan injurijaak. Balore geijago da au egitia, goitu biar dalako geure biotze-ko pasinoe bengau naija, atzamarka aldi bat egitia baño. Onetan balego baloria, esan lei, itxas alde askotako atsuak baño ez daukala iñok balore geijago, zerren ez daguan iñor prestago eurak baño burrukarako, ta esku- ban daukeena edozeni jaurtigiteko. Ez da bada emon biar iñori okasinoe-rik, ta emoten badabee, alde egizu andik, tontuakaz buruba bat egin baga; alabauko zaitubee juizjua daukeen personaak, ta zoruak esan daijeela nai dabeena. Soldaubeen artian ezpada kobardija erretireetia jeneralak aginduten dabenian, zegaitik izan biar dau kristinaubeen artian, okasinoiari alde egitia, Jesusek agindu ezkero? Oh fediaren oztasuna! Mundubaren lege zorigaitokuak! Badira benetako okasinoiak, zeintsubetan gizonak agertu biar daben bere baloria, Jangoikuaren honriak eskatuten dabenian: gerra justubetan. Baña zer jazo oi da geijeenez? Plaza, taberna, ta bazte- rretan arrokerijaak botaten ditubeenak, leleengo espaldaak erakustia batalla, ta okasinoe andijetan; agertutenean, biotz zital, ta ernegaubak dirala egokijak burruka, ta okasinoe txatxarretarako, baña ez balore egii- jazkua biar danerako.

LUISEK: Errazoe argi, ta ziurrak dira orreek, baña nai neunke entzun xenpluren bat, obato aituteko.

AITAK: Ara bada Eskritura Santaan daukazuna. Filisteo gogorrak artu ebeen gerria Israeltarreen kontra. Exerzitu bijak aurkitutenean ziran alkarrir begira, baña eskubetara eldu baga. Denpora onetan Goliat esaten eutseen filisteuen arteko gigante ikaragarri bat agertutenean jakeen egunoro israeltarrei eureen aurrera, zirautseela desapijo, ta burla andijk egiñik, urten egijola berari nai ebanak, ta baldin israeltaar batek goitutenean beeban, filisteuak menderatuko zirala; baña berak goitutenean beeban, Israelek izan biarko ebala filisteuen mendian. Saul Israelgo Erregiak egiñ zituban eskintsari andijk, agiñdutenean ebala bere alabia emaztetzat, Goliat goitutenean ebanarentzat; baña, ez exerzituban, ez andik kanpora aurkitutenean eban, billdurtutenean ez ebeenik Goliaten anditasun, inadar, ta armaak. Askoren eretxian, bere armaak piseetan ebeen berreun, ta irurogeta amabi libra

sendo. Dabid pastore gaztiak, jakinik zer jazotenean, ezin sufrido eban filisteo arro, ta Jangoikuaren arerijuak, Israel, ta bere erlijioe santiari egin gura eutseen burlia. Eskini zan bida bera bakarrik urtetera Goliaten kontra; ta animeetako, esan eutsan Erregeri. Jazo jat nosbait, ardiak zaindutenean nenguala etortia artza, edo leoia, ta oraturik itotia neure besuen artian; zegaitik egingo ez dot beste arenbeste Jigante orregaz? Arturik bida makilla bat, ta bost arri, urten eban desapijoko lekura. Ikusi ebanian Goliatek Dabid mutill gazte, gorri, ta aiñ ederra, gerra usaineko arma baga, burlazko erruki modu bategaz esan eutsan. Uste dozu, nasala txakurren bat makilla orregaz joteko? Erdu ona; laster prestauko dira zure aragijak txorijeen janari izateko. Baña Dabidek ikaratu baga, imiñirik konfiantza Jangoikuagan, bere ondiagaz jaurtigaz eutsan arri bat, ta bekokijaren erdijan iota ezarri eban luurrera, ta azkenik bere ezpatiagaz ebazi eutsan buruba. Aillaginako alabantzaak emon eutsazan Israel guztiak Dabidi, zeinda Erregia sartu zan bere kontra enbiditza andi baten. Ez eutsazan kunplidu bere berbaak, ta imiñi eban soldau batzubei agindutenean peligrurik andijeenetan illgo ebeelako ustiaz. Ikusirik, beti urteten ebala ondo Dabiden balore bardinik ez eukanak, esan eutsan, baldin gura bee- ban bere alabia emaztetzat, ekarri biarko eutsazala eun filisteo illdakueen señale ziurrak. Kunplidu eban Dabidek aginduba, ta goguaz kontra bere Saulek emon eutsan alabia esposatzat. Ez jakon bizitzaz guztiak gitzitu baloria Dabidi, ta irabazi zituban batalla andijetako biktorijaak, beti izango dira munduko soldaurik sendueneentzat exenplu animagarrijaak. Ete da oraiñ iñor esan daikianik, Dabid zala billdurti, edo kobardia? Begira bida zelan ekijan proji muaren injurijaak parkatu, ta okasinoe txatxarrei alde egiten. Bein baño geijagotan Saulek bere eskubakaz ill gura izan eban, ta jaurtigaz eutsan lantziagaz, baña Dabid ez zan balijeetan bere indar ta baloriagaz jarkiteko Sauli, ta bai bere oñakaz iges egiteko okasinoetik. Igese ebillen bida Dabid geisua, ta Saul ondorik persegietan, ta igarotenean zala bein Dabid ezkutauta eguna leku batetik, ezpatiagaz ebazi eutsan erropiaren paska bat, ta aitutenean eutsan gero Sauli bere biotzeko prestutasuna, ez ebalako bengau gura izan beragaz, eukirik okasinoe ezin obia. Beste okasinoe baten Saul ebillela Dabid persegietan iru milla soldaugaz, euki eban onek moduba gau illun baten sartuteko Abisai bere lobia, Saul lotan eguna gelara. Asi zan Abisai ebazi nairik buruba Sauli, baña galera eutsan Dabidek, ta bakarrik artu eutsazan Sauli señaletzat bere almuadiaren onduan eukazan lantzia, ta basua: urten eban gero mendi batera, ta asi jakon esaten Abner Saulen jeneralari; zegaitik ez eban obato egiten Erregeren guardia, bida bere ardurarik eza gaitik artu

eutsezala lantzia ta basua; diadar egiñ eutsan Sauli bere, zirautsala: ez dakit Errege, zegaitik persegietan dozun gizon añi leijala, baña Jangoikuak mobietan bazaitu nire kontra, kunplidu ditiala zure guraarijak, ez dot gura, ezpada bere gustokua izatia nire bizitzaren sakrifizjua. Orregaitik, erre-gututen deutsut, ez daizuzala loitu zeure eskubak nire odolagaz, zeren Jangoikuak, zeñi imiñten dodan neure inozenzijaren testigutzat, artuko daben bere bengantzia; bialdu egizu ona norbait, zeure lantza, ta basuan-en eske. Beste beñ semei esaten jakon gizon zital batek, injurija, ta lotsa-bagakerijaz bete eban Dabid, azkenik arrika egitera agiño; Abisaik bengau gura izan eban bere ezpatiagaz, baña atzeratu eban Dabidek zirautsala: itxi egijozu bakian; Jangoikuak alan permitietan dau, ta berak biar bada emongo deust bendizinoa maldizinoe orreek gatik. Beste jazoera asko oneen irudíkuak irakurten dira bere bizitzako Historija, ta beste gizon andi askoreneta. Onenbestegaz ezagutu deiteke, nosko dan baloria, ta projimuari parkatu, ta bere okasinoetik alde egitiak, ez dabela galduen, ezpada geitu, gizon sendo, ta biotz andikueen honria.

LUISEK: Izanik Jesu Kristoren agiñduba arerijuak maitetuteko, deun-garo egiten deuskubenei ondo egiteko, zelan ikusten da Kristinaubeen artian ainbeste errieta, alkar ikusi ezin, auzi temazko, ta enbidija, etxian, auzuán, senide, ta osteruntzekueen artian? Ez da asko Jangoikuak agiñ-dutia, obligauta egoteko gu edozer gauza egitera? Jangoikuak, ez ete deus-ku guri geijago parkatu biarko, salbauko bagara? Ez ete deutsagu egiñ iños injuriarik? Ta parkatuten ezpadeutsagu projimuari; zelan esan gina-i-jo, parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunei parkatuten deu-segun legez?

AITAK: Ori da txito premiña andiko doktríña, txikitatik ikasi, ta bio-tzian ondo sartuten ezpada, gero nekez gordeko dana. Zenbat familja, ta persona daukaz lazauta Diabrubak zorigaistoko benganzako kateiakaz? Au egiñ deust, bestia esan dau ni gaitik, ta onelako atxakiaakaz, edo guzu-rezko kleituba asmo artuta, sartuten dira kristinau argalak benganzako, ta gorrotoko sarian. Sentimentuba artutia, txaarto egiten deuskubeenian, naturala da, ta ez da berez pekatu. Goitutia sentimentu au, errazoe, fede, ta grazijaren laguntasunagaz, da merezimendu andiko gauzia. Onetarako da txito ona orazinoia, batez bere arerijuak gaitik erregututia; geure peka-tubakiñ, ta Jangoikuaren pazienziagaz akordetia; konsidereetia zetarako dan pazienziña, baldin gustijak ondo esan, ta egiñgo baleuskubee; guk baño obiak bere izan ditubeela persekuzinoe, ta arerijuak; alan egiten ezpada, sentimentuba errazto igaroten da projimuaren amodijo boronda-tekuak galdu, ta gorroto egijazkora; ta oneek beti dira pekatubak. Oh

Jesus, gure amorez, ta gure pekatubak gaitik kurutzian josija! Zer egin leigu projimuak, zure izenian parkatuko ez deutsagun gauzarik? Ta alan egiten ezpadogu, zer kontu emongo deutsagu bere odol garbijari? Eri-tzako horduban gustijak asi oi dira esaten, betor urlja, edo berendija, bakiak egiñ gura ditut, parka eske naoka mundu gustiari; zetarako bada egon kristiñaubak, eurak dakijeen estadu txaar gorrotokuan eriozara artian, ez instante baten bertan? Baña begiraturik beste alde batetik gauza oni, erreparau egizu, zelan aserratuten danari berotuten jakon odola, mudau koloria, ta illundu errazoa, ta alan aserriak tontotutuen dau gizona, beintzat koleriak diraaban arteko. Orregaitik, filosofo jentillak eurak, eza-guturik egijja au, itxi deuskubeez exenplu guretzat lotsagarrijak. Aenado-ro filosofuak emon eutsan konseju Augusto Emperadoriari, ez iños ezer agiñduteko, aserre, edo koleraan iguala. Ondo ekijan, aserriaren bizitasu-nak okertu, ta laiñotuten ebala errazoa. Legiak imiñi, ta juizijo osua eska-tutuen dabeen gauzaak egiteko. Baña Sokratesen exenplua da txito egoki-ja aituteko, zelan persona juiziozkuena dan gordeetia biotzeko bakia, ta pazienzia, aserratu baga esa mesa, ta injuriheetan. Errazoez esan oi da, personariak urkuaren injuriaak dirala gatxeenak eruaten; ta ara zelan portau zan jakitun au bere urkuenagaz. Eukan emazte bat, luurrak biar bada eukan zitaleena, ta sugiaren eztena baño miñi zorrotzagokua. Ezin azertau eban, ta egiñ ala gustia, ditiana zan okerra emakume onentzat. Betti zirauntsan Sokratesi, asmau alako esakunerik deungeenakaz; baña onen biotzeko pazienziak ez eban zirkiñik egiten. Egun baten, berak esan, ta berak ernegau, ikusirirk senarrak jaramonik egiten ez eutsala, artu eban txarra bete ur zikiñ, ta bota eusan burutik beera; Orduban Sokratesek, ura erijola, ta barre egiñda, esan eban: banekijan, ainbeste trumoeren ondo-ren, laster jausi biar ebana euri zaparradiak. Ara Juan Abatak dirauskun beste exenplu bat. Mutill gazte bat jarri zan filosofo baten mendian jakitun izateko guraarijagaz. Iru urtian euki eban agiñdu, ta eragiten gauzarik baju, ta humildeenak. Beste iru urtian agiñdu eutsan, ez bakarrik pazien-zijaz igaroteko egiten eutseezan injuriaak, ezpada emoteko sariren bat injurija egiten eutsan gustijari. Ikusirirk kunplidu ebala, esan eutsan: orain-txe zagoz prest jakituri jaikasteko, ta erdu neugaz Atenasko Eskolara; ziudade onen sarreraan eguna filosofo zaar bat probeetako estudijora juaza-nak, ta au oi zan injurijaz beteetia. Urreratu zaneko bada mutill gaztia, asi jakon aguria burla, ta desprezijo andijk egiten, ta mutillak, bat bere ase-rratu baga, egiñ eutsan barre; aguriak geitu zituban asmau alako injurijaak, ta mutillak beti egiten eban barre; horduban dirautso aguriak: adiskidia, zer da ori? Nik zuri ainbeste burla, ta desprezijo, ta zuk beti barre? Eran-



tzun eutsan: Iru urtian oituta nago injurija egin deustan guztijari zerbait emoten, zuk dugarik egiñ deustazuz? ta zelan egiñgo ez neban barre? Oraïn bada diñot nik: filosofuak jakiturijaren amorez ainbeste pazienzia, ta mansotasun erakusten beebeen guk Jesusen amorez, ta zeruko betiko atsegineen pozez, zer egiñ biar ez genduke? *Pazienzia biarra da, diño San Pablob, Jangoikuaren aginidubak gorde ta bere betiko eskintzariak irabazteko.*

LUISEK: Irakurri ditut neuk bere pazienzia, ta parkazinoeko xenplu txito asko, ta andijkak, San Krisostomo, Atanasio, Marino, ta beste askoren Historijeetan, baña ez nas oraïn zurtutenean, ikusirik, ze ispilla ederrak itxi deuskubeezan filosofuak, errazoiaren argijagaz balijauta. Zer izango zan, euki balebee oneek fediaren argitasuna? Oh zeiñ testigu gogorrak izango diran gure kontra eguneen baten!

AITAK: Neskatilleen artian pasinoerik bizijeari oi da burubak erakusti naija, ta onetarako lagundu oi dabeen apaïndurija, ta banidadia. Banidadiaren izenak esan gura dau, ezerbere-ezkeria, ta emen esan deiteke engañuba. Ta egijaz, banidadia da, edo ezaintasunak eztalduteko, edo dan baño edertasun andijagoko bat begitandu eragiteko. Ta zer da au ezpada engañuba? Jangoikuak emondako itxuriak ez dau apaïndurija biarrak, dezenzia baño. Baña ez izanik bardiñak itxura gustijak, emakume itxura txaarrekuak, ta enbidiosaak, asmau biar ebeen zerbait, bestiak baño ezainagotzat iñok euki ez egizan; zaar, edo naustubak bere, ez dabee gura iñok aintzat eukitia, ta gustirako dauka trantzia banidadiak. Daigun kontu: ulia zuritu bada, imiñi peluka gorri bat; murrija badago, arrotu irriime, edo sartu beste baten ule-zati bat ta alan beste gauzeetan. Emakumeen kondizinoia da, ardiarena legez, bat igarotzen dan lekutik bestiak igaroteko. Batek imiñi dau onelako modako jantzia, diño bestiak, neuk bere biar dot ak beste. Alan dua zabaldubaz banidadia, ta sarri indezenzia. Diabrubak ez dau lorik egiten, putz emoten deutsee, bata baño bestia arruago jarteko, ta eurak atarako prest egonik, egiten dau sarri nai dabena eurakaz, ta eureen bitaartez beste askogaz. Señora apaïndurrijaz beterikoa bat juan zan beïñ konfeseetara erlijioso on bategana; esan eutsan onek; andria, bitxi, ta jantzi arro orreek dira lazu batzuk, zeintzubekin Diabrubak ostuten deutsazan arimaak Jesusi. Zurturik emakumia berba oneekaz, erantzun eutsan: Jauna, aurkitutenean bida nigan Diabrubaren gustoko gauzarik, itxi beit oraintxe kendu daidan, ta au esanda jausi zan luurrera. Agertu zan beriala keriza baltz, ta ikaragarri bat, ta ikusten ez zan esku modu bategaz, kendu eutsazan apaïndurija laarregijak, isten ebala dezenzia utsagaz, ta entzun zan diadar andi bat ziñuana; oneetxek dira lazu, ta sariak, zeintzubekin lotutenean arimaak neuriaz izan ditian. (Aitu biar da apain-

durija laarregi, ta dezenzijaren kontrakua gaitik). Eta egijaz, ze kaltiak egiten ez ditubee Jesusen arimeen artian emakume arro oneek? Ez dira apaïndutenean ezkutuban egote arren, ta bai gizasemeen artian ibilli, edo eurene begijei eskintze arren ikusgarritzat. Neure begijak ostu deust neure arimia, ziñuan Jeremiasek, beste gauza baten gañian. Ta ahi, zenbat jazotan jakon egijaz, baldin, Salomonek dirautseen legez, igeres egiten ezpabadee alako emakumiak ganik! Moabgo Erregiak, israeltarrok ezin goiturik, Balaan profeta deungiaren konsejuz, bialdu zituban emakume arro ta apaïndubak Israelgo exerxitubeen artera, soñu, dantza, ta asmuakaz, okasinoe emotera; ta nok esan, negar egiñ baga, indar geijago euki ebeela emakume arruak israeltarrok engañau, ta galdueteko, Moabgo exerxitu gus-tijak baño! Banidadia da soñu, erreklamu, ta señale bat legez, batuteko alkarreregana mundubagaz gozatu nai dabeenak. Emen gomunteetan jat jakiturijako liburuan irakurten dana. *Erdu, esan eutseen pekatarijak alkarrri, erdu ta gozatu gaitian luurreko atseginetan, ez dekigula igaro denporiaren loria. Imiñi daiguzan larrosasko koroiak sikatu baño leenago. Ez dedilla gelditu zelairik zeñetara igaroko ez dan gure luijurija. Ez dedilla gure artian iñor izan luijurijatik libre; itxi daiguzan leku gustietan geure alegrijaren señaliak. Geure indarra izan dedilla justizia. Azipiratu daigun justuba, geure egitadeen arerijua dalako, ta emoten densuzalako arpegijan geure pekatubak. Alan pensau, ta uts egiñ ebeen, itxutu zitubalako eureen malizijak.* Ahi zenbat emakume arro, ta eurakaz dabiltzan mutillakaz jazotenean au berau gaurko egunian! Ez dago begiratu baño eureen ibillera, ta bizi modubari. Ara azkenik, zer dirautseen Jangoikuak, Isaias profeta santubaren aoz, emakume banoseei; jagi ziralako laarregi Siongo alabaak, ostikopetuba izango da eureen soberbia, billostuba apaïndurija, ta izango ditubee tormentubak bitxi, ta usaiñ gozueen ordiaz.

AGEDAK: Baldiñ emakumeetan eureen arintasunaren señalia bada moda ta banidadiari jarraitutia, txito burlagarrrijak izan biar leuke gizonezkuentzat. Baña oraïn, euretatik asko, ikusten dira emetuta legez jantzi-jan. Sofíekuak josi, edo ebagi biar diranian, ezin azertau leiz mutill batzuk. Ez dabee ezer gura leenagoko usuban, ta naijago dabee franzes modura jantzi, guraso Bizkaitarreen modura baño. Nik ikusi ditut emakume asko, burla ta barre atzetik egiten alako mutill dotoreei. Alan ezagutuko bagenduz geure argaltasunak, zeiñda iñorenak! Baña esakunia da, bakotxa bere zoruak bizi dabela.

AITAK: Ez bakarrik laarregiz uts egiten dabee emakumiak jantzi-jan, leen esan dan moduban, baita gitxiegijaz bere nosbait. Ez diñot ezer arako neskatilla nasai, beso gustijak billostuta, idunak edegita, eureen zikiñtasuna zabaldu nairik dabiltzaneen gañian. Oba da ez aitatuteko eureen lotsa-

bagakerria. Bakarrik bai, arako neskatilla, ta ez gitxiago emakume ezkon-dubak gaitik, zeintzubak etxian, edo biar gintzeetan agertutenean askatasun andi bat eureen jantzi, ta oni jaokazan gauzeetan. Ezin esan lei gustija, ta ez dot uste malizijaz askok egingo dabela, baña bai ardura-bage-tasunaz. Jakiñ biar da bada, emakumiak euki biar dabeela ardura andija, biarrian, nai etxian egon arren, erabillteko pañuelo albait osuena, ta orra-a-tzagaz ondo eztalija. Alan beste erropa gustija bere, zaarrago izan arren, adobauba, edo eztalgarria. Zaarrak ez dauka lotsaarririk. Konponduba da emakumiaren honragarria; aiñ bagiak agertutenean dau emakumeen alper-tasun, ez jakin, ta ardura bagetasuna. Ez dabee erabilli biar erropa laburre-girik, ta koloria, bastuago izango bada bere soñekua, izan dedilla honestua. Onenbestegaz aitu dake nai dabenak. Emakume, seiñtxubei bularra emoten dagozanak, iminiñ biar dabee beraarizko kuidadua ondo estaldutian.

LUISEK: Gauza askori eragiten deutsazu. Aita, zuk jakiñgo dozu guk baño obato, zeren premiñia daguan, ta orregaiti gurako gaituzu kontuban iminiñ.

AITAK: Oraiñdik gauza asko legoke zeri eragiñ, baña Zubentzat askoko da iraitzian legez ikututia. Baseerritarreen artian bere oi dira tratu, ta artu emonak. Tratu asko dagoz, zeintzubak lizito diran, edo ez diran era-bagiteko, gizon aitu, ta letra andijetakuak bere, zer pensau asko oi daue-ken. Alan emoten deutsut konseju, tratuba, klaru klaru garbia ez danian, itunduteko konfesore jakitun, edo beste persona aitu, ta konszienzia one-koren bategaz, ta bere esana egiteko. Au da, ez jakiñ, ta utsegitiak erre-medijeetako modurik oneena. Interesak asko darua engañauta Infernura. Tratuba garbia bada, esango deutsubee egiñ dakezula, ta ez dozu ezer galduen itandubagaz; ezpada garbia, libreetan zara Diabrubaren lazu andi batetik. Batzuk ez oi dabee ezer itandu gura, ta emoten dabee one-tan eureen kodizijaren señale ziurra. Zenbat usurerria, edo logrerria ikus-ten ez da, ezin egin leijeezanak kondenazioiaren beian? Zenbat atxakija asmeetan ez dau kodizijk, ontzat emoteko tratu geisto oneek? Itanduko balitz jakitun, ta interesik ez daukanari, errazto jakingo litzaate. Baña batzuk ez dabee jakiñ gura, ta beste batzuk engañeetan ditu irabazijk. Beste tranpa, ta lapurreta modu asko dago, edozeñek dazauzanak. Gan-dubak saldutenean sartutenean diran engañubak; ikatzaren lekuben ilin-txaak eruatia, oleetara, nai edonora; neurri, ta pisubak ez kunplietia; ikatz examiñeetan, konzienzijak agindutenean baño geijago esatia, konbit, edo amistadia gaitik; examiñau zan baño arbola geijago ebagi, edo iñaus-tia; batian soluan, bestian bedarrian, orrijan, frutaan, auzo, edo bestela-kuei beti txitximurka egotia; erreenterubak, ugazabeen ikatzak, edo arbo-

la, ta aziendako gauzaak eureentzat saltzeia; eureen arduragabetasunez aziendaan kaltiak egitia, edo iñori egiten istia; ugazabaak, aziendari jaokan baño errenta geijago pagau eragitia, edo errenta justubaz ostian, obligetia erreenterubak, dugaik egitera, alogera biar leukeen gauzaak, balijeetan dirala sarri erreenterubaren pobreziagaz, ez daukalako nora urten, geijago kargeetako. Oneek gustiñok dira konszienziako karga errestituzinoia eskatutenean dabeenak. Ugazabaak ez dabee pensau biar, eskintsen deuteen errenta guztia artu leijeela, ezpada gizon aitu, ta konszienzia onekuen eretxian haziendiak merezi dabena. Ez da asko esatia, etorri jataz onen-bestek eskintzera. Usurerubari bere eskintzen jako geijago premiñia gaitik, baña ezin eruan lei. Nora ezeko eskintsarijok dira, ta justizieren kontra da artutia. Erreenteru batek, edonun sartu ez daukalako, edo aziendia obia dalako ustez, edo etxetik ez urtete arren, eskiniko dau edozer gauza. Beste batek eskiniko dau errenta geijago, auzo, edo norbaiti lapurretan egiñda pageetako; edo amarren primiziegi gitxiago emonda. Alan errenta andi-geijkak dira, ugazaba, ta erreenteru askorentzat, kondenazioeko bidia. Erreenterubak begiratu biar dabee ondo, pagau ete daikeen garbiro erre-nzia, ta erantzun obligazioiei, ta ezin badabee tranpa baga, ez sartu alako etxian. Euki konfianzia Jangoikuagan. Oba da eskan, edo aldau moduban garbiro bizi, arimaak galdu baño. Ugazaba Infernura juanagaz ez dabee probetxurik izango, eurak bere ara baduaz. Ugazabaak aitatu ditudan ezkerro, berba gitxitan adierazo nai neuke, zelako arduria euki biar dabeeen, eureen etxeetan egon dedin familijk eskatutenean moduko erreparti-mentuba. Negar egiteko gauzia da ikustia gela baten, edo baten legez, azi-txu egiñdako naasteko personaak. Diabrubak ez dau lorik egiten; natura-leza argalak adiña baño leenagotik agertutenean ditu bere okertasunak, ta emendik etorten dira ainbeste loikerija, pensamentuz, ta ostian, ez daki-jeenak zurtuko litzaatezan edade txito laburrian, sarri bost urtekuetan bere (alan esan eustan, munduko barri onto ekijan sazerdote batek) andik aurrera geitubaz dua peligruba. Ta zer esan matrimonijoko personaak dagozian? Zelako kuidadua biar ez da euki, oneek al bait aparteen, ta erretira-been egon ditian? Ez neuke aitatuko onako gauzarik, ezpaneki zenbat arima doian Infernura, onetan ardurarik ez iminiña gaitik. Odolez-ko malkuakaz negar egitekua da, ezkondu askoren askatutasuna, ta hones-tidadiaren kuidadorik eza. Baña sarri ugazabeen bere kulpa andija; erre-nzia artu, ta osteruntzekuari ez begiratuba gaitik; etxia biar daben, ta familiari jaokan gela, edo errepartimentubakñ ez eukija gaitik. Eta uts egite txito asko dago onetan. Erreenteru askok bere ez dau begiratutenean korta, ta



ganbara onak eukitera baño; beste enparauba utsa da eureentzat. Oh itxutasun, ikusiko ezpalitz, kristinau errijetan sinistu ezin lejana!

LUISEK: Aitatu dituzun ezkero leen amarren primizijaak, nai neuke zerbait entzun eureen gañian.

AITAK: Amarren, ta primizijaak pageetako obligazinoia oraindik Jesu Kristo jaio baño askozaz leenagotik aurkitutengi dogu eskritura santeetan. Jangoikua izanik gauza gustijeen egilla, ta jaubia, ezin iñok ukatu lei, daulkala eskubidua emoteko, gura badau, ta ez emoteko, nai ezpadau; baita bere iminteko nai dituban petxu, karga, edo errentaak, bere gauza gustijeji. Ze munduko ugazaba aurkitu giñai bere eskubidiak daukazanik? Beraz Jangoikuak agindu ezkero, pagau biar dira Amarren, ta Primizijaak. Argiruago aituteko; egizu kontu, norbaitek emoten deutsuzala eun anega gari euretatik zati bat norbaiti emon, ta enparauba zeurezat izateko. Ez zen-duke pozik kunpliduko agiñdu au? Alan bada, Jangoikuak emonik berezik, artuten dan gustija, imiñi eban obligazinoia pageetako euretatik Amarren, ta Primizijaak bere ministruei, isten euskula geuretzat enparauba. Jesu Kristok itxi eutsan eleisiari eskubidua bere ministrueen dezenzia, mantenimentu, ta tenplu, ta osteruntzeko gauza biarretarako, karga, ta obligazinoia bere mendeko kristinaubeei imiñteko. Begiraturik bada, leenago Jangoikuak agindu ebanari, ta biar zan gustijari, eleisa-ama santiak imiñi euskun obligazinoe estuba, Jesu Kristok emon eutsan eskubidiagaz balijauta, amarren, ta primizijaak zuzen pageetako, bere bostgarren mandamentuan ikasten dogun legez. Emendik ezagutuen da, amarren ta primizijaak zuzen ez pageetia dala ukatutia legez Jangoikuari bere ministro, ta tenplu santubeentzat eskatutengi deuskun zatija, berak emoten deuskun osotik; edo ezpageetia legez errrentia bere herederu ministro, ta tenplubei. Berak egingo deutsee bada eguneen baten justizia, bere mesedialak aaztuta dagozan pagatzalle txaar askori. Ez bada pensau amarren primizijaak dirala borondate utseko emokari batzuk, ezpada obligazinoe txito andi, ta estukuak. Wiclefek esan, edo eskribidu eban, amarrenak zirala limosna utsak, ta kondenauba izan zan Konstanzako Konzilijo santuban; azkenik au, ta beste utsegite asko gaitik, ill ta gero, agiñdu zan hereje onen azurrak eleisatik atera, ta kanpora botateko.

AGEDAK: Eleisako mandamentu baten gañian neuk bere badaukat zer itandu gauza bat. Ikusi dot iños, jostun edadiak obligeetan ebana, juan bere biar modura baseerrira baru egunian, ta etxeko andriak esaten, ez egi-jala barurik egiñ, ta alan baruba austen; jakin gura neuke zer egiñ alakuan.

AITAK: Edadian sartu zaitianian, lelengo konsultauko dozu zeure konfesoriagaz, zeñek esango deutsun nos, nun, ta zelan egin biar dan

baru. Gauza jakiña da, iñoren esana gaitik ezin galdu lejala eleisiak aginduten dabentzen baruba, osteruntzian obligazinoia euki ezkero; ta alakuan baruba galduko konseju emoten dabeenak, eurak bere egiten dabela pekatu, baita galduen dabeenak bere. Leenago da arimia mundukueen esan gustijk baño. Orregaitik, baserri pobre batsubetan jazo deiteke alimentu aïñ gitxiegotia, ta indar bagia, zeñida jostunak ez dituban obligauko barubak; ta orduban ez eurak galdubagaz, ta ez bestiak konseju emonagaz, egiñgo dabee pekaturik. Ez da izaten mantenimentu bardíñ erri guztieta, ez da erri bateko etxeetan bere, alan gustientzako beste errege-larik eziñ emon nei, ezpada konsulteetia kura, edo konfesoriagaz, zeñek begiraturik erriko alimentu, ta etxeetako oi daguan gitxi gora beerako diferenzijari, emongo deutseen epai ziurra; ta gero zuzen jarraitu bere esanari. Sabelak asko engañeetan dau.

LUISEK: Sabelaren engañubak aitatu ezkero, esan egizu zerbait ordikeriaren gañian.

AITAK: Ordikeriaren gizatasunaren lotsaarija, diño San Krisostomok. Ta zer gauza lotsagarri-jagorik, Jangoikuak emon deuskun errazoa galdu, ta animaliaak baño bajubago legez jartia baño? Animaliaak eureen moduban dabilz, ta gizon ordija alboruzka, begijk gorrituta, buruba illunduta, sustanziarik ezetan ez daukala. Batari emoten deutsa ordikeriak aserrera, bestiari lujurijara, bestiari jokora, tratura alperrerijara. Zenbat eskandalu emendik, etxe barrurako, ta kanporako? Juizijo puska bategaz begiratutia ordi bati, izan biar leuke beste gustieen eskarmen, ta erre-medijua. Ez dituzu iños ikusi honra, fiesta, eztegu, erija, ta eureen debozinoeko batzaurretatik doiazanian, bideetan kabiuzin dirala, prakaak jaso ezinik, berba bakotxian txistu urtika, keetatik urtenda lako begijkaz, ume gustijk bere burla egiten deutseela? Ahil! ta gizonak ekartia atara bere buruba! Baña deungeena da, ordiak geijeeenez ez ezagututia eureen pekatuba. Akordeetan nas, diñuee, orduko gauzaakaz, ez jatan galdu errazoa. Baña ume bost urtekuak bere akordeetan dira eureen gauzaakaz, errazoe argirik euki ez arren. Amesetan bere akordau oi da gauza askogaz, ta ez dago zentzunik. Konfesioe bat egiñ biar balitz alakuan, zelan egiñ ondo examiñia? Zelan ezagutu pekatubaren kaltiak, ta prestau ondo egiteko? Beste batzuk esango dabee, deskuiduan ardaauak igaro zitubala. Jazo dekijo norbaiti, uste baga, gorputz aldi txaarrengi bat gaitik, ardaauk galduzia, baña alakua ondo eskarmentauta geldituko da. Barriz ez, ekan-duz daukana. Alan deskuido oneek geijeenian batzubei jazotene jakeez, ta beste batzubei iños bere ez. Eta zelan deskuidauko ez dira, baldin, asko lekutan sartu ditianian, ezpadakijee zenbat edaaten dabeeen? Zuk nire



eskutik, ta nik zuretik, darueez edaaten hordu osuak, ta azkenik aparteetan dira alkar ordituta. Ordikerijaren beste zirkunstanzia bat da, zaarraago, ta naijago izatia. Zaarrak estamangu otza oi daukee, ta agaitik nai dabee berogarrija; baña zertxubait igaro ezkerro, estamangu otzak ez daukan legez iñdarrik, beriala igaroten jakee burura ardauren lañua; ta au ez dau askok ezagutu gura. Edanagaz berotuta, aaztuten dira urtiakaz, ta aurrera daruee sailla, baita panparrerija bere ugari. Ikusiko dituzu agura makar, iños ezetakoa abilidaderik izan ez dabeenak, edan samartu ezkerro, konteetan amesezko egitada, ta parrasterija gustijak. Oh ardaua! Zelan burla egiten dozun zeugana zaleegi egiten diranakaz! Oh itxutasuna! Ordikerijk kanseetan dau naturalezia, ta laburtu bizitzia, asko itoten dira ibaijetan, beste batzuk kolpeka amaitu bideetan, ta orregaitik ez dago eskarmenturik, ta emiendarik, Infernura artian.

HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI X

Beste gauza gustietan legez, guraso zorijoneko oneek, imiñi ebeen ardura andija, eureen seme alabeen estadubaren gañian. Jangoikuak emonda, bazitubeen ondasunak, edozein aldetatik lagunduteko eureen akomodora. Leenaz agerturik Luisek bere borondatia, eleisatik jarraituteko, ikasi eban Gramatikia. Baña jakite arren gustieen borondatia, ta artu egijeen ondo penseetako denporia, berba egiñ eutseen egun baten modu onetan.

AITAK: Antxiñatik daukadaz josita biotzian, neure seme, ta alabaak, predikadore jakitun bat entzun neutsazan berba oneek: Jakiñ biar da, ziñuan, estudu bat baño gejago dirala; edo eleisatikua, nai erlijinoian, nai andik kanpora; edo donzellatasun garbitasunekua, dirala mutill, dirala neskatillak; edo ezkontzakua. Jakiñ biar da, Jangoikuari jaokala estudu batera dei egitia, nor berari jarraitutia, ta gurasuei bakarrik, alegiñez lagun egitia. Zelan gustitik biar, ta ondo dan munduban, Jangoikuak batzui deitutene deutee eleisatik, beste batzubei birjidaderik mundubaren erdijan, nai konbentubetan exenplurik argiñean emotera, ta beste batzui matrimoniotik, eurak, ta baditubee ondorenguak zuzendu ditian bera alabeetara. Nor berak begiratu biar dau ondo, ze estadutara dei egiten deutsan Jangoikuak bere barruban, ta esku berari biotzetik grazia, utsik egiñ ez daijan estadubaren eskojigaan, izanik aiñ importanzia andiko gauzia ariñmarako; ta da txito ondo konfesore jakitun, ta birtuosoren bategaz konsejetia. Baña gurasuak ezin galerazo deikijuee seme alabei nai dabeen estadubari jarraitutia, ta ez lagundutut al dabeen moduban, da pekatu txito astuna. Oraïndik astunagua da artu eragitia nai ez dabeen estaduba, edo atara obligau gura izatia; zemai, ta gogortasunakaz. Baita da gejíenez peligru andiko gauzia, ta arimako kalte andijkoi dakartzana, seme alabei luzatu eragitia asko estaduba artutia, batez bere ezkonduteko borondatia agertu ezkerro. Zenbat adiskidetasun deunga; zenbat pasinoe argaleen atsegíñ, ta guraari geisto artu oi dabee askok edadia ta borondatia euki, ta gurasuak eureen interes, edo oraïndik agiñdu guria gaitik luzatutene deutesean ezkontzaak? Zer egingo dabee, diñue, oraingo ezkondu ezkerro? Ta nik diñot, zelako bizi moduba eukiko dabee ezkondutene ezpadira? Jangoikuak esan eutsan Moisesi, goisago estudu au artu eragiteko bere mendekuei. Ahi, zenbat pekatu erremedijauko litzaatezan, alan egiñgo

balitz! Guraso batzuk, eurak egiñ gura izaten dabee seme alabeen estadubagaz, Jangoikuak bakarrik egiñ biar dabena. Ikusirik daukeen familija diñuee, au izango da etxerako, bestia eleisarako, bestioni emongo deutsagu ofizijo bat, ta bere moduban bizi dedilla, alan enparaubakaz. Ta badakizu gurasuak, gurako ete daben Jangoikuak eleisarako zubek etxerako izenteetan dozun ori? Zenbat, erreñu, ta maiorazko andijk tokau arren, ta seme, edo alaba bakarrak izan arren, deitu deutsee Jangoikuak, gustiñari itxita, eleisa, ta erlijinoetik jarraitutera? Ta badakizu eleisarako nai zendukian ori, deituten ete daben atara Jangoikuak, ala matrimoniora? Oh zenbat sazerdote, arturik estadu andija, Jangoikuak atara deitu baga, gurasuen erruz, edo luurreko interesak gaitik, kondeneetan ditubeen eureen, ta beste askoren arimaak! Baña zegaitik diñuee batau etxerako? Nagusijeena dalako, etxe edo aziendia jatorkolako, biargiñago dalako, edo itxura obia daukalako? Zegaitik, bestiori eleisarako? Biarrian atzeria, ta makala dalako, azienda edo doterik ez daukalako, edo kapellanijeen bat jatorkolako? Zegaitik bestiori bere moduban izateko? Argala edo geiso keillia dalako, biar gogorrik ezin dabelako, edo ezaiñago dalako? Ta Jangoikuak ezpadaukaz alan señalatuta? Ez da onetara jaramonik egiten. Oh, bokazinoe ederrak! Munduko interesak, gurasuen burutazinoe, ta pasiñoiak, erabagiten dabee seme alaba askoren estaduba. Agaitik ikusten dira sarri alako ezkontza modubak; eleisaan ministro alperrak; ta birjinidadeko estadu borondate bagiaz, ta izen utsekuagaz, askorentzat lurrijako lazubak. Seme alabaak, eurak Jangoikuari ondo eskatuta, biar bada, konsulta, erabagi biar dabee eurei ondueen konbeni jakeen estaduba, esan konfiantzaz gurasuei, onetan billdurti, ta lotsaorrak izan baga, ta firme, ta sendo egon Jangoikuak deituten dituban estadubari jarraituteko, guraso, senide, Infernu, ta mundu gustija eureen kontra jagi arren, interes, gurasueen negar, ez esa mesei jaramon baga. Jangoikuaren dejia leenago da beste gustiak baño. Oraingiñokuak predikadoriaren berbaak. pensau bada ondo, ta konsultau zeuben estadubaren gañian, ez jatzu galerazoko, lagundu baño. Jaokan estaduba artutian, dago askorentzat salbazinoeko bide erraza, ta ez jaokanari jarraitutian, kondenazinoerako arrisku txito andija.

LUISEK: Aita ona, ni beti nago sendo, gaztetxutatik artu nituban asmuetan, sazerdote izateko. Ez nau poztutene aziendia, ez munduban izan nengijan konbenienziak, ta gomunteetan nasan bakotxian sazerdoteen estadu andijagaz, sentietan dot neure biotzian egarri andi bat, altara santubetara elduteko. Izan arren aiñ andijk estadu onen obligazinoiak, Jangoikuak emoten deust konfianza sendo, ta bero bat, bere laguntasuna-

gaz konplietako. Konsultau nas sarri, neure konfesoriagaz, ta probeeta arren esan deust: Luis, nai dozu izan sazerdote, eraz bizi izate arren, errenta andireen batzuk espera dituzulako, edo beste luurreko intereseen bat gaitik? Jakiñ egizu, sazerdote baten obligazinoe andijk, ardura andija eskatuten debeela, kondenauko ezpada. Askoren kontuba emon biarko dabela, arimeen karguba artutен dabenak. Deungia bada, Infernuban bertan izango dabela lekurik txaarrenea. Naijago zendukedaz ikusi berdugu, zeiñda ez sazerdote ardurabagako, ta mundubagaz naastaurikua. Baña baldin izan gura badozu benetan sazerdote, aingerubak baño ofizijo altubagua artu, gura badozu izan garbitasun, ta birtute guztien ispilla, pobreen aita errukiorra; gura badozu nekatu ondo pekatari triste Jesu-Kristoganik aldenduta Infernuko bidian duazanak, diabrubak lazauta daukazanak askatu, konsolau, gozatu, ta bide zuzen penitenciakora era-karten; gura badozu izan orazinoe zalia, ta sarri erregu bizjak negarrez zuzendu zerura batez bere pekatari geisueen konbersinoe egijazkuak gaitik; izan zaite zeure, ta beste askoren zorrijonan. Baña estudijau biar da asko. Jakiturija gitxi daukanak sarri uts egiñgo dau konfesonarijan, ta frutu gitxi atera, igon arren pulpituan. Jakiturija, ta birtutia, bijak biar ditu arimeen karguba artuko dabenak. Oba da bada zerbait luzatu estudijuetan, zeinda ez arin aringa ordendu, ta abade tonto bat izan, nor bera, ta beste asko kondeneetako. Erantzun neutsan, neure ustez, biotzetik. Ez nabill luurreko ondasun ariñean billa, kontentu nas bizi izateko duiñagaz, ta badot enparaurik, pobriak izango dira nire herederubak, ta au, ez illda gero, eruan ezin neizanian, ezpada geijago bizi nasan artian. Billatuten dodana da, neure, ta beste arimeen salbazinoia; bada ikusirik munduko jenteen itxutasuna; pensaurik infernuko betiko tormentubetan, zeintzubetara duazan asko, ta asko, argituten ezpadira, sentietan dot neure biotzian erruki aiñ andija, zeiñda uste dot edozein neke, ta tormentu igaroko neukiala, ta bizitzia bera galdu, arima geiso okertubak zuzendute arren. Azkenik bada esan eustan konfesoriak, jarraituteko desio santubei, zirala-ko, duda baga, Jangoikuaren dejak.

AITAK: Neure semia: bedeinkatuba izan dedilla Jangoikua. Esleidu bazaitu bere ministrotzat, nok galerazo leizu? Ezin ezetan atsegíñ geijago euki ginai, zuri atarako lagun egitian baño. Estudijau egizu ondo; pozik gastauko dot, egin zaitian, dirubak baño geijago balijo daben, jakiturijaren jaube. Nik zuretzat neukan aziendia, baña zure biotzak billatuten ditu luurreko azienda laburreen gañetik ondasunak.

INESEK: Neure aita: natortzu aizta Agedaren konpañiaan, bijen estadubaren gañian berba egiten. Onek diño erabagita daukala monja sar-



tutia, ta nik, ainbeste balore ez badaukat bere, ez dot gura Jesu Kristo baño beste esposorik, ta birjinidadeko estaduban amaituko ditut neure egunak. Astiro pensau, Jangoikuari erregutu, ta ondo konsultauta gatoz borondatia agertutera.

AITAK: Jangoikuak emonak zara neure alabaak, ta luurreko gurasuak ez daukagu eskubiderik ukatuteko beretatzat eskatuten zaitubanak. Ageda: zuk isten gaituzu gustiz, baña txito, ondo egiña da, Jesus bakarrik, ta gejago maitetutia gaitik. Ezin eskojidu zendukian estadu obarik, munduko peligrubei iges egín, zeure arimia salbau, ta Jangoikuari gusto emoteko; zure orazinoe, ta obra onak, izango dira guretzat bere, mesede andikuak. Zuk Ines, ez gaituzu gustiz isten, ta nai badozu biziko zara geugaz, ta gure faltaan nebaren bategaz, edo deritxazun moduban, bada izentauko jatsu dote, edo bizi modurako biar dozuna, ta ez gitxiago ezkonduko baziña baño. Gauza lotsagarrija da guraso kristinak batentzat arpegi obia erakutsi, ta dote ona emonik ezkondutenean danari, edola bere bardintasunagaz ez lagundutia bere moduban estadu, eder, garbi, ta obiaguari jarraitutenean deutsanari. Bijok jarraitu nai deutsazun ezkerro birjinidadeko estadubari, bakotxak, Jangoikuak deitu zaituban moduban, gura deutsubeet zerbaitek esan bere gañian. Ez dago loriaren edertasunik, eguzkijaren argitasunik, ez lirijueen zuritasunik, arimako garbitasunagaz bardindu lejjanik. Ponderozinoe gustijak ez dira asko arima garbijarentzat, diño Espiritu Santubak. Oniko arimaak ziran ikusten zitubanak, San Juanek billdots eder, edo Jesu Kristoren ur urrian zeruban, jarraitutenean eutseela ebillen leku gustietara, ta esaten deutsee Jesusen leleenkarrijak. Orregaitik San Ignazio Martirijk eskribietan eutsan Eroni, gorde egizala donzella garbijak Jesusek iduneko joiajak legez. San Zipriano martirijk esaten dau, dirala eleisa gustiko taldeko ederrenea. San Agustinek emoten deutsee luurreko aingerubeeen izena. San Krisostomok diño, zerutik lurrera daguan desbardintasuna, ta oraïndik andijagua, aurkitutenean dala birjinidadeko estadutik matrimonio-kora; zenbat ederrago zeruba luurra baño, ainbat, ta oraïndik ederrago birjinidadia ezkontzia baño. Zelako pozagaz bada gurasuok emon biar ez dogu libertade, ta laguntasuna estadu garbi, ta andi oni jarraituteko? Baña baldin guraso tonto, ta Jangoikuaren billdur bagaak, eureen interes, ta burutazinoiei baño beste gauzari begiratu baga, obligau gura balebee seme, edo alabareen bat beste estadurik artutera, ara emen jarraitu biar dabeen exenpluba. San Luis Gonzaga Mantuako prinsipia, markes baten semia, deitu eban Jangoikuak, munduko honra, ta ondasun gustijak itxi, ta Jesusek konpañiaan sartutera. Baña ze enbarazu, ta gerraak igaro biar ez zituban lizenziak logreetako? Itxuturik aita beragana, luureko amodijo laa-

rregi bategaz, iminita eukazan beragaz munduko esperantza gustijak. Entzun orduko, bialdu eban Italijako prinsipeen palazijueta, dibersi-noiak otzituko eutseezalakuan bere asmua. Baña Luisentzat palazijuak eurak, ziran birtutiak sendatu, ta exenpluba zabalduteko leku txito egoki-jak, ta ez munduko usainik txikarreena iraasteko tokijak. Biurtu zan etxe-ra juan zanjan baño senduago. Billatu zituban aitak gizon anditzakuak kendu eragiteko gogotik Luisi jesuita izatia; imini eutseezan oneek begi-jeen aurrian bere jaiotza, nobleza ta zirkunstanzijeetako zaldun gazte, azartu, ta eder bati, mundubak eskintzen eutsazan honra, entzute, ezkon-tza, aberastasun, ta anditasun gustijak; baña alperrik. Egun baten aurkitu-ten zala Luis bere gelaan bakarrik Santo Kristo baten oñietan etzunda, azote gogorrak eskuban zitubala, odola erijola, ta negarrez eskatutenean eutsala, arren berak alkantzau egijola gizonak ukatutenean eutseen lizenziak, sartu jakon aita, ta ikusirik tajju atan, ezin euki izan zituban malkuak, ta bigundurik agiñdu eutsan emongo eutsala lizenziak, baña leleengo igaro biar ebala Milana etxeko gauza batzuk erabagi, ta garbitutera. Juan zan laster Luis ziudade atara, garbitu zituban gauza gustijak, ta biurtu zan pozik etxera. Baña ezaguturik aitak, geruago ta gejago, Luisen iratzarrita-suna edozer gauzatarako, damuturik emon eutsan berbiagaz dirautso; Luis, asko engañau zinian, baldin sinistu bazeunstan itxiko neutsula erlijio-nian sartutenean. Ogeta bost urte dituzunian pensauko dozu orretan, baña artian, alperrik izango dozu nigaz. Luis, entzunik uste ez zituban berba oneek, etzun zan negarrez aitaren oñietan, ta biotzik gogorreenak bigun-du oi dituban modestija, ta humilldadiagaz dirautso: neure aita maitia, ez daijala Jangoikuak laketu ni zure borondaterik aldendutia; obedezuiko deutsut, au da, itxarongo dot edade orretara artian, baña ontzat artu biar deustazu esatia, Jesusek bere Konpañiara dei egiten deustala, ta isten ezpadeustazu, aitutenean da oraindisek, bere borondatiari jarkiten zatxakoza-la. Ainbeste indar egin ebeen berba bigun oneek aitaren biotzian, zeiñda oraturik Luisi laztanga egon zan samurtasunez mutututa legez malko gorrijakaz matrallaak bustitzen eutsazala, ta arnasa puska bat artuta esan eutsan: Neure semia, edegi deustazu biotzaren erdijan zauri bat luzaro penazko odola emongo dabena; maite zaitut, ta zeuk merezi dozu; zugan neukazan iminita neure familia gustijaren esperantzaak; baña aiñ ziur bazagoz Jangoikuak dei egiten deutsula, eziñ gelditu zinaidaz onezkerro; zuaz bada, neure semia laztana, Jangoikuak dei egiten deutsun lekura. Au esanda sartu zan aita bere gelara negarretan biotza deskanseetara. Luis bere samurtu zan; baña laster, ta pozik juan zan Jesusek Konpañiara, urte gitxitan santu andi egitera, izateko gazte gustieen ispilla, ta batez bere

garbitasuna maite dabeeneen anparu, ta zeruko abogadu andija. Exenplu onetan ikusten dira aldabatara, humilldade, ta sendotasuna; humilldadia, erregututian aitari, ta biar izan balitz itxarotian urte batzuk; ta sendotasuna, ez istian Jangoikuaren deija, ez palagu, ez luurreko interes, ez aitaren negar, ta ez beste gauza gaitik. Baña ze sendotasuneko exenplu obarik zuben santeenak baño? Uste dot, erakutsi neutsuzula gazttxutan eureen bitzitzaak.

INESEK: Bai umetan erakutsi zeunstan, ta ondo gorde dot neure gogo, ta biotzian. Santa Ines, jaio zan Erroman, guraso noble, aberats, ta birtuosuak ganik. Emon eutseen aziera txito erretirau, ta Jangoikuaren billdur andikua. Ainbeste argitasun, ta grazijagaz bete eban Jangoikuak, zeinā amar urte zitubaneko zan birtuteen exenplurik argjeena. Naturaleziak apaindu eban edertasun andijagaz, ta zabaldu zan asko bere famia amairu urte zitubaneko. Egun baten ikusirik Erromako gobernadodiaren semiak, gustija beragana itxuturik, erabagi eban bere esposatzat artutia, ta bialdu eutsan erregalu andi bat, bere borondatia agertubagaz batera; baña zurtuta gelditu zan ikusirik atzera biurtu jakola bere erregaluba artu baga, ta Inesek ez ebala gura bere esposotzat. Imiti zituban asmo gustijak beraganduteko dama onen borondatia; baña alperrik. Juan jakon ikustera eskintsari, ta labankerijaz beterik; ta sendotasunik andijeenagaz dirautso Inesek: Zuaz emendik tentatzallia; ez zaite kansau, artu gura izaten beste esposo illgo ez dan bati eskiñirik daukadan eskuba. Jakiñik gobernadoriak zer igaroten zan, ta gusto emon nairik bere semiari, uste izan eban berak errazto lograuko eutsala ezkontza aa, ta deiturik beragana esan eutsan, bere, ta semiaren borondatia zala, onen esposa bera izatia, ta munduban espera eukian fortunariak andijeenak jo ebala. Erantzun eutsan Inesek: badakit mundurako honra andi bat egiñ gura jatana, baña badaukat nik neure esposua; maitiago dot garbitasuna munduko koroe gustijak baño, ta berau da neure esposuak eskatuten deustan dote bakarra. Arrituta gelditu zan gobernadoria berba oneetara, ta an eguna kaballero batek esan eutsan, Ines zala kristinauba. Ordubar gobernadoriak esan eutsan Inesi; ogeta lau hordu emoten deutsudaz penseetako, eskoju daizun, edo izatia Erroma gustiko leleengo damia, edo tormenturik andijeenetan bizitzia galduzia. Ez dot denporarik biar pensemendu, dirautso Inesek; erabagita nago Jesus baño beste esposorik ez artuteko. Beriala berdugu gogorrak, katee, ta grilluz beteta, datozerreka; baña ez dau ezek billdurtutenean Ines. Gura deutseez eskini eragiñ inzensuak Jangoiko palsuei, baña atarako ez dira asko gustieen indarrak. Eruaten dabee emakume galdubeeñ leku atsitu, ta illunera, ta zeruko txinpart batek argitutenean dau gustija.

Bakarrik azartutenean da urreratutera gobernadoriaren seme lotsabagia, ta jausten da illik donzella garbijaren oïñtan. Billdurturik gobernadoria, eskatu eutsan Inesi, arren biztu egijala bere semia, ta begijk jaso zitubaneko Inesek zerura jagi zan difuntuba diadarrez: Guzurrezkuak zirala jentilien Jangoikuak, ta ez eguala beste Jangoikorik, kristinaubak adoreetan ebeena baño. Onelako milagro, ta mesede aiñ andiagaz, erakutsi zan gobernadoria Inesen bando; baña jentilien sazerdotiak, sorginkerijatzat emonik milagrua, arrotu ta biztu ebeen jentia, ta azkenik beste juez bateganik atera ebeen Ines sutan erreetak sentenzia. Subak gorde eutsan lotsia Inesi, ta ez eban erre aise otzak baño geijago; baña au bere sorgineri jaiz zala esanik, agiñdu ebeen samia ebateko. Eskatu eutsan Inesek Jesusi, arren artu egijala bere bizitziaren sakrifizjua, ta biurturik berdugabagana esan eutsan: ez zaite billdurtu emoten niri eriotza bat, izango dana betiko bizitziaren asieria. Alan egiñ eban, ta bere arima garbi jaizten zan laster, ta pozik, zeruko esposuaren betiko eztegubetara.

AGEDAK: Nire santiaren bizitzia zan oraïñ entzun dogunaren irudi bizi bat, ta alan luzatu baga, esango dot berba gitxitan. Jaio zan santa Ageda Sizilijan, ta bere noblezia inguratutenean eutseen ondasun ugari, ta edertasun gustizkuak. Sizilijako gobernadoria egin zan bere ezkongei amodijorik bizijenaren itxutasunagaz. Ikusirik Agedaren sendotasun, iñok geijago egiñ ez eutsana, ez artuteko Jesu-Kristo baño beste esposorik, biurtu zan gobernadoriaren amodiju gorrotuan. Adorau eragin nai deutseez idoluak. Asten dira tormentubak. Sartuten dabee Ekuleo gogorrak; austen deutseez makilladaz azurrak; plantxa gorrijakaz erreetaen dabee; ebaten deutseez bularrak; baña Ageda beti dago sendo, ta garbi. Sartu ebeen alan kalabozuan, ta agerturik bertan San Pedro apostolua konsolau, ta osatuta itxi eban. Alan prestau zan tormentu barrijetarako. Agiñdu eban gobernadoriak, billosik sutan sartuteko, lekurik gogorreeneitatik tatarras erabillteko; baña, asi ziraneko, agertu eban zerubak bere asearia. Luur ikara andi batek ondatu zituban palazio asko, ta billdurturik gobernadoria iges egiñ eban. Biurtu ebeen Ageda karzelara, ta egiñ eban orazinoe au: Jangoiko altsu, ainbeste miserikordijagaz txikitatik maitetu nozuna, artu egizu arren nire arimia zorijonekuen egon leku gloriazko orretan; au da azkenik eskatuten deutsudan mesedia, ta benetan zure ontasunian itxaroten dodana. Amaitzu orduko berbaak itxi eban bere arima garbi jaizten eposuaren eskubetan, ogeta bat garren urtian.

AITAK: Orra bada nun ikasi daizeun biar dan sendotasuna, Jangoikuaren deiei jarraitu, ta garbitasuna gordeetako. Maitiago ez dabenak birute au, beste luurreko gauza gustijak baño, ez dauka lekurik Jesusen

esposeen artian. Geijago: ez daguana prest bizitzia, ta edozer gauza leenago galdutera, pensamentu, nai edozein azinoe, edo egitada loiri biotzian leku emon baño, ez da Jesusen seme ez alaba maitia, ta alan ez dau izango beragaz parterik zerubetako erreñuban. Estaduba artu bagako gustiak (dana dala, gero artuko dabeena) ikasi biar dabeeexenplu onetan, zelako sendotasunagaz portau biar dan nora ezeko okasinoerik estubeenetan. Alan, ez andi izeneko, estaduko, edo aberats, edo ugazabeen errespetoz, ez sari, ta zemaijak gaitik, ez ezkontzako esperantza, ta berbaak gaitik, lekurik emon lejueela garbitasunaren kontrako gauzari. Iges egin biar da okasinoetik, albada, ostian diadar egiñ, Jangoikuari eskatu, ta illleenago leku emon baño pekaturi, ta juan zuzen zerura. Garbitasuna Jangoikuaren amorez gordeeta arren illten dana, da martiri egijazko bat, eriotziagaz batera zerura igaroko dana. Oh garbitasun egijazkuaren sari andi ta betikuak! Alargun, ta ezkondu gustiak bere bardin aitu biar dabee eureentzat doktrina au, eureen estadu santubei jaokeen moduban. Ez dauka pekatubak iños bere atxakiarik Jesusen aurrian, zeñek galdu eban bizitzia gure amorez, ta gaukazan obligauta geuk bere geure bizitzaka galduera, bere amodijuak aginduten deuskuzan okasinoietan. Ez dago bada iñor garbitasuna maitetu biar ez dabenik, ta gaukazan peligrubak gaitik, ardurarik andijeena imiñi biar ez dabenik ondo gordeetan. Añi da barriz delikauba arimako garbitasuna, zeiñda sarritan begirakune bategaz galduen da, diño San Anbrosiok. Alan galdu ebeen leleengo Dabidek, Israego Juezak, ta beste askok. Zer izango da bada, urteten bada arroturik mundu zoruaren begijetara? Gejenian, eguzkijak edur zurija legez, mundubaren aise epel, ta itxaaskorrak desegiten dau arimeko zuritasun eder au. Ahi, arima errukarri, añi gitxi estimeetan dabeenak Jesusek emoniko doterik ederrenea! Zelan agertuko ete dira bere aurrian galdu dabeenak joija garbiña nasaitasuneko simaurtzeetan? Eskuka, oratute, begirakune, berba, ta ibillera lotsagarrikaz, atsituden ditubeenak eureen, ta beste askoren arimaak? Jesus garbiña: zuk ikusten dituzu gabaz, ta egunaz, etxe, bide, plaza, baso nai beste zurkulubetan; baña eurak ez zaitubeen legez zeu ikusten, ez dira billdurtutenean; baña, arako donzella garbijeen koru ederragaz inguraturik, deituten dituzunian zeure juizijo zuzen, ziatz, ta gogorrera; arako, zero, ta infernu guztijaren aurrian agertu biar ditubeenian eureen egitada isill, nai agiri, asmo ta pensamentu gustiak; ze lotsaari, ta negarra eruango ez dabee infernura. Aizta batek, bestia, lagunak, laguna, auzua, ta ezagunak ikusi doiazala betiko zerura, garbitasuneko koroe ederrak jantzita, ta nor berak jatsi biar betiko infernura! Au da pensamentu

bat, fedia ondo biztuta sarri eukiko balitz, desterrauko litukiana betiko gure pekatu gustiak.

AGEDAK: Beste tesoru gustieen gañetikua, duda baga, arimako garbitasuna; baña zer egingo dau galdu ebanak?

AITAK: Ara emen santa Maria Ejipziakoren exenpluba. San Zosimo monje, Palestina gustijan bere penitenciaak gaitik añi entzuna, ebilen Jordango ibaija igarota, basamortu andijkaz aztertutenean, jakinik ango leza, ta zuluetan bizi oi zirala monje santu asko. Egun baten, erre Zuban eguala, ikusi eban urrinetik keriza modu bat igesi joiala. Asi jakon jarraitutenean, ta zerbait urreraturik dei egiñ eutsan, gelditu ekijola Jangoikuaren izenian. Obedezidu eutsan, baña sarturik zulo baten dirautso andik: Aita Zosimo, bota egijozu mantuba pekatari triste oni, baldin nai badozu berba egiñ, ta zure bendizinoia artu daidan. Entzunik Zosimo, bere izenagaz berba egiñ eutsala, ezagutu eban persona santaren bat aurkitu ebana, ta bota eutsan pozik mantuba. Ordubar, ondo eztalita, urten eban zulotik emakume batek, aillagiña penitencijaz sikatuba, eguzkijagaz baltzituba, denporeen gogortasun, ta indriskaz azala kallu biurtuta, zeinda geijago zirudijan amesetako begitazinoe, edo beste munduko gauza bat, kriatura bizia baño. Jarri jakon belauniko Zosimo, ta dirautsa berak: Aita, aaztu da sazerdotia dana, ta emon biar deustana neuri bendizinoia, eskatubagaz Jangoikuari munduko pekatarikek andijeena gaitik? Erregutu eutsan Zosimok esan ejuela nor zan, ta orazinoe aldi bat egiñda esan eutsan: Ni nas emakume triste bat, Ejiptuko naturala. Amabi urtekua iges egin neban neure gurasueen etxetik, libertadian bizi izate arren. Igaro nintzan Alejandriara, nun entregau nintzan mundubaren olgantza, ta banidadiaren itxutasunetara. Ikusirik egun baten jente asko urreratutenean zala itxas-bazterrera ontzijan sartutera, itandu neban nora juazan, ta entzunik Jerusalena nai ebeela Kurutze santiaren exaltazinoia zelebreetara, burubak emon eustan eurakaz juatia, ta alan egiñ neban. Jerusalenen bizi nintzan Alejandriako moduban munduko banidadiakaz erotuta. Eldu zanian Kurutzia-ren egun santuba juan nintzan bestiakaz batera eleisako ateria, baña sartutera egiñ nebanian, ikusten ez neban esku batek atzeratu ninduban. Asi nintzan indarra egiten sartuteko, ta zenbat indar geijago egiten neban, ainbat atzeraago botaten ninduban. Edegirik arimako begijak, ezagutu neban, ez nebala merezi adoreetia Jesusek gure Erredenpzinoia egiñ eban Kurutzia, ta lotsaari, ta damuz beterik, alde egiñ neban plazako bazter batera. Emen askatu zan nire biotza negar, ta zotin ugarijakaz. Jaso nituban alako baten begijak, ta ikusirik Ama Birjinaren imajina bat, indarra artuta asi nintxakon esaten: Ama miserikordiazkua, errukitu zaite arren

kriatura zorigaitoko onegaz; bada izanik zu pekatarrjeen anparuba, ta ni luurreko pekataririk andijearra, esan lei daukadala beraarizko eskubide modu bat zure laguntasuna eskatuteko; egizu bada arren, adorau daidala nik gaur, nire arimia salbeetaarren, Jesusek padezidu eban kurutzia; emoten deutsut berbia, beriala gero igaroteko basamortu batera, bizitza gustuko negar, ta penitenziagaz, neure arimia garbitutera. Ordubar artu neban konfiantziagaz juan nintzan eleisara, ta sartu eragozpen baga. An, kurtze santiaren oiñetan aupzatzurik, neure begijetako malkuakaz ezkotu neban ugari luurra. Gero, zuzendurik Ama birjiniagana, esan neutsan: Ama errukiorra, zu zara, Jangoikuaz ostian, nire arima konbertiu dozuna; zugan bada, Jesusen urrengo, imiñten dot neure esperantzia. Agindu neutsan mundubari istia, ta prest nago zure borondatia egiteko; izan zakidaz lagun neure salbazinoeko bidian. Beriala entzun neban urriñetik legez esaten jatala, igaro egizu Jordango ibaija, ta aurkituko dozu deskansuba. Alan egiñ neban, konfesinoe jeneral baten ondoren, ta berrogeta zazpi urte dira aurkitutenean nasala basamortu onetan, ta ikusi ez dodala zeu baño beste personarik. Mantenidu nas bedar, ta sustraijakaz. Eskatu eutsan gero Zosimori, urreengo eguben santu egunian eruan egijola gure Jauna, komulgau nai ebalako, ta eldu zanian denporia, ikusirik Zosimo ibaijaren alde batian, etorri jakon aringa oiñaz uraren ganetik, bide litorretik legez. Komulgauta, emon eutsazan Jangoikuari esker gozuak, ta esan eutsan. Zosimo, azkenik eskatutenean deutsut beste mesede bat, ta da, urreengo Garizumaan etorri zaítiala leleengo ikusi nenduzun lekura, nun aurkituko nozun Jangoikuak nai daben moduban. Juan zan Zosimo denpora izentabean, ta aurkitu eban illda, albuhan eskribiuta eukala: Aita Zosimo, enterrau egizu karidadez Maria pobriaren gorputza, bada ill zan Barijaku santu egunian, komulgauriko bijaramonian. Ara santa Maria Ejipziakaren bizi-tzako jazoera labur batzuk. Neskatilla, edo dama arro onek, bere apaiñ-duri, edertasun, ibillera, ta nasaitasunakaz egiñ zituban ots andijk mun-duban, ta ez kalte txikarrak arimeetan, baña berrogeta zortzi urte osueta-ko negar, ta baru gogorrakaz, arri bategaz bularra zaurituten ebala, billo-sik, eur, nai eguzki, bere edertasuna biurturik itxusitasunik andijenera, garbitu zituban Jesusen amorezko iturrijan bere pekatubak, ta irabazi eban betiko zeruko koroe ederra.

AGEDAK: Penitenzia gogor orreek ez dirudijee aïñ egokijak peka-tari asko bide onera zaletuteko, zeiñda billdurtu, ta atzeratuteko.

AITAK: Jakiñ biar da penitenzia, edo dala salbeetako duiñekua, edo santiadian aurreratutekua. Salbeetako asko da bizitza geisto, ta bere okasiñoe urekuak itxi, konfesinoe on bat egiñ, konfesoriak emondako peni-

tenziaak kunpliu, ta bizitza barri graziazkuan irautia. Orregaitik onetarako biar oi dira gorputzaren mortifikazioeren batzuk, gejago, edo gitxi-jago, zenbat bizijago edo makalago diran pasinoe, ta leenagoko ekandu txaarrak. Baña pageetako gustiz pekatubeen zorrak, ta santidade andira elduteko, egiñ ditubee gizon, ta emakume askok entzun dituzun ta beste alako penitenzia asko. Ez orregaitik pensau, penitenziarik gogorrenak isten ditubala Jesusek atsegiañ ta konsuelo baga. Maria Ejipziak berak esan eutsan Zosimori, askoz atsegiañ andijaguak artu zitubala bere biotzak basamortu atako gogortasuneen artian, munduko banidade, estimazinoe, ta olgantza gustietan baño. Esperantza, ta amodijua dira atsegiañaren sus-trajak. Eta zelan izango ez da gozua zeruko betiko atsegineen esperan-tzia? Zelan izango ez da, gozo baño gozuagua Jesusen amodijua? Ahi probauko balebee bere biotzeko ur estitsubaren puskabat pekatubaren ur atsitubakaz ekandubak! Eta zelan itxiko litukeen betiko!

JABIERREK: Aita, natorzu neure arreba Sinforsagaz geure estadu-baren gañian berba egitera. Jangoikuak deitutenean dabentzatua izanik bakotxak artu biar dabena, guk uste dogu matrimonio santura deitu gai-tubala, ta gatoz zuri borondatia agertu, ta zure baija, ta konsejubak artu-tera. Ez dogu zure, ta amaren lizenzia baga pausurik emongo onetan.

AITAK: Sakramentu andi, ta santuba da matrimoniokua, ta ez da erraz konteetan zenbat santu andi izan dira estadu onetan patriarkeetatik asi, ta oraiñ artian. Egijja da karga astunak daukazana, baña ondo pres-tauta, intenzinoe onagaz artutenean badozu, Jangoikuak emongo deutsu gus-tirako laguntasuna. Nik ez deutsubeet lotuko borondatia, baña ez litzaate errazoa zubek gurasueen barri baga ezkontzagiañen ibilltia, ta gitxiago berbarik emotia. Zubetako tokeetan jatsu gurasuei agertutia borondatia badaukazu iñoganako, ta guri lagun egiñ, ta bitaarteko ibilltia, zuben ak-moduba egiteko. Gurasuei zor jakeen errespeto, ta nagusitasunaren kon-tra uts egiten dabee, eureen barri baga ezkontzaak egiten ditubeenak. Gurasuak, alegiñez gusto emon biar deutsee seme alabe, borondatia dau-keenagaz ezkontzaak egiten, baldin ezkontzia ezpada txito desbardin, lotsa-rikua, ta bizitza txaarreen bat egiteko arrisku andikua. Ostian, kon-seju, ta errazoiakaz balija deitekez gogotik kenduteko, obareen bat espe-ra badabee, baña ez zemai, ta gogortasunakaz. Onetan uts egiñ oi dau guraso askok. Seme edo alabiaren borondatiari jaramon baga esan oi dabee; urljia da ona gurerako, edo aïñ lekutan sartuko dot neure seme, edo alabia; gura ezpadau, nai dabenak lagundu dejola bestegaz egiteko. Edo diñuee, gurian sartuko danak biarko dau onenbeste dote, ta begiratu baga jenijo, bizi modu, ta ezkondu biar dabeeneen borondatera, egin, edo

desegiten ditubee ezkontzaak, interes utsa gaitik. Beste guraso batzuk uts egiten dabee libertade laarregi emonagaz. Ez dabee ardurarik imiñen; denporaz jakiñ eureen borondatia, ta eurak gurasuak trateetako seme alaben akomoduak; ezpada diñuee, edadeko dira, ta nai dabeenian erremedijauko dira; zer emon andirik bere ez daukagu, ta nai dabeena egingo dabee. Agaitik izaten da ainbeste nasaitasun, ainbeste ezkontzako berba ariñ, ta ondo pensau bagaak, pasinoe utsekua, ta sarri guzurrezkuak. Sarri egiten dira onelakuen ezkontzaak, fiesta ta alkarragaz nasaitasunetan oi dabiltzan okasinoietan. Amodijo argalak eragiten ditu, ta sarri laster garbatu. Zenbat bidar emoten ditubee mutillak guzurrezko berbaak, gaur bati, ta gero beste bati? Ta oh, neskatilla tonta, simple, ta gatz bagakueen kondizinoia! Beriala sinistuten dabee, ta mudau bere ez dala egingo mutilla, ta beste mutillik munduban ezpalitz legez, pensau baga, itandu baga, emoten dabee eurak bere berbia. Ganadubeen tratubak obato pensauta egiten dira. Baldin bada, ezkontzako berbia naasteetan bada labankerija, ta nasaitasunaren asmua dakarrean gauzaakiñ, señalia guzurrezkuak, edo amodijo argalak ondo pensau baga, erasua dala. Iges enbusterubak ganik, milla juramentu egiñ arren. Ez arimark mantxau, ta demoniari entregau, dan ziurrenak balira bere ezkontzako berbaak. Garbija dalako, ez dau sekula iñok iñor atxakijau ezkonduteko, borondatia euki ezkero. Baña alan balitz bere, leenago da arimia, beste gauza gustijak baño. Ezkontzako berba, ariñ emon, ta damutubetatik, urteten ebeelako auzi, ta beste kalte askok, urten eban Karlos IV. lege batek agindutenebala, ez eleisako, ez bestelako juezak admitiu eijeela esposaleen gañeko demandarik, baldin persona, atarako lizenzia eukeenak izatiaz ostian, espousal, edo ezkonduteko berbaak eskritura publikuagaz egiñak ezpaziran. Orregaitik aozko berbaak, ez dabee balijo, beintzat luurreko justizijagaz obligeetako ezkontzara. Ahi, goguan ondo sartuta baleukee lege au emakume sinis errazak! Jangoikuaren bilddurrak ezpada, engañausta gelditu ez ditianekuak, librauko lituke okasinoe askotatik. Badira beste uts egite batzuk bere gurasuetan akomodubetako denporaan; batari emon dote andija, eureen gogokua dalako, ta besteei simpleza bat baño ez, gustijak bardin eureenak ezpalira legez. Beste batzuk, ondo eukijak izan arren, eukijago ta maitiago dabee-lako, emoten deutsee gitxi akomodurako, ta ez deutsee lagundutenebatorkeen moduban. Asiera pobria nekez gero jasoten da. Illten diranian itxiko deutsee, ezin aldian eruan izan ebeelako. Ez da au esatia, gurasuak gustija seme alabei emonda, gelditu ditiala eurak ariñ baga, ezpada zekentasun baga porta ditiala, okasinoiak, ta semeen amodijuak eskatutenebaren moduban. Bardiñian, errazoe geijago da, semiak gurasuen premiñaan gel-

ditutia, gurasuak semeenian baño. Ara jazoera bat. Juan Kontxiak ezkondu eban seme bat, eukan gustija emonda, ta etsigi zan beragana. Baña laster ezagutu eban, semiaren leenagoko berba onak zirala eukana atera artekuak. Ez eukanian zer emon, gustija zan astuntasuna, ta desprezjua. Negar egiten eban gau ta egun, egiñ eban tontakerija, ezer baga gelditutian, ta eskamentubak emon eutsan ondo izateko argitasuna. Adiskide bati eskatu eutsan diru pillo bat egun batzubetarako, ta eurakaz bere gelaan sartuta, asi zan konteetan, ta ots eragiten entzuago zan moduban. Semia, ta erreña asi ziran, sentiuta zelata, ta poztu ziran ikusirik zenbat diru kontauta sartu zituban kutxaan. Urreengo egunian itandu eutseen, norenak zituban ainbeste diru, ta erantsun eutseen: Nik seme bat baño geijago ditut, ta daukadaz dirubak gordeta onduen porteetan jatanarentzat. Emendik aurrera, gustija zan aita ondo artutia. Zer gura eban, zer palta jakon. Ill zan, ta beriala pozik juan ziran kutxara semia ta erreña, edegi ebeen, ta ez ebeen beste gauzarik topau, ezpada makilla trosko bat, ta paper bat esaten ebana. *Nik Juan Kontxia, azkenengo testamentu onetan aginduten dot, kutxa onetan daguan makilla onegaz galantak emoteko, bere burubagaz aaztu, ta daben gustija semeei emoten deutseen guraso eruari.*

XABIERREK: Ez daukazu zetan billdur izan aita, gu ibilli gariala, ta ez ibilliko gariala ezkontzagaiñen geurez. Zuk eskiniko deuskuzuz, ta guk konbeni jakuzan edo ez pensau, ta erabagiko dogu, ta proponiu zuri, iñor goguan sartutenebajaku. Andik aurrera, zeuk tratau, ta enparauba geure onian egiñgo dozu.

AITAK: Egunak dira aiñ Etxaguntzako gurasuak berba egiñ eustala bere seme alabaakaz, ta zubekaz trukadia egiteko; leenago bere izan dira konbenienziaak, baña ez neure ustez onelakorik. Zubek ondo dazauzuz, ta erri gustijak ao batez alabeetan ditu, eureen juizijo, ta ontasuna gaitik. Pensau orregaitik ondo, ta libertadez esan zeuben borondatia. Nik esaten deutsudazan gauzaak ez dira zuben billdur nasalako, ezpada jakin daizun munduko barri, dala konseju onak emoteko, dala iñosko denporaan, biar bada zeubek guraso izan zinaindezalako, alan bada oraiñ bere aztertuko deutsudaz ezkontzako berbaak emonda gero oi diran uts egitiak. Estadu santuba artu biar danian, albait ondueen prestau biarrian obra on, ta sakramentubeen grazijagaz, erakarteko eureen gañera zeruko bendizionoiak, erakarten dau askok Jangoikuaren madarikazinoia. Oi dira ezkongejjak, atxakija modu askogaz, alkarragaz trateetan dabeenak peligru andijagaz, ta sarri murmurazinoerako bidia emoten dabeela. Edozer simpleza gaitik luzatutenebatorkeen ezkontzaak, ta artietan or, ta emen dagoz, edo dabiltz alkarragaz batera, ta bestera. Ezkontzaak egiñ orduko pensau biar da



ondo, ta egiñ ezkero laster akomodau. Sarri, illak, edo urtiak leenago trauta oi daukeez, baña nekez izango dira peligru andi baga. Dago batzueen artian kostunbria, juateko ezkongeijak ferija, edo saldu lekureen batera; nobijiak eskojietan dau beretatzat jantzija, ta nobijuak pagau. Gurasuak eurakaz juan arren peligruba dauka alkarragaz ibilltiak, asko da pensamentu loi borondatezko bat arimia galdueteko; ta gurasuak ezpalijuaz eurakaz, edo juan arren beti presente ezpadaukeez, peligruba izango da andijagua. Beste persona tonto batzueen artian dago eureen moduko oitura tonto bat; bigarren eleisdejeen gabian dua nobijuua bota ardaugaz nobija, ta bere gurasuak konbideetara. Kleitu ederreko konbita da donzella ezkongei batentzat ardaozko konbita; baña ori da gitxieena; usauta egongo dira plaza agirijetan edaaten. Oh Jesus ona! Edan ondo, guraso, ta enparaubak, ta nok ezagututen ez ditu dagozan peligrubak? Biar bada alde egiten dabee, edo luak artutten ditu guraso berotubak; eskepera agiño baño ezpada bere urteten dau nobijiak agur egitera. Ahi, zenbat arrisku! Ze guraso modu dira, onelako kostunbiak kenduten ez ditubeenak? Gero bere izango da denporia honrau, ta prestubak izateko, ta konbitak artuteko, gurasuen izenkuak badira, ta nobijiari, honrarik badauka ez jako ondo egiten alako konbit burlagarri, ez beste traturik orduban eukitia. Abrahán Patriarka santubak, ez aurkiturik gustiz goguan sartutene jakon donzella honesta, ta birtuosarik, bere seme Isaak justubaren espasatzat, bialdu eban maiordomuba senidiak eukazan erri urriñ batera, eskojietara, berak emon eutsazan señaliak eukazan donzella bat; Maiordomubak egiñ eban txito ondo agiñduba, ta Jangoikuak alan nairik, esleidu eban Rebeka eritxon bat. Ekarren beragaz, ta urreraturik errira, ikusi ebeen zaldun bat, ta ezaguturik Maiordomubak esan eutsan: ara berorren esposo geija. Ozta entzun eban Rebeka eder, baña modestiak, beriala mantu, edo belua imiñi, ta eztaldu eban bere arpegija. Oh, ezkongei garbi, ta honestiaren señale argija! Exenplu, goguan sartuta beti donzella garbi gustijak euki biar leukeena! Baña zetarako ekarri bakarrik justubeen exenplubak? Irokes barbero, ta jentileen artian, dirauskubee historija ziurrak, betiko lotsaarijagaz geldituten zirala ezkongeijak, alkarragaz berba egiñ, edo trateetan ikusten bazitubeen. Eta, egon leite premiñarik geijago esateko Euskal Erri, ta kristinau zaarreen artian, tonto batzuk sartu, ta nasaitasunak zabaldu gura dituban kostunbre lotsagarrijeen kontra?

XABIERREK: Aita, ez eukeen asko zer pensau zuk eskini zeunskuzan akomodubak, izanik desiau gendukezan oneenak, orregaitik arturik astiña, ta informiak, dirautsugu gura dogula tratau daizuzan, nai dozun denporako. Zurtutenean entzunik, ezkongeijen artian oi diran artu emon, ta

peligrubak. Baña zer geijago beiñ entzun neutsana baño atso bat? Ikusirik ezkongei batzuk, esan eban; orreek Jangoikuaren aurrerako ezkondua dagoz.

AITAK: Orra noraagiño eldu leitian kristinaubeen ez jakiña! Oh diabrubaren doktrinia! Ezkondua dagozala Jangoikuaren aurrerako sakramento santuba artu baño leenagol! Kristinaubeen artian entzun deite eskandalu andijagoko gauzarik? Zetarako da bada sakramento santuba? Onen antzekua da modureen baten beste esakune au; jazotenean da nosbait ezkondu baño leenago agertutia pekatuba, ta gero ezkondua, ta esan oi da orduban; Ah! Ez daukee lotsaririk, idiak ziran, ta eurak erremedijau ebeen. Ezer ezpalitz legez pekatuba, munduko kaltiak erremedijau ezkerro! Baña ahi! Erremedijau ete ebeen Jangoikuaren aurrerako pekatu andija? Askok ez beintzat eureen bizitza gustiñan; ta sepultean dira eureen pekatu ta gusti infernuban. Ez dira ondo damututenean, pakatubaren bidetik alkantzau ebeelako ezkontzia; Poztutenean ditu atera ebeen mundurako interesak, ta importanzia gitxiko gauzatzat begiratutenean deutsee Jangoikuaren ofensa andijari. Ahi tristiak! Ezagututenean ezpadabek, pekatuba beti dala pekatu, edozeñegaz egiñ izan arren; ta garbitutenean ezpadabek penitencijsa sendo, ta biotzekuagaz. Dabid ezkondu zan bere pekatuko lagunagaz, kastigau zituban orregaitik irriime Jangoikuak; egiñ ebeen sendaro penitencijsa, ta batez bere Dabid geisuak bere bizitza gustiñan egiñ eban negar, kastigeetan ebala gorputza erruki baga. Bide batez esango deutsut orain zerbait eztegubeen gañian. Eskritura Santako Historijsatik dakigu, hebreotaarrean artian bere egiñ oi zirala eztegubak. Lagundutenean eutseen nobijuari bere mutill lagunak, ta nobijiari neskatillaak, baña, dala jaateko denporaan maijan, dala beste eukiten zitubeen dibersinoietan, aparte oi egozan neskatillaak multilletatik. Emendik ikasi biar litzaate eztegubetako modestijsa. Baña zer jazotenean da orain leku askotan? Banidaez, batutenean da albait jenterik geijeen, edaaten da neurritik kanpora; an urteten dabee kantarik loijeenak, esaten dira berbarik zikiñeenak, egiten dira dantzarik naastaubeenak, ta esan lei, ardaua, ta lujuria baño beste gauzarik ez dabilera. Gurasuak biar bada barrez begira, edo alde egiñgo dabee libertade geijagogaz ibilli ditian; nosbait, ez dira faltako zaar tentadoriak. Oh, estandarte barrijaren asieria! Desterrauko ez ete da nosbait, nasaitasun aïñ andija? Oh, zenbat lazu tristegaz naastaurik dagoz Mundubaren bazterrak!



HISTORIJAREN JARRAIPEN TA ERAKUSTE ALDI XI

Familia zorijoneko au akomodau zan ezin obato, bakotxa Jangoikuak deitu eutsan estaduban. Ezkonduko ziranak ez ebeen bestiak baño ardura gitxiago imini arimaak ondo presteetan. Egiñ zitubeen konfesinoe jeneralak, premiñarik ezpeukeen bere, limosna, orazinoe, ta baru batzuk. Gorde ebeen erretiro, ta modestija; ibilli baga umiak legez nundik alkar ikusiko ebeen; ta azkenik gois baten aldabatera ezkondu ta prementau ziran. (Enkargeetan dau eleisiak, ezkondubak alkarregaz ez bizi izateko prementau artian; au da lekurik geijeenetako kostunbria, ojala balitz gus-tietakua; aldabatera gustiña egíñ ezkerro ondueen ta arazu gitxiagogaz erremedijeetan da). Eztegubak egíñ ziran bulla baga, ikusi ta entzuten ez zala personariak garbijeenak eskrupuluba egíñ eukian gauzarik. Jangoikuari eskerrak emoten bizi zan guraso au, egíñ eutsazan mesede andijk gaitik, ta probau gura izan eban bere sendotasuna. Bere ondo bizijaren embidja eukeen batzuk egíñ eutseezan kalte andijk solo, ta basuetan. Geiso batek amaitu eutsazan ganadu asko, ta azkenik ill jakon bere benetako lagun, ta emazte birtuosia. Baña orduban ezagutu zan iños baño obato baso arteko jakutin onen biotzeko sendotasuna, ta luurreko gora beera ta desgraziaak ezin azpiratu eukeela arima aiñ andija. Egíñik Jangoikuari gauza gustijen sakrifizjua, ez jakon beste gauzarik entzuten, ezpada, Jangoikuak emon eustazan, berak kendu deustaz, bedeinkatuba izan dedilla bere izen santuba. Batu ziran emaztiaren gaubelara auzuetako lagun batzuk (ez jente buru ariñik, onelakueentzat ez zan aa etxe gustokua, ta eurak bere ez ziran eureen nai) ta dirautsee.

JUANEK: Gaubelia batutia gauza bitarako da; difuntubaren arimia gaitik Jangoikuari eskatuteko, ta bakotxak konsidereetako zetarako jaijua dan, ta azkenik zer zor daben. Jangoikua beti dago diez, ta abisuka. Bataren eriotzia, da besteei prest egoteko esatia. Arbolaren orrijak jausten diran legez negu antzian, alan gizonak banaka, biñaka, gustiñok guaz sentitzaka luurrera. Ez dauagu munduban luzaroko bizi lekurik. Itxi biar da munduba, itxi biar da betiko, laster, ta nai, ta ez; denporia ez dago iños geldi. Gaba, ta eguna, bijak dira lapur modu batzuk gure bizitzako denporatik beti ostuten dagozanak. Zaarrak ez gaziak dakijee nori lasterrago beteko jakon orduba. Andijk, ta txikarrak, pobre, ta aberatsak, gustiñok bardinduko ditu eriotziak. Ez da izango arrezkero beste desbardintasunak.

sunik, justu ta pekatarijeena baño. Bakotxari jarraituko deuskube geure obra on, edo txaarrak, Jangoikuaren juizioko tribunal andira (orduban arturik an eguna Santo Kristua eskuban asi zan esaten): Ara emen, zeñen oiñetan nire emaztiak emon dituban, ta nik emon gura nitukian neure azkeneengo arnasa, ta zizpurubak. Ara emen gure bizitza, ta eriotziaren jaube bakarra. Beroni zor deutsagu zeruko glorijen esperantzia. Baña, oh juez justu, ta zuzena! Zorigastokuak zure amodijuaren dejak desprezijetan ditubeenak. Zorigastokuak, eriotzako orduban zuri deitu, baña eureen bizitza deunga, ta biotz gogor leenago zure deieji jaramonik egíñ ez eutseenak gaitik, zeuk bere ordu tristian desprezijetan dituzunak. Oh itxutasuna! Zu zara bizitza, ta eriotzako Jangoikua; eriotzaan gustiñok nai zaitugu, ta bizitzaan gabiltz zure igesil Eriotzaan miñik nasaijienak eskatutzen deutsabee miserikordija, eskurik zikiñeenak oratu, ta estututzen zaitubee, ezpanik loijeenak laztanduten ditubee zure zauriak, jenterik arro, eskandaloso, zure gauza santubak simplezatzat emoten zitubeenak, azkenik negar egiten dabee zure oiñetan. Orduban autortutem dabee gustiñak munduko banidade, arrotasun, ta aragijaren labankerijaak, dirala engaÑu utsak, ta birtutia dala benetako ondasun, ta jakituria; baña artietan adoreetan da mundubaren idolo zorua betikua balitz lako pozagaz. Irazartu nai leukee lo egiteko denporaan. Odolezko malkuak negar egiteko itxutasuna! Gomunta zaite gazte denporatik zeure egilla, ta Jangoikuagaz, dirausku Salomonek. Bizitza deungiagaz gura leukee egíñ eriotza ona. Diabrubak urteten deutsee pijadore, ta alan daukaz millinoiak arima engaÑauta beti geroko propositu onekaz. Lurreko atsegíñ ta ondasunak laster, baño laster, oraintxe, oraintxe; pekatu, ta okasinoiei itxi, ta bizitza on bat artu, gero, gero. Oh Jesus ona! Egiñ arren oraindisek nai izan dai-gula, gero naiko doguna.

JABIERREK: Bijaramonian: Eldu da aita enterrurako denporia, baña oba izango da zu etxian gelditutia. Eleisako funzinoe, soñeko baltz, ta kantu tristiak, jaso leijeez zure biotzian sentimentu zeure osasunaren kaltian izan leitezanak.

AITAK: Ahi neure semia. Ez diñot naturaleziaren sentimentu guztiak amataurik dagozala nigan. Espiritu Santubak berak diño, egíñozu difuntubari negar, irabazi edo merezi eban añaan. Alan Jangoikuaren Erri esleidubak egíñ eban negar Jakob, Jose, Moises, Makabeo, ta beste askoren eriotzetan; egíñ ebeen negar Dabid, Sareptako alargunak, ta Sunamitis ederrak eureen semeenian; San Gregorio Nazianzokok, ta San Ambrosiok eureen anae, ta adiskideenetan. Zenbat zizpuru samur bota ez zituban san Agustinek bere ama santa Monika ill zanian? Ez luzate arren,

díñot azkenik, Abrahan patriarka santubak egin ebala negar bere esposa birtuosaren eriotzaan. Ez da iñundik nire asmua bardindu nai izatia gizon santu oneekaz, ezpada adierazotia, naturaleziaren sentimentubak ez dabeela kenduten Jangoikuaganako konformidadia, ta artu deitekezala azkortuteko gu geijago, geure difuntu maiteen arimaaakaz gomuntau, ta alegiñez sokorrietao. Naastau daigun orazinoia negar ta malkuakaz (orduban gelditu ziran paska bat isillik, samurtuta, aita semiak). Bere birtute, ta bizitza garbijaren gomuntiak, gozatu daikez gure biotzetako oñiaz ta sentimentubak. Jangoikuagan itxaroten dot bere kurutziak eruateko indarra. Guazan bada tenplu santuban entregeetara bere gorputza enterrauba izan dedin bere arimako birtute andijeei jatorkeen honriagaz.

JABIERREK: Enterru ostian. Lutuba daukagun ezkero nai neuke jakiñ zetarako dan, edo zelan gorde biar dan.

AITAK: Lutubak esan gura dau negarra. Lutubagaz adierazoten dogu difuntubaren eriotziak emon deuskun sentimendu, ta doloria.

Lutu modu au ez bakarrik artutenean dogu kristinaubak, baita jentillak bere; naturala dalako artutia naibagia adiskide, edo senideen eriotzeetan. Baña kristinaubeen artian, ez da lutuba naturaleziaren sentimendu utsa agertuteko. Erakutsirik fediak, gure erregu, ta penitenciak arindu, laburtu, edo kenduten ditubeela purgatorioko arimeen penaak, amodijuak berak eskatutenean dau, batez bere, geure senidiak ta adiskidiak padetzietan badagoz, alegiñez sokorriu ta penaak kendutia, aterarik susko karzela gogor atatik. Penitencijsa, sakrifizio, ta orazinoiak egíñ daikeguz, edo bizi-jak gaitik, (alan egíñ zituban Job santubak bere seme alabaak gaitik, Jangoikua errukitu zediñ eurakin, baldin pekaturen baten jausi baziran) edo difuntubak gaitik (egíñ dan legez denpora guztietai Jangoikua ezagutu dabeen jenteen artian). Ondo entzunak dira antxiña kristinaubak egin oizitubeen penitencijsa luze, ta gogorrak, pekatu andiren baten jausten bazi-ran. Autsa buruban, zaku zantarra, zilizjua soñian, baruba, ta baruba, gustija zan gusto lizituak bere kendu gorputzari, ta kastigeetia erruki baga. Gordeetan ebeen erretirua, ez bakarrik dibersinoe nasaijetatik (bada ori, beti, ta penitencijsa baga egíñ biar dau kristinau egiazkuak), baita aparteetan ziran olgantza inozenteetatik bere. Penitente oneei, leleengo graduban egozanian, esaten jakeen negarti, edo lulu dunak. Areen irudijan legez bada artutenean lutuba difuntubeen arimaak gaitik, aplikeetan jakeezala orazinoe, penitencijsa, erretiro, ta mortifikazinoe andijkak. Erropako lutubari, ez jakon ainbeste begiratutenean kolorera, zeñda humildade, ta probrezara. Orañ, uste dau askok, lutuba ez dala beste gauzarik soñeko bal-tza erabiltia baño. Baña zer deutsa difuntubari gure erropako koloriagaz,

baldin baltzian bertan banidadia billatzen bada? Baldin mortifikazinoe, penitencijsa, erretiro, ta obra onak aplikeetan ezpadadeutsaguz? Oh guraso, senide difuntu askoren arimaak! Soñeko baltzakin dabiltz bai zuben seme alaba, ta aidiak; alan kunplietan dabee mundubagazku; baña ezkutau ziñan eureen begijetatik, baita gogotik bere. Lutuba soñian, nasaitasuna biotzian. Ikusi egizuz batzuk plaza, ta erromeriei bere isten ez deutseela. Mundubaren zer esana gaitik dantzariak egiten ezpadabee oñakaz, egiten dabee biotzakaz, egiten dabee begijakaz; askok, biar bida, damubago dau dantzak ezin egíñ, zubek illa baño; bide, ta osteruntzeko okasinoietan, bardinduten ditubee lagunik nasaijeenak. Oh, zelan konteetan ditubeen lutuko egunak, kenduteko pozik zuben gomunta otzaren erlikijarik txikareenak! Arima geisuak: erre zaite bai, erre zaite; subagaz garbitu egizuz, ta pagau pekatubeen erlikija, ta zorrak; bada ona begiraturik, zer ikusiko dozu zubentzat? Ez dot geijago esan gura. Oh aingeru eder, Jangoikuak arima gaisuentzat izentaubak, eta ze barri tristiak eruan biar deutsazubeezan mundu onetatik euretatik, askori, ta askori.

JABIERREK: Ez zara aaztuta egongo aita, ainbat lasterrean honraak egitian zeure emazte nire ama onari.

AITAK: Enterruko egunetik nago berbatuta, leleengo egun librian egiteko. Batzuk luzatu, ta luzatu oi ditubee honraak, jan edan andijkak egite arren. Ez daukee errukirrik difuntubaren arimia padetzietan egon arren, eurak nai dabeen ospe, ta baralliagaz egiten baditubee gero. Honra askotan gasteetan da zorrak pageetako, edo familia akomodeetako biar litzaitiana. Gustija banidade arro bat gaitik. Batzuk badaukee zegaz, ta egiten ditubee gastu andijkak; beste batzuk ez euki arren, ez dabee gitxiago izan gura. Oneek alde bitatik uts egiten dabee, ta bestiak bere bai bate-tik. Bada zer dauka zer ikusi jan edan laarregi, ta ordikeriak honriagaz? Eta nos ikusi oi da ainbeste ordi zeñda alako honra modubetan? Oh kostumbe lotsagarrisia! Ez dot bada ikusi gura neure emaztiaren lutuko egun andija ordikerija, bulla, ta zantarkeriak beterik; ta oraindisek agindutenean deutsut neu illten nasaneko, ez emoteko alako jan edan, ta Jangoikuaren ofensarako motiborik. Adiskide benetakuak ez dabee jan edaneen biarrik mezaak aterateko; Adiskide egiazkuak ezpadira, ta bai ardaurenak, bijuaz nai badabee tabernara meza dirubagaz, neuk aterako deutsudaz neure emaztiari.

JABIERREK: Ez dago orretara errazoezko zer erantzunik, ardantza-liak orregaitik esango dabee prestubezkeriak egiten dogula.

AITAK: Ez dakit nik, mundutaa tonto batzuk zer aituten dabeen prestubaren izenagaz. Zorrak pagau ez, etxiak ondatu, umiak erdi billo-



sik, zensua, ta arlotetasuna alde gustietatik, ta orregaitik honra, taberna, ta fiestean aurerrereengo badabill pitxarrogaz, gizon prestutzat daukee. Prestutasuna, nik aituten dot, leleengo bakotxari beria emotia, iñoren kalte baga bizi izatia, projimo, batez bere premiñia daukana sokorrieta, kodiziosua ez izatia, ta bai samurra errazoiak eskatutzen dabenian. Itxirik bada oraïñ alde batera, gizon ezkondu, eureen familijaren lotsaari, ta artzeekua daukeen askoren kaltian, prestu izan nai leukeenak, begiratu bekijo arako mutill plazako bere buruba beste gustiak baño prestubagozat daukanari. Zenbat diru zabaldu ete dau pobreen artian bere zizku ugarijak? Zenbat konbit dugako emon ete dau? Ez dira gatz izango konteetan. Bere prestutasun gustiak izango da fiesta baten edo bitan sei edo zortzi azunbre arda gasteetia. Baña dugarik? Ez; ezpada, berak askoz gejago edaateko iñoren lepotik fiestatik fiesta ibillita. Orra zein prestutasun andija. Alakuak dira honra, ta mundu zoruaren okasinoietako prestutasunak. Esan daijeela bada edozer gauza, prestutasuna zer dan bere ez dakileenak. Bizi gaitian iñoren kalte baga, projimuari egiñ daijogun al dogun on gustiak, ta pobriak euki daiguzan geure bando; Oneek dira prestutasunaren testigantzarik ziurrenak.

HISTORIJAREN AMAIJA

Jabierrek emoten ditu emen bere aitaren azkeneengo egun, ta eriotzako barrijak.

Amaiturik emaztiaren honraak, alde batera iste arren luurreko ardu-raak, arimakuei bakarrik begiratuteko, egiñ eban aitak testamentuba, ta erabagi zituban bere gauza gustiak. Ez zituban gura izan itxi arazu oneek, arimakuak ardurarik asko emon oi dabeen azkeneengo geisorako, ta kendu gura izan zituban, sarri, ezer egin baga, usterik gitxieenian illda, gelditu oi diran auzi, ta atralakeen peligrubak. Bizi zan, alargun egiiazko baten garbitasun, humilldade, ta birtutiakaz, egifrik gustieenexenplu. Iru-rogeta lau urtekua, artu eban kalentura gogor, geldi geldi oïñeen ganian ebillela sikitutzen eban batek. Medikubak agiñdu eutsan ibillteko, ta neu izan oi nintzan bere pasietako laguna. Ez jakon arrezkero berba bat entzuten luurreko gauzeen gañian. Ahi, neure seme maitia ziraustan: ez da bardin esatia, entzutia, ta penseetia, zeiñda urretik begiratutia eternidadiari, eriotzako ateetara eldutzen dianian gizona. Zeiñ ona dan konziendziako bake, ta garbitasuna! Zenbat esker daukadan zer emon Jangoikuari, bere grazijkaz, aurkitutzen nasalako kezka baga! Egun baten ginoiazala, arbola arteko kerizpe batetik, asi jatan esaten: ezagututzen dot neure semia, etxeiko gustiok zabiltzala ni osatuko nasalako esperantzeetan sartu nairik, baña deustazun amodiju gaitik dirautsut, ez zaitiala arren dendatu kendu nai izaten neure gogotik daukadan pensamenturik gozueena, zein dan eriotzia. Ahi, zeiñ errukarrija dan, nai ta ez etorri biar dabentzen gauza bat beti gogotik kendutian bere biotzeko atsegíñ, ta bagia imiñten dabena! Eta zelan uts egiten dabeen onetara lagundutzen deutseenak bere arimako kaltian! Adiskidetasun ta amodijo zintzuak ez dabee biar engañurik. Berbakuntza oneetan giñoiiazala eldu giñan baso arte baten eguan hermita zaar, denporeen baten parrokija izanikora. Oraindik aurkitutzen ziran sepultura, ta difuntubeen azurrezko erlikijareen batzuk, ta esan eustan: Ara neure semia, nora etorri oi nintzan jakiturria ikasten, bakarrik etxetik urtetzen ikusi oi ninduzun askotan. Leku onetako isilltasun, ta batutasunak, baketurik zentzun ta pasinoiak, presteetan ebeen nire arimia alkanteetako, munduko builleen artian letraubagei ezkuteetan jakeezan jakiturriko argitasunak. Emen, neure artian, igaroten nituban irakurrita neukazan erlijinoe santuko gauzaak, ta zurtutzen nintzan ezin geijago gomun-

taubagaz, egozala gizonak, Jesusen mandamentu santubak desprezijau, eriotza ta eternidadiagaz aaztu, ta munduba ainbeste maite ebeenak. Sepultura, ta azur oneei egiten neutseen itaune asko luurreko banidade, ta aragijaren atsegijen gañian, ta neure biotzak artutten eban eurak ganako gorrotuagaz, alizatera batuko nituban leku onetara mundubaren seme alaba maite gustijak, testigu mutu onen aurrian itaune batzuk egitera. Ah! Zer dago munduban zer aillagiña maitetu? Zer dauka gizonak zeri ainbeste arrotu? Eta, onetan amaitu biar dabeela mundubaren ospe, soñu, baralla, ta lora gustijak! Azken au izango dabeela erregiak! Emen ezkutau biar dabela laster gizon andijeen izenak! Ona biar dabeela, egun gitxi barru, emakume edergura, apañdu, ta arruak! Errazoez Salomonek, munduko atsegin, ta ondasun gustietatik igaro ezkero, esaten deusku, ez ebala aurkitu euretan, ezpada engañuba, ta azkenik espirituoko mingotxtasuna. Ordutik laster geldituz zan oian jagi ezin zan moduban, ta ill osuak igaro zituban beti konseju onak emon, ta eternidadian penseetan. Gatzak, ta oe lusiak zauritu eutseezan aragijak, ta noisian beiñ artutten ebeen dolore aldi andijak, baña bere pazienzia, ta alegríjak zurtutzen zituban ikusten ebeen gustijak. Egun baten ikusirik malkoz bete jatazala begijak, esan eustan exenplu au: Soldau bat kazaan ebillela, pistija baten ondoren urreratu zan baso illun batera; Entzun eban soñu, ta kanta ain ederra, zeiñda sartu zan barrura, jakin nairik nor ete zan kantoria; baña zurtuta gelditu zan, aurkitu ebanian luurrian etzunda gizon bat burutik biatzera lepraz josita, aillagiña zauri, ta llagaz ustelduba, zeinda jausten jakozan aragijaren zati-jak. Itandu eutsan Soldaubak norena izan ete zan berak entzun eban kanta eder, ta alegría; ta erantzun eutsan beria zala. Zelan, dirautso soldaubak, zelan ainbeste pena ta miserijaren artian alegrau ziñaindez sioñu aiñ ederrak kanteetako? Geisuak erantzun eutsan: Nik Jangoikuagana juateko daukat enbarazu bat, ta da bitaartian daguan luurrezko orma bat, zeiñ dan nire gorputz ustela; ikusirik bada zatika jausijaz doiala orma au, alegrau, konsolau, ta gozatutenean, laster neure jaubiagana igaroteko esperantziaz, eternidadeko gloriween herederu izatera.

Urreratubagaz eriotzia igarten jakon geituten jakola poza. Artu zituban sakramentu santubak konfesoria zurtutzen eban debozinoiagaz. Konfesau, ta komulgau zan bein baño geijagotan, geiso lusiak leku emon eutsalako. Komulgeetan zanian, luzaro gelditutzen zan bakarrik gelaan, iñor bere sartutzen ez zala berak dei egiñ artian. Orduban esan oi zituban berbaak, batez bere Jangoikuaren amodijuaren gañian, agertutzen ebeen bere biotzeko berotasuna. Egun baten, deiturik gustioi batera, esan euskun. Neure seme maitiak, eriotzako horduko berbaak, geijeenian oi dabee

indar modu bat, josita legez geldituteko entzuleen biotzetan. Ez dago eriotzako horduban txantxarik. Esan lei, arimiak berak gejago berba egiten dabela miñnak baño. Egijak urten oi dau orduban zintzo zintzo, ta garbi garbi. Dirautubeet bada biotz biotzetik: Ondasunik andijeentzat gordeetako beti Jangoikuaren billdur santuba. Arerijorik andijeentzat pekatuba. Parkatuteko projimuari injurija gustijak Jesusen amorez, erruktutzen zareela eureen argaltasun, ta uts egitiakaz. Maitetuteko projimo gustijak, begiratu baga eureen esker on, edo txaarrera, ezpada Jangoikuak geuri deuskun amodijora, ta eskintzen deuskuzan sari amai bagetara. Biotz bigun, ta esku zabalak eukitekom, batez bere pobriakaz. Eleisa zale, ta mundu gorrotokuak izateko, ta alan erakusteko mendeko gustiei, esa mesei jaramon baga. Azkenik, bizi izateko, eternidadian damuko ez dozun moduban.

Artu eban laster konkortasun batek, ta egon zan alan horduren baten. Ikusirik edegi zitubala begijak urreratu nintxakon edaari bategaz, ta ozta aituteko berba motelagaz esan eustan: Neure semia, ez dot biar beste gauzarik neure Jangoikua baño. Urreratu eban ezpanetara, beti eskuban eukan Santo Kristua, ta bere lazta gozuan emon zituban azkeneengo arnasaak, beti opa izan, ta Jangoikuari esku eutsan moduban.